



*Tratu  
txarrari  
aurrea  
hartuz*



**EMAKUNDE**  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDIA  
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomiaduna

Organismo Autónomo del

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

---

NELI ZAITEGI  
MARGARITA AMIGO

*Tratu*

*txarrari*

*aurrea*

*hartuz*

EMAKUNDE  
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

Vitoria-Gasteiz 1995

|                            |                                                                                        |
|----------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>IZENBURUA:</b>          | "Tratu txarrari aurrea hartuz"                                                         |
| <b>EGILEA:</b>             | EMAKUNDE/Emakumearen Euskal Erakundea<br>Manuel Iradier, 36. 01005 VITORIA-GASTEIZ     |
| <b>KOORDINATZAILEA:</b>    | Ana Rincón                                                                             |
| <b>AUTOREAK:</b>           | Neli Zaitegi eta Margarita Amigo                                                       |
| <b>DATA:</b>               | Ekaina 1995                                                                            |
| <b>ALE ZENBAKIA:</b>       | 1.000                                                                                  |
| <b>ORRI ZENBAKIA:</b>      | 228                                                                                    |
| <b>DESKRIBATZAILEAK:</b>   | Tratu txarrak, bikoteak, sexu bereizketak,<br>alde psikologikoak, material didaktikoak |
| <b>IRUDI DISEINUA:</b>     | Ana Badiola eta Isabel Madinabeitia                                                    |
| <b>ILUSTRATZAILEA:</b>     | M. <sup>o</sup> José Gamboa                                                            |
| <b>FOTOKONPOSATZAILEA:</b> | RALI, S.A.<br>C/ Particular de Costa, 8-10. 48010 BILBAO                               |
| <b>INPRIMATZAILEA:</b>     | Gráficas Santamaría, S.A.<br>Bekolarra, 4. 01010 VITORIA-GASTEIZ                       |
| <b>ISBN:</b>               | 84-87595-36-7                                                                          |
| <b>LEGE GORDAILUA:</b>     | VI-272/95                                                                              |

## AURKIBIDEA

|                                                                                      |    |
|--------------------------------------------------------------------------------------|----|
| <b>AURKEZPENA</b> .....                                                              | 9  |
| <b>SARRERA</b> .....                                                                 | 11 |
| <b>1. TRATU TXARRAREN PREBENTZIOA</b> .....                                          | 15 |
| 1.1. BIGARREN HEZKUNTZA DERRIGORREZKO-ONDOKO<br>ZENTROETAN EKITEKO PROPOSAMENA ..... | 15 |
| 1.2. HELBURUAK .....                                                                 | 17 |
| 1.3. EDUKINAK .....                                                                  | 18 |
| 1.3.1 Kontzeptuzkoak .....                                                           | 18 |
| 1.3.2 Prozedurazkoak .....                                                           | 19 |
| 1.3.3 Jarrerazkoak .....                                                             | 19 |
| 1.4. MODULU DIDAKTIKOA .....                                                         | 20 |
| 1.4.1 -1. atala. Tratu txarra .....                                                  | 23 |
| • Helburuak                                                                          |    |
| • Edukinak                                                                           |    |
| • Iharduerak                                                                         |    |
| • Materialak                                                                         |    |
| • Ebaluazioa                                                                         |    |
| 1.4.2 -2. atala. Genero-sozializazioa .....                                          | 26 |
| • Helburuak                                                                          |    |
| • Edukinak                                                                           |    |
| • Iharduerak                                                                         |    |
| • Materialak                                                                         |    |
| • Ebaluazioa                                                                         |    |
| 1.4.3 -3. atala. Bikotea eta gatazka .....                                           | 30 |
| • Helburuak                                                                          |    |
| • Edukinak                                                                           |    |
| • Iharduerak                                                                         |    |
| • Materialak                                                                         |    |
| • Ebaluazioa                                                                         |    |

|                                                                |           |
|----------------------------------------------------------------|-----------|
| 1.4.4 -4. atala. Norberaren proiektua. Benetako igurikapenak   |           |
| igurikapen idealen aurrean .....                               | 33        |
| • Helburuak                                                    |           |
| • Edukinak                                                     |           |
| • Iharduerak                                                   |           |
| • Materialak                                                   |           |
| • Ebaluazioa                                                   |           |
| <b>2. EZKONTIDEAREKIKO TRATU TXARRAREN AZTERKETA .....</b>     | <b>37</b> |
| 2.1. TRATU TXARRA GAUR EGUN .....                              | 37        |
| 2.1.1. Aipamen historikoa .....                                | 37        |
| 2.1.2. Arazo ikustezina .....                                  | 39        |
| 2.1.3. Arazo honen nondik norakoa erakusten duten datuak ..... | 41        |
| • Mundu mailan .....                                           | 41        |
| • Estatu mailan .....                                          | 43        |
| • Autonomi Elkartean .....                                     | 43        |
| • Beste datu interesgarri batzuk .....                         | 44        |
| 2.2. EZKONTIDEAREKIKO TRATU TXARRA .....                       | 45        |
| 2.2.1. Zer da tratu txarra? Motak .....                        | 45        |
| 2.2.2. Ezkontidearekiko indarkeria .....                       | 46        |
| • Indarkeriaren zikloa .....                                   | 46        |
| • Tratu txarra ematen duen gizonezkoa .....                    | 48        |
| • Tratu txarra jasandako emakumezkoa .....                     | 55        |
| • Ezkontidearekiko tratu txarraren eragina seme-alabengan ...  | 62        |
| • Tratu txarraren ondorengo egoera .....                       | 63        |
| • Tratu txarraren zergatiak .....                              | 66        |
| • Arriskuaren adierazleak .....                                | 73        |
| 2.3. FAMILIA ETA ETXEKO INDARKERIA .....                       | 73        |
| 2.3.1. Familiaren ezaugarriak indarkeriaren sorgune gisa.      |           |
| Familiari buruzko topikoak .....                               | 74        |
| 2.3.2. Familia. Definizioa. Familia osasungarriaren funtzio    |           |
| eta ezaugarriak .....                                          | 75        |

|                                                                      |            |
|----------------------------------------------------------------------|------------|
| 2.3.3. Indarkeria nabari zaion familiaren ezaugarriak .....          | 78         |
| 2.4. BIKOTEA ETA GATAZKA .....                                       | 79         |
| 2.4.1. Zenbait topikoren berrikuspena .....                          | 80         |
| 2.4.2. Harremanaren definizioa. Parametroak .....                    | 82         |
| 2.4.3. Erreferenteak .....                                           | 86         |
| 2.4.4. Bikotearen bilakaera-zikloa .....                             | 89         |
| 2.4.5. Gatazka-tokia .....                                           | 90         |
| 2.5. EZKONTIDEAREKIKO TRATU TXARRA AHALBIDETZEN DUTEN                |            |
| GENERO-BALOREAK .....                                                | 92         |
| 2.5.1. Genero-sozializazioaren prozesua eta berorren ondorioak ..... | 92         |
| • Feminizazio-programa .....                                         | 93         |
| • Maskulinizazio-programa .....                                      | 93         |
| • Agresibitatea eta amorrua .....                                    | 94         |
| • Diruaren erabilera .....                                           | 95         |
| • Harreman sexualak .....                                            | 97         |
| • Menpekotasuna .....                                                | 98         |
| 2.5.2. Estereotiporik arruntenak .....                               | 99         |
| 2.5.3. Sozializazio bereziaren mekanismoak .....                     | 100        |
| 2.5.4. Genero-sozializazioaren eragina ezkontza-kontratu             |            |
| arruntean .....                                                      | 101        |
| 2.5.5. Familiari buruzko oinarritzko kontzeptuen berrikuspena        |            |
| genero-sozializazioaren ikuspegitik .....                            | 103        |
| • Bategitea eta aldentzea, txanpon bereko bi aldeak .....            | 103        |
| • Elkarrekikotasuna .....                                            | 104        |
| • Bateragarritasuna .....                                            | 104        |
| • Hierarkia .....                                                    | 105        |
| • Mugak .....                                                        | 105        |
| • Triangeluak .....                                                  | 105        |
| • Sintomaren Funtzioa .....                                          | 106        |
| 2.5.6. Alternatibak .....                                            | 106        |
| <b>3. BIBLIOGRAFIA .....</b>                                         | <b>109</b> |

## *Aurkezpena*

Emakumeek etxean jasaten duten bortizkeria arazo larria da oraindik gure gizartean. Bortizkeria hori batzutan eraso fisiko zein psikikoak izan daiteke, beste batzutan harantzago iristen da eta ezkontza barruko bortxaketa edo bikotearen ondasunak txikitzea dakar bere baitan. Bestalde, arazo hori adin-talde, hezkuntza, gizarte eta ekonomi maila guztietan gertatzen da, dena dela lotura handia dago drogak eta alkohola gehiegi hartzearen eta bortizkeria mota hori agertzearen artean.

Emakumeek jasaten duten bortizkeria horren ondorioak garrantzitsuak dira. Batzutan lesio fisiko larriak dira, heriotza ekar dezaketenak, baina beste batzutan ondorio psikologikoak ere gera daitezke, antsia, depresioak, traumatismoen ondorengo estresak sortutako asaldurak, etab. Gainera, emakumeek etxean jasaten duten bortizkeriak eragin handia du neska-mutikoengan, gizarte eta heziketa-arazoak izateko aukera gehiago baitute. Emakumeak erasoak jasaten baditu etxean, bertan hazten diren mutikoak errazago bihurtuko dira berak ere erasotzaile; giro horretan hazitako neskek, ordea, hurrengo harremanetan jasalearen papera jokatzeko joera handiagoa izango dute.

Emakumeek etxean jasaten duten bortizkeriaren edo tratatu txarren arazoa arduraz handikoa da Emakunderentzat eta horrela dago jasota Euskadiko Emakumeen Ekintza Positiborako Planean.

Emakunde jo ta ke ari da lanean arlo horretan beste erakunde batzuekin batera, laguntza psikologikoa, lege-aholkularitza, eta beste zerbitzu batzuk eskaintzen, koordinatzen eta bultzatzen eta sentsibilizazio-kanpainak egiten. Betalde, horrelako erasoak jasaten dituzten emakumeei, erasotzaileei eta egoera horietan nahastuta dauden neska-mutikoei tratamentua emateko profesionalen prestakuntza bultzatzen da Emakunderen aldetik.


Halere, arazoa zein larria den eta zein hedaturik dagoen ikusita, arlo honetako ekitaldiak areagotzea beharrezkoa da Emakunderen eritziz. Ez bakarrik gertatzen diren egoerei laguntza bidez aurre egiteko, baizik eta egoera horiek aurrerantzean errepika ez daitezen aurrezaintza egiteko, hala ekitea gomendatzen baitute bai Europako Legebiltzarrak bai hain goi-mailakoa den Amerikako Psikiatria Elkarteak.

Argitalpen honen helburua aurrezaintza-lan horretan aritzea da gazteen hezkuntzaren bitartez, garai horretan finkatzen baitira behin-betiko pertsona nagusiaren paperak. Ikasleek, gainera, motibazio handia dute beste sexuko pertsonekin harremanak izateari buruzko gaiez.

---

Hurrengo orrietako modulu didaktikoaren helburuak hauek dira: tratu txarren aurrezaintza eta horren ingurukoak hobeto ezagutzea, pertsonen arteko harremanei buruzko gogoetak gazteen artean bultzatzea eta bikote-harremanak positiboki eta informazio onarekin bizitzeko behar diren jarrerak garatzea.

Azken finean, lan honen bidez zabaldu nahi duguna hezkuntza-arloan lan egin behar dela da, emakumeek jasaten dituzten tratu txarrei aurre hartu nahi badiegu. Era berean, irakasleei begira, didaktika-estrategiak eskaintzen zaizkie eta baita prozesu guzti horiei buruzko informazioa ere, hots, erasoak, azpian edo inplizituki, ahalbideratzen dituzten familia, bikote eta gizarteratze generikoari buruzko prozesuei buruzko informazioa. Gure asmoa, laburbilduz, emakumeen askatasuna, duintasuna eta osotasun fisiko nahiz psikikoa sustatzea da, eta aldi berean tratu txarrekiko gizartearen gaitzespena lortzea.

A handwritten signature in black ink, reading 'Txaro Arteaga'. The signature is enclosed within a large, loopy oval shape, with a long, sweeping line extending from the bottom right of the oval.

Txaro Arteaga Ansa  
EMAKUNDE/ Emakumearen Euskal  
Erakundeko Zuzendaria

Halakorik sinistea zaila gertatzen bada ere, ezkontideen arteko eta familiaren baitako tratu txarrak, emakumeri emandakoak hain zuzen, ez dira aintzinako kontuak, gaur egungoak eta hemengoak baizik. Horixe azaltzen baitute gero aipatuko diren estatistikek, azterlanek eta ikerlanek.

Tratu txarrari aurrea hartzeko gazteekin hezkuntza mailan lan egin behar dela aldarrikatu da behin eta berriz hainbat instantzietatik.

Europako Legebiltzarrak 1986ko ekainaren 11n eman zuen emakumeekiko indarkeriari buruzko Ebazpenean, Elkarteko herrialdeei hurrengo gomendioak egin zizkien hezkuntza-mailako ekintzei dagokienez:

“Haurrak eta gazteak helduarorako prestatzeko ikastaroak sartu eta jarraian adierazten diren alderdiok haintzat hartzen dituzten egitarau hauek burutzen direla etengabe kontrolatzeko gomendioa egiten da:

- a) Bi sexuen arteko harremanetan funtsezko osagaia den giza-existentziaren eta duintasunaren begiramenaren garapena.
- b) Eskoletan eta lantokietan filmeak erakutsiz eta eztabaidak sortaraziz, hezkuntz egitaraua abiaraztea, neskei eta emakumeei egoera arriskugarriak somatu eta mugatzen laguntzeko eta haiei aurre egiteko era erakusteko.
- c) Eskola-adineko neskatoei beren burua defendatzeko ikastaro bereziak ematea.
- d) Bi sexuetako gazteei famili bizitzaren eskakizunei eta ekonomi burujabetasunari aurre egiten lagun diezaieketen “bizitzari aurre egiteko” ikastaro orokorrak antolatzea.
- e) Helduaroko harremanetarako prestakuntza, gizabanako guztien berdintasunaren funtsezko onespenean oinarritutako bi sexuen elkarulertzeari esker, elkarrenganako erantzunkizuna eta begiramena sortzeari begira.
- f) Hezkuntza sexual egokia, alderdi biologikoak, fisiologikoak eta kulturalak sartuz, gazteak euren ugaltze-ahalmenaz ohar daitezen eta hura kontrolatzeko baliabideak ezagutu eta horrek bi bikotekideei dakartzkien erantzukizunez jabe daitezen.
- g) Bikote-bizitzarako, amatasunerako eta aitasunerako prestakuntza, seme-alaben munduratzearen ondorioak, emoziozkoak, maitasunezkoak zein praktikokoak, erabat ulertzeko eta guraso izatearen eginkizunak bion artean bete beharra onartzeko.

h) Eskolako liburuetan ageri diren estereotipo sexualen deuseztapen azkarragoa, gizonezkoari eta emakumezkoari gizartean dagozkien eginkizunen pertzepzioa faltsuturik egon ez dadin.

Emakundek, gomendio hauei erantzunez, Bigarren Hezkuntza Derrigorrezko-ondokoan<sup>1</sup> diharduten ikasleekiko hezkuntz ekintza proposatzen du, biziara honetan moldatzen baita pertsona helduaren rolen behin betiko egituraketa eta beste sexuko pertsonetikiko harremanei dagozkien gaiak oso erakargarriak suertatzen zaizkielako adin honetako ikasleei.

Ekintza hau behar den modukoa izango bada, zenbait abiaburu edo premisa hartu behar dira kontutan:

1. Aurrea hartu beharraren sentsibilizazioa
2. Tratu txarraren arazoa ezagutzea
3. Hari aurre egiteko estrategia didaktikoak

Portugaleteko Ballonti Batxilergo Institutuan 2. mailako BBBko ikasleekin izandako esperientzia, talde/ikasgelako ikasleen artean somatzen diren tratu txarrari buruzko aurrekontzeptuak irtenaraziz hasten da, eta hasiera horretan zenbait kasutan ezezagutza antzematen da eta gehienetan topiko ugari. Egoera berbera azaltzen da ikasgelako neska-mutilek beren gizarte-ingurunean, hau da, bi sexuetako irakasleen nahiz ikaskideen eta senitarteko-en artean eginiko ezkontidearekiko tratu txarrari buruzko inkesten emaitzetan.

Zenbait galdera: Zer da tratu txarra? Zergatik sortzen da? Zein arrazoi izan dezake gizonetzko batek bere bikotekideari tratu txarra emateko? Zer egin daiteke hura galerazteko? Zergatik isiltzen dira tratu txarra jasandako emakumeak? Zer egin daiteke gertatuz gero? Nolakoak dira tratu txarra ematen duten gizonetzkoak? Nolakoak dira tratu txarra jasaten duten emakumezkoak? Nolako zigorra ezartzen zaie tratu txarra eman duten gizonetzkoiei?

Kontzeptu desegokiak: jo, alkoholikoek, drogazaleek eta eroek baino ez dute jotzen; tratu txarrak ematen dituzten gizonak kultur maila eskasekoak edo baztertuak dira eta antzera-koak, ikasleen ahotan ez ezik, haien gizarte-ingurunean ere entzun dira.

“Elkar oso maite badute, dena konpon daiteke”, “maitasunak dena gaingaitzen du”, “zurekin ogia eta kipula”, “ezkontza loteria da” edo senarra eta emaztea burdina eta artilea beza-lakoak dira” eta antzerako topikoak ere bi inguruneetan aurkitu dira.

<sup>1</sup> Egilearen oharra: Eskolatik kanpo, nerabeekiko beste lan- nahiz hausnarketa-inguruneetan ere erabil daiteke, astialdirako klubetan, sendotza-taldeetan, etab.

Ekintzarako proposamena Modulu Didaktiko batean datza. Haren osagai diren arlo eta atalak berriz, horretarako programaturiko helburu eta edukinetatik ondorioztatu dira, Modulua abiarazi ondoren berrikusi eta zuzendu egin direla geroko erabilera ahalik eta hobereena izan dadin.

Aipatu beharra dago, bestalde, helburua ez dela, inondik ere, ikasleak doktrinatzea, haien hausnarketa, analisia eta ondorioztapena bultzatzea baizik, hala nola, bikote-harremanari informazioz eta era positibo batez aurre egin ahal izateko beharrezkoak diren jarrerak adierazi eta bultzatzea.

Aurreko guztiagatik, Emakundek zera lortu nahi du lan honekin:

- Ekin beharraz sentsibilizatzea.
- Ekintzarako estrategia didaktikoak eskaini.
- Irakasleei tratu txarrari buruzko eta berori ahalbidetzen duten familia, bikote eta genero-sozializazioen baitako prozesuei buruzko informazioa eskaini.

Beste alde batetik, lan hau mugatua dela ere aipatu behar da. Lanaren helburuak, beronen xedea didaktikoa baita, beronetan emandako denborak, mugatua eta eskolan kokatua, eta ikasleentzako nahiz irakasleentzako ulerterraza eta erabilgarria izan beharrak mugaturiko lana da eta. Horregatik, hain zuzen ere, heldu diogu ikuspegi soziokultural batetik.

Ulergarritasun eta didaktikatik abiatu da, alderdi deskriptiboa azpimarratuz, azterketa zehatz eta sailkatuagoa alde batera utzi eta baloreen eta jokabideen arloa jorratuz. Hortaz, maskulinoa eta femeninoari buruzko teorizazioa, banakako psikopatologia, sadomasokismoa eta bisexualitatea eta abarrak bezalako identifikaziorik sakonenak ez dira jorratu.

Irakurleak muga hauek kontutan hartzea nahiko litzateke, azterlan honen ekarpenak ez baitira orokortu eta globalizatu behar.

Azkenik, bibliografiari dagokionez, disziplina eta orientazio ezberdinetako egileengana jo dugula aipatu behar da. Orientazio sistemikoari jarraitzen dioten autoreengana, Marianne Walters, Grosman, Masterman eta Adamo, esate baterako; orientazio gestaltikoa dutenengana, Linda F. Little kasu; orientazio dinamikodunengana, Alicia Ruiz de la Prada, Ana M.<sup>o</sup> Fernández; Erikson, Berenstein eta Peter A. Martin bezalako psikoanalista ezagunengana; eta soziologi arloko C.I.S. edo O.N.U.ren Txostenetara edo Perla Haimovich eta Purificación Gutierrezengana.

**BIGARREN HEZKUNTZA  
DERRIGORREZKO-ONDOKO  
ZENTROETAN EKITEKO  
PROPOSAMENA**

Tratu txarrari aurrea hartzeko ekintzarako proposamena aurreritzi teoriko edo arazoaren aurreko jarrera jakin batzutan oinarritzen da, hots:

- Tratu txarra gizartean aski hedaturik dagoen arazoa da, ez da arazo bitxia eta mugatua.
- Tratu txarra ez da ausaz sortzen, gaixotasuna bezala, gizonezkoaren eta emakumezkoaren arteko harremanari ekiteko era jakin baten ondorioa baizik. Era oker eta hondatzailea. Jokaera oker eta hondatzaile hau gizarte-legezko eta kulturazko ingurune jakin batean gertatzen da, hura ahalbidetzen duen ingurunea, noski, baina, era berean, gertaeraren protagonisten baloreek eta sinismenek, interes ezak eta jakinezak ere ahalbidetzen dute tratu txarra.

Tratu txarrera daraman ibilbide bat badela, haintzat harturik, haren hasieran, hau da, nerabezaroan, ihardutea proposatzen da.

Nerabezaroa da une egokia, zeren "identitatearen laborategia baita, eta "aurrez onartzen ziren berberatasun eta iraunkortasun guztiak zalantzan jartzen deneko" arotzat hartzen baita, "Hori gorputza azkar haztearen ondorio da, lehen haurtzaroan gertatzen den bezala, eta biologi mailan, berria zaien heldutasun genitalaz jabetzearena"<sup>2</sup>. Nerabezaroaren hasiera mugaturik dago biologikoki, baina amaiera gizarte bakoitzak heldua izateko ezarritako baldintzen menpe dago. Eriksonen dioten bezala, luzapen bat da, haurtzaroaren eta helduaroaren bitarteko aro psikosoziala, haurrak ikasitako moralaren eta helduak garatu beharreko etikaren bitartekoa.

Nola defini liteke norberaren identitatea bilatu eta eraikitze lan hori? Nerabeak egin behar duen integrazio hau haur-identifikazioen batuketa baino askozaz ere zailagoa da. Niak, metaturiko esperientziaren bidez eginiko identifikazio guztiak libidoaren gora-beherekin, kongenitotik garatutako gaitasunekin eta gizarte-erolek eskainitako aukerekin integratzeko

<sup>2</sup> Erikson, Erik H.: *Infancia y sociedad*, Buenos Aires, Hormé, 1980.

gai den frogatu beharra dauka. Aukera horiek era ezberdinez azaltzen dira. Era horietako bat, identitatea bideratzen duten gizarte-balore batzuk eskaintzean datza, eta haien bidez gizarte-sistemak hurrengo belaunaldiaren bilbean sartzen dira.

Nerabezaroa, beraz, bizitza-berritzaile bat da gizarte-bilakaeraren barruan, gazteriak, benetakotzat duena zaintzeko bezala, alderdi berritzailea galdu duena iraultzeko ere eskain baititzaake bere leialtasun eta indarra<sup>3</sup>.

Alderdi horretatik, nerabearen burua edo gogoia "gogo ideologikoa" da. Lerratzeko erreferenteak eta etsaia, ulertezina, gaitza delakoa muga dezaten beste batzuk aurkitzeko irrikitan dagoen gogoia, alegia. Gazte suharberak bere gizarte-ingurunean bilatzen ditu pertsona nahiz ideia fidagarriak, nerabezaroak hain funtsezkoa den familiarengandiko "urruntze" prozesuaren burrundadaz. Familiaren erreferentziaren ordeztu gizarte-erreferentziak hartuz doa, haurtzaroaren amaiera da<sup>4</sup>.

Paradoxikoki, interes hori mesfidantza ageriko eta zinikoaren bidez azal daiteke, nerabeekin dabilatzanez oso ezaguna zaiena. Mesfidantza hau gehiegi fidatzearen beldur direlako sortzen da. Horregatik da unerik egokiena: motibazioa oso handia da eta erreferenteak biatu, dauzkatenak zalantzan jarri eta hainbat jokabide integratzeko aukera emango dieten hausnarketa-guneak behar dituzte.

Azkenik, ez da ahaztu behar gizatasunaranzko ibilbidean emango duten hurrengo urratsa loturarena izango dela, hots, Eriksonen hurkotasuna deitzen duena: afiliatze eta elkartzeko jakinei lotzeko eta halako erantzunbeharrak betetzeko behar den indar etikoa garatzeko gaitasuna. Orduantxe, identitate-sentipen nabarmenaz, garatu ahal izango du erabat ernaltasuna, hurkotasunaren garapenetako bat den aldetik. Ordura arte, ukipenak eta bizitza sexuala nolabaiteko burruka baten modukoak izaten dira, norberatasuna sendotu behar diren adierazgarri.

Ekintza hezkuntza arloan kokatzen da, tentsio, gatazka eta abarren iturburuak eta arazoak konpontzeko trebeziak era erreal batez haintzat hartzeko ezagutza-gaitasunaren lagungarri.

Garatu nahi den aurreneko trebezia gatazka-gune batez ohartzeari dagokiona da, hots: identitatea, rol sexuala, bikotea, familia, etab. "Intuizioa", "sentipenak", "denok dakite",

<sup>3</sup> Erikson, Erik H.: *Identidad, juventud y crisis*, Madril, Taurus Humanidades, 1989.

<sup>4</sup> Aberasturi, A; Knobel, M.: *La adolescencia normal. Un enfoque psicoanalítico*, Buenos Aires, Paidós, 1975.

“beti egin dena” eta antzerakoak aipatuz eta hausnarketa gogotsu eta arrazional batetik kanpo utzi ohi den guztia.

Akultrazio hau, sarritan, norberaren arlo pribatua ez urratzearen, ez doktrinatzearen, ez manipulatzaren aitzakiz arrazoitzen da. Pertsona orok etika eta erreferente moral batzuk behar dituela ahazten dela<sup>5</sup>.

Ez da, inola ere, doktrinarik eman nahi, hausnarketari eta ezagutzari bide eman baizik. Arazo zabal honi status bat eman, gogoetak egin eta hausnarketa-gai izan daitekeela adierazi, une honetan adituek diotena jakiteko beta izan dezagun, gerora, ezagutzaren beste arlo batzutan bezala, alda badaiteke ere, noski.

Hau guztiau dela eta, hezkuntz ekintza hala ezagutza-mailan nola baloreen arloan burutu nahi da. Balore-esparru hau, M. Walters-<sup>6</sup> jarraituz, helburutzat gizonaren eta emakumearen arteko interakzioa antolatzen duten rol, arau eta funtzioak dituen gizalegearen esparru edo ikuspegitzat har daiteke. Feminismoak ez dio gizonezkoari errua botatzen dagoen gizarte-sistema patriarkalaren kide gisa, aintzitik, gizonezkoek nahiz emakumezkoek esparru sexista batean pentsatzera eta ihardutera daramatzan sozializazio prozesua ulertu eta aldarazi nahi du.

Azkenik, Ekintza hau hezkuntz arloak dituen mugek baldintzaturik dagoela aipatu. Hau da, psikologia eta osasun alderdietara zuzendutako ekintzak alde batera utzi direla.

## 1.2

## HELBURUAK

Helburu nagusia tratu txarraren prebentzioa azpimarratzea da. Ikasleekin izandako esperientziak eta berrikusitako bibliografiak, hiru arlotan sailkatzea eraginkorragoa dela erakutsi digute, hau da:

1. arloa. Tratu txarra bera

- Haren ikusezintasuna haustea.
- Tratu txarraren justifikazioari erasotzea.
- Arazo hau zehazki eta behar bezala ezagutzea

<sup>5</sup> E. oharra: Erreferenterik eza, erreferente bat da berez, etikaren eta moralitasuna ahanzi eta arbuizatzean datzana.

<sup>6</sup> Walters M. eta beste. *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares*, Bartzelona, Paidós, 1991.

## 2. arloa. Bikotea eta familia

- Adituen teoria ezagutzea.
- Gai hauei ere ezagutzaren beste arloei bezalako statusa ematea
- Bi kontzeptuon konplexutasunaz nahiz haiei aurre egiteko behar den errealitatezko zentzuaz jabetzea.

## 3. arloa. Genero-sozializazioa

- Zertan datzan eta berorren ondorioak ezagutzea.
- Dauden eta sexuen arteko harremanak mugatzen dituzten estereotipo eta topikoak go-goan hartzea.

Azkenik, aurreko guztia bilduz, nortasunaren emoziozko, gizarte-mailako eta jokabidezko osagaiei buruzko hausnarketa eta arrazoizko jarrera bultzatzea da helburua, hots, Ana M.<sup>o</sup> Fernándezek<sup>7</sup> gizarte-irudimenezkoa deitzen duenari eragitea. Izen hori gizarte bat erakundetzen duen eta ahalaren arazotik separaezina den esanahi-unibertsoari dagokio; emozioei, sentipenei eta borondateari dagokiena arrazoiari baino gehiago; berorren erritualek bultzatzen baitituzte eraso- beldur-, maitasun- eta sedukzio-jokaerak onartuko dituzten moldeak.

## 1.3

## EDUKINAK

### 1.3.1

### KONTZEPTUZKOAK

- Zer da tratu txarra, motak, zergatiak, nola agertzen den, zer egin tratu txarraren aurrean egonez gero.
- Tratu txarren protagonisten perfilak. Indarkeriaren zikloa.
- Zertan datzan bikote-harremana. Bilakaera-zikloa.
- Gatazka-gunea eta aurre egiteko erak.
- Familia osasuntsua eta indarrari emanikoaren ezaugarriak.
- Zer den genero-sozializazioa eta tratu txarrean duen eragina.
- Zer den eta zer-nolako garrantzia duen: menpekotasuna, maitasuna versus oldakeria, norberaren erantzukizuna, autokontzientzia eta jokabide heldu gabekoa/heldua.

<sup>7</sup> Fernández, Ana M.<sup>o</sup>: *Las mujeres en la imaginación colectiva* delakoan, op. cit.

### 1.3.2

### PROZEDURAZKOAK

- Gaiari buruzko informazio-bilketa: tratu txarra, familia, bikotea eta genero-sozializazioa-ri buruzkoa.
- Estatistika eta datuen erabilera.
- Hainbat testu, artikulua eta mezuren irakurketa, iturri ezberdinak erabiliz.
- Talde txiki eta handietan eginiko lan eraginkorra.
- Inkestak, galdeketa eta elkarrizketarako gidaliburuak egin eta erabili.
- Eztabaida eta agerraldietan aktiboki esku hartu.
- Egoerak aztertu eta tratu txarrerako arriskugarriak izan litezkeenak igarri.
- Bikoteari, familiari, beste sexuko pertsonen nahiz norberaren sexukoei buruzko ideie-tan/sineskeretan dautzan topikoei antzeman.
- Norberaren erabateko garapena eragotziz, bizitzan eragina duten genero-estereotipoak agerian jarri.

### 1.3.3

### JARRERAZKOAK

- Tratu txarraren ikustezintasunaz jabetu.
  - Era guztietako tratu txarrak gaitzetsi.
  - Ikasgelan diharduten pertsonen sentimendu eta pentsakerak begirunez entzuteko jarrera erdietsi.
  - Gatazkei aurre egin beharraz jabeturik egon. Mutilek ebitaziozko jarrerak ez garatzeko eta neskek, agerian jarri, kezka ez bihurtzeko.
  - Bikoteko harremanetan bakoitzaren erantzukizuna onartzea, gizonezkoek batez ere. Tra-tu txarren egoerei bion erantzukizunez aurre egin behar zaie, banandurik eta adostasunik gabe aurre egin arren.
  - Benetakotasunari jarraitu, sentipenak adieraziz eta haien arabera jokatz.
  - Arriskua onartu norbere burua balioztatze eta burujabetasuna lortzeko bide bakar gisa, neskentzat batik bat.
  - Beren buruenganako konfiantza sortarazi, mutientzako hunkipen-arriskua eta neskentza-ko erdiespen-arriskua dakartzaten arazoei aurre eginez.
- Norberaren burujabetasuna sortarazi, ekonomi mailan, gizarte-harremantan, eta identitate-sentipena erdiespenaren bidez.

• Haien gaitasunak garatu eta beren burujabetasuna eta identitatea eta genero estereotipoetatik aparte loturak ezartzeko gaitasuna molda ditzaten jarrera eta baloreak bereganatu. Proposatu diren helburuak eta edukinak gehiegizkoak direla pentsa badaiteke ere, tratatu txarrari eraginkortasunez aurrea hartuko bazaio, bizitzari eta bikoteko harremanei aurre egiteko hainbat estrategia, jarrera eta balore berezi eta bakoitzarenak eduki beharra dago. Horregatik, helburuak hiru mailatan planteatzen dira:

- Lehenengoa, epe laburrera, tratatu txarraren ikusezintasunaz jabetzean eta hura arbuiazteko jarrera sortaraztean datza.
- Bigarrena, epe ertainera, tratatu txarrak eragindako arloak ezagutzea da.
- Eta hirugarrena, epe luzera, aurrekoen ondoriozko jarrera-aldaketa, orain hasi besterik ez den eta pertsona bakoitzak bizitzan zehar garatuko duen prozesu baten barnean.

## 1.4

## MODULU DIDAKTIKOA

Lanerako eredu izan litezkeenak erakutsi nahian, Portugaleteko Ballonti deritzan Batxilergo Institutuko 2. mailako BBBko ikasleekin eginiko lana azalduko da.

Hasteko, irakasleen eginkizunari buruzko ohar garrantzitsu bat egin beharra dago, hots, hura entzutean, ikasleen interesak eta zalantzak errespetatzean, ezkutaturik gera daitezkeen alderdi garrantzitsuak azalaraztean eta ikaslearen lana erraztean datzala. Irakaste hutsa baino garrantzitsuagoa da ikasleek beraien aurkitu, hausnartu, heldu eta gara ditzatela bai kontzeptuzko helburu eta edukinak eta bai jarrerazkoak, azken hauek batik bat.

Oso garrantzitsua da, halaber, banakako lana taldekakoarekin txandakatzea. Ahal izan den neurrian, hiru fasetan ekin zaio lanari: 1) banaka 10 minututan zehar, 2) talde txikietan (4-5 pertsona) 20/30 minututan zehar eta, azkenik, talde handian, klase osoa, 20/30 minututan.

Ekintzak ikasleek iradoki dituzte batzutan eta irakasleak bestetan, baina beti ere, klaseko neskek eta mutilak onetsitakoak izan dira. Horregatik aipatzen dira adibide gisa eta egoikiagoak izan daitezkeen edo klaseko taldeak proposaturiko beste batzuk erabili daitezke haien ordeaz, beti ere, helburuak eta edukinak moduluarenekin koherenteak izan daitezenean, noski. Hau guztiau kontutan hartzea garrantzizkoa da, zeren ikuspegi psikologikotik ezin baitaiteke edukin eta jarrera hauekin lan egin, baldin eta borondatetasunean, ekime-

---

nean edo proposatzen diren eginkizunak zalantzarik gabe onartzean isladatzen den inplikazio-maila nabarmena ez badago.

Proposaturiko iharduerak, zenbait kasutan, hainbat saiotan gauzatzen dira, banakako lanaren ondoren talde txikien arteko eztabaida egin, ondorioak txarteletan bildu eta talde handian azaldu eta eztabaidatzeko denbora ematen dela. Horretarako behar den denbora talde edo klase bakoitzaren ezaugarrien arabera zehaztuko da, haien erritmoari jarraitu beharra baitago.

Zenbaitetan, ikasleek proposaturiko ekintza-kopurua eta berauek epe jakin batean burutu beharra direla medio, eginkizunak taldeka banandu dira eta, horrela, batzuek inkestak nahiz elkarrizketak moldatu eta aplikatzen dituzten bitartean, beste batzuek informazioa bildu, irakurri eta sintetizatu egiten dute. Horren ondorioz, gainontzekoei prozesua eta produktua azaldu behar izan zaie eta, gainera, taldeen lanaren kopiak egin behar izan dira elkartrukezko eta, azkenean, klase osoak material berbera edukitzeko. Talde batek lanen bat burututakotzat jo duen guztietan: artikulua baten irakurketa, inkesta aplikatu, tabulatu eta ondorioak ateratzea, elkarrizketetik ondorioak ateratzea, etab., klaseko gainontzekoei azaldu zaie eta eztabaida bat sortu da. Horretarako, talde txikiak txartel batean agertzen ditu bere ondorioak eta hura ikusgai geratzen da klasean.

Ikasleen banakako lana azaltzerakoan, testuen irakurketa eta sintesia, kontzeptuen berrikuspena eta gizarte-ingurunearen analisia, norberaren sentimenduei, pentsamenduei eta jokatutakoak begiratzea, inkestaren erabilera, dossiera osotzea, eztabaidarako gai ilun eta zalantzarazkoak planteatzea, etab. aipatu behar dira.

Talde txikietan, berriz, aurretiko kontzeptuak mugatu, inkestak moldatu, tabulatu, ondorioak atera, elkarrizketa ezberdinetarako gidioak prestatu, eztabaidatu eta akordioetara heldu, eta abarrak egin dira. Horrez gainera, klaseko gainontzekoei egin diren lanak azaldu zaizkie eta laburpenak eta ondorioak taiatu dira.

Talde handian, berriz, amankomuneko azalpenak egin, klaseko akordioak hartu, eztabaidatu, erakusketak egin eta ondorioak atera dira, besteak beste.

Modulu Didaktikoaren garapenean jarraitu beharreko prozesua honetan datza:

- Ikasleen aurretiko kontzeptuak ezarri ondoren, egin beharreko lana mugatu behar da:
  - Zer egin nahi den.
  - Lan metodologia, irakasleen eginkizuna eta ikasleena. Zer egin behar duen bakoitzak.
  - Ebaluazioa.

---

Puntu hau, notak ere tartean izanik, ikasleen kezka sortarazten du eta, beraz, oso argi utzi behar da: zer, nola, noiz, zeren bidez eta zeinek ebaluatuko duen. Argi eta garbi eta zehatz-mehatz mugatu ezik, ikasleen elkarlana eta eskuhartzea eragotz ditzakeen oztopoa izan daiteke.

- Iturri ezberdinetako informazioa bildu: Gizarte-inguruneen iritziak, gizarte-zerbitzuetan dihardutenen informazioa, Ertzaintzarena, Udaltzaingoarena, azterketa jakinetan (bikotea, familia) dihardutenena. Idatzizko iturriak: prentsa, aldizkariak, artikulua, liburuetako kapituluak, "graffiti"-ak, komikiak, disken karatula eta hainbat mezu.
- Erakusketak: Banakako lanaren edo talde txikietan eginikoaren laburpenak eta ondorioak.
- Azalpen amankomunak. Eztabaidak.
- Irakasleak nahiz gaian aditua den norbaitek eginiko azken azalpena.

Metodologiari dagokionez, garrantzitsua da ikasgela bakoitzeko arduradun bat izatea, epe baterakoa, saio bakoitzeko lanak edo taldeen ekarpenak bildu eta hurrengo saion bakoitzari kopia bana emateaz arduratuko dena.

Azkenean, saio bakoitzaren laburpena eta landutako materialak sailkaturik edukitzea ebaluaziorako irispide izan daiteke. Horrela, gerora erabiltzeko material egituratua edukiko dute.

Azken emaitza, berriz, jarraian adierazten direnak bilduko dituen dossierra izan daiteke:

- Saio bakoitzaren kontakizuna, talde txikiek eginiko txartelen edukina barne.
- Irakurketen laburpenak.
- Inkesten eta galdeketen emaitzak, ondorioak.
- Elkarrizketen bidez bildutako informazioa.
- Azken azalpenaren laburpena.
- Ondorioak.

Moduluak lau lan-atalez osatzen da:

1. Tratu txarra.
2. Genero-sozializazioa.
3. Bikotea, familia, gatazka.
4. Proiektu pertsonala. Benetako erreferenteak versus erreferente idealak.

Atal bakoitzarekin helburuen, edukinen zati bat erdietsi nahi da eta moduluan proposaturiko jarrera-aldaketaarako prozesuari ekitea.

## HELBURUAK

- Tratu txarraren ikusezintasuna ebaztea.
- Tratu txarra delako arazoaren kontzientzia hartzea.
- Zergatik gertatzen den jakitea.
- Ikasleak arazo honetaz sentsibilizatzea.
- Nola agertzen den eta indarkeriaren zikloari buruzko argibideak ematea.
- Protagonisten ezaugarriak ezagutzea, egoera arriskugarriak antzematen laguntzeko.
- Tratu txarreko egoera bat aldarazteko eta indarkeriaren zikloa hausteko asmatu estrategiak asmatzea.
- Bizitzaren joanaren erantzunkizuna onartzea bakoitzari dagokion neurrian, norberak hautaturiko bidea okerra izan dela baieztatzen bada, horregatik konponezina izango ez dela.
- Ikasleei tratu txarren prebentziorako estrategia pertsonalak sorrarazteko bideak eskaintzea.
- Ikasleengan norberaren gaitasunak garatzeko ahalmena suspertzea eta generoak baldintzapetu gabe, burujabetasuna eta nortasuna moldatuko dituzten jarrera eta baloreak bereganatzera bultzatzea.

## EDUKINAK

## KONTZEPTUZKOAK

- Tratu txarraren kontzeptualizazioa.
- Tratu txarrei buruzko datuak.
- Tratu txarren episodioen garapena.
- Egoera legala, juridikoa eta poliziala.
- Gertaeraren pertzepzioa eta ezagupena gizarte-ingurunean.
- Tratu txarra ematen duen gizonezkoaren eta haiek jasaten dituen emakumezkoaren perfila, tratu txarren emale edo jasale bilakatzeko ahalbidea sortaraz dezaketen "arrisku-ezaugarriak" batez ere.

- Tratu txarren lekuko izateak seme-alabengan duen eragina ezagutzea.
- Nola egin aurre tratu txarreko egoera bati.
- Tratu txarraren prebentziorako estrategia pertsonalak.

#### PROZEDURAZKOAK

- Iturri ezberdinetako informazioa biltzea: testuak, prentsa, aldizkariak eta bere gizarte-in-guruneke iritziak eta informazioa.
- Errealitatea kritikoki aztertzea. Tratu txarren kasuak.
- Testuak, agiriak, albisteak, "graffiti"-ak, txartelak, diska-azalak, etab. aztertzea.
- Informazioa biltzeko tresnaren bat, galdeketa edo inkesta, moldatzea (erabili, tabulatu eta ondorioak atera).
- Tratu txarra eta beronen prebentzioari buruzko txostenak, laburpenak nahiz erakusketak moldatu.
- Norberari begiratzeko ariketak egitea: sentimenduen eta jokaeren azterketa.
- Indarkeriazko sentimenduak identifikatzea. Nesken kasuan, kezkek estaltzen dituztenak ikusteko gai izatea.
- Menpekotasuna eta segurtasuna gauza bera omen direlako egoerak identifikatzea.
- Indarkeriak dihardutenean zernolako pentsamenduak eta sentimenduak dauzkaten identi-fikatzea.
- Talde txiki eta handietan lan egitea.
- Eztabaidetan parte hartzea.
- Topikoak, nolabaiteko egiak, zehazgabekoak, aurriritziak... aztertu eta detektatzea.
- Aurriritziek eta topikoek zenbaterainoko eragina duten gure jokamolde eta pentsakeretan ikustea bakoitzarengan eta besteengan.
- Geroko jokabidean eragina izango duten zenbait ondorio teoriko eta praktikoa ateratzea.

#### JARRERAZKOAK

- Era guztietako tratu txarrak errefusatzeko.
- Tratu txarren ikusezintazunaren kontzientzia hartzea.

Honela, gertatzen den zerbait dela, kausa batzuk dituela eta norahiri gerta dakiokela ja-kin deatzatela nahi da. Lotsaren hesia hautsi behar dela. Gertatuz gero, erreferente batzuk eta ezagupenak ere izan ditzatela. Oker bat bezala bizi izan ahal deatzatela, baina tratu txarren eraginpean daudenak gaur egun jasaten duten gizarte-estigmatizazio edo bazterketan ero-ri gabe.

- Gatazkei aurre egin behar diren kontzientzia hartzea.

Gatazka tratu txarraren alternatiba gisa galerazteak eusten dio tratu txarrari, ezinezkoa baita gatazkarik ez izatea eta hertsiki hierarkizaturiko egoeren arbitraiak (agindu eta esana egin) baino ez du eragozten gatazka ager dadin eta, horrenbestez, tratu txarra ahalbidetzen dute. Behin eta berriz saiatuz izandako esperientzien bidez ikasten da gatazkek konpontzen.

- Sentitzen denaren arabera adieraztea eta ihardutearen benetakotasuna baloratzea.

Sentimenduen adierazpena eta horren zailtasuna, gizonezkoengan batez ere, oztopo gisa azaltzen da.

- Arriskuaz aurre egitearen balioa sartzea.

Norberarenganako estimazioa erdiesteko bide bakarra da. Burujabetasuna eta independentzia lortuko badira, norberak saiatu beharra dauka.

- Solasaldia balioztatzea, gatazkek konpontzeko bide arrazional hoberena bezala, beste bide batzuk ere sartuz, hala nola, geroko uztea, une egokiagoan ekiteko eta abar.
- Norberaren erantzunkizuna onartzea bikote-harremanetan, berauen erantzunkizuna bieiei baitagokie.

Tratu txar iraunkorrak gertatzen direnean, bion erantzunkizunaz aurre egin behar zaie, banandurik aurre egin arren.

## IHARDUERAK

- Zer dakigu tratu txarraz.
- Zer jakin nahiko genuke gai honetaz eta nola antolatuko gara horretarako.
- Hurkoen usteak eta iritziak (gurasoek, irakasleek eta ikasleek) ezagutzeko balio dezan inkesta bat moldatzea eta iritzi horietan, egotekotan, okerrak eta topikoak detektatzea.
- Gaiarekin lotura berezia duten zenbait pertsonari egiteko elkarrizketa bat prestatzea.
- Ikasleek planteaturiko galderei erantzuteko idatzizko informazioa bilatzea.

Haiek ekar dezaketenaz gainera, 2. ataleko puntuen fotokopiak.

- Iharduketari amaiera emango dion irakaslearen edo adituren baten azalpena eta erantzunik gabe gera daitezkeen galderak egiteko aukera.
- Tratu txarraren prebentziorako estrategia pertsonalak bilatzea. Banakako lana, talde txikikoa eta proposamen guztien zerrenda talde handian.

## MATERIALAK

- Prentsako albisteak, artikulak, ikasleak ekarritako bilbiografia.
- "Tratu txarraren egungo egoera" deritzan 2.1. puntuaren, "Zer den tratu txarra" izenburuko 2.2.1. puntuaren eta "Ezkontidearekiko indarkeria" deritzan 2.2.2. puntuaren fotokopiak.
- Ikasleek eginiko inkesta/galdeketaen fotokopiak.
- Elkarriketarako gidoiarena ere bai.
- Txarteletarako paper handiak.

## EBALUAZIOA

- Aurrikusitako helburuen erdiespen-maila: zergatien azterketa:  
Programazioa, garapena, metodologia, iharduerak, ikasleak, irakasleak.
- Ikasleen autoebaluazioa.
- Irakasleen autoebaluazioa.
- Parte hartzaileen eta atalaren garapenaren koebaluazioa.

### 1.4.2

## 2. ATALA. GENERO-SOZIALIZAZIOA

## HELBURUAK

- Sexu ezberdineko pertsonen arteko harremanetan eta errealitatearen kontzeptuan dauztzan genero-estereotipoak azalaraztea.
  - Estereotipook egon badaudela gogoan izatea eta bikotearen harremanetan nola diharduten jakitea.
- Hauxe da, hain zuzen ere, jarrera-aldaketarako lehenengo baldintza.
- Ezagutza, afektibitate eta jokabide-mailen arteko komunikazio intrapsikikoa sendotzea.
- Pertsona bakoitzarengan sentitzen duenaren, pentsatzen duenaren eta egiten duenaren arteko erlazioa nola zertzen den aztertu eta horretaz hausnartzea.

- Arrazionaltasunaren eta afektibitatearen arteko disoziazioa ekiditea, lehenengoa erabiliz bigarrenari eragiteko eta alderantziz.

Sentimenduak eta pentsamenduak, batzutan, bide ezberdinetan barrena dabilta; batari bestearen bitartez eragiten ahalegintzea, jokabideari koherentzia handiagoa emanez.

- Gizonezkoaren eta emakumezkoaren artean dauden benetako ezberdintasunak agerian jartzea.
- Generoaren arabera ezartzen diren menpekotasuneko erlazioen kontzientzia hartzea.
- Tratu txarra ahalbidetzen duten rol sexualen gogordura desaktibatzea.
- Nesken biktimismoa ekiditea.
- Topikoen errealitatearen funtzio maskaratzailaren kontzientzia hartzea.

## EDUKINAK

### KONTZEPTUZKOAK

- Sexuaren araberako sozializazio-prozesu ezberdina.
- Menpekotasun-kontzeptua: zer den eta nola diharduen.
- Estereotiporik arruntenak.
- Familiaren garrantzia genero-sozializazioan.
- Alternatibak.

### PROZEDURAZKOAK

- Iturri ezberdinetatik informazio-bilketa: testuak, prentsa, aldizkariak eta bere gizarte-ingurune iritziak.
- Testuak, agiriak, albisteak, "graffiti"-ak, txartelak, diska-azalak, etab. aztertzea, berorietan aurkitutako estereotipoak adieraziz.
- Gaiari buruzko txostenak, laburpenak nahiz erakusketak moldatzea.
- Norberari begiratzeko ariketak egitea: sentimenduen eta jokaeren azterketa.
- Talde txiki eta handietan lan egitea.
- Eztabaidetan parte hartzea.
- Aurriritziek eta topikoek zenbaterainoko eragina duten gure jokamolde eta pentsakeretan ikustea bakoitzarengan eta besteengan.
- Geroko jokabidean eragina izango duten zenbait ondorio teoriko eta praktiko ateratzea.

## JARRERAZKOAK

Norberaren "curriculum ezkutua"ren kontzientzia hartu eta berorrekiko jarrera kritikoa garatzea.

- Norberaren jokabidean estereotipoak deuseztatzeko erabakiak hartzea.
- Sexu ezberdineko pertsonen arteko berdintasuna praktikan jartzeari bideari ekitea.
- Kultura femeninoa maskulinoa adina baliostea.
- Gizonezkoek, bakoitzaren intimitateaz eta hunkipen mailako beharrez arduratzea.
- Bai mutilei, bai neskei egungo egoerak dakartzkien desabantailen kontzientzia hartzea.
- Neskengan burujabetasunezko jarrerak eta mutilengan loturazkoak garatzea.

## IHARDUERAK

- Ikasgelako pertsona bakoitzak bere burua deskribatzen du, jarraiko galderei ahalik eta zintzoen erantzunez:.

Nor naiz?, zer naiz?, nolakoa naiz?, zer daukat?, zer sentitzen dut?, zer pentsatzen dut? Eginiko deskripzioa egiten duenarentzat baino ez da, beste inork ere ez du hura eskuratzerik izango.

Beste alde batetik, ikasgelako zerrendatik bi pertsona hautatzen dira, sexu bakoitzeko bana, eta haien deskribapena egiten da gidoi berberari jarraituz, bi foliotan. Hau da, ikasgelako zerrenda pasatuz doa eta hautapena egin ahala hautatuak seinaltatu egiten dira. Bakoitza bi pertsonen, sexu bakoitzeko bana, hautatuko dutela ziurtatzen da.

Behin egindakoan, pertsona bakoitzari bi deskripzioak ematen zaizkio. Bakoitzak berak eginiko deskripzioa eta eman zaizkion biak erkatzen ditu. Antzekotasunak eta ezberdintasunak bilatzen ditu. Adostasunak eta desadostasunak idazten ditu eta berak ezagutzen ez dituen ezaugarriak edo besteek gaizki ulertuak ote diren deliberatzeko hausnarketari ekiten dio.

Gero talde handiaren aurreko azalpena dator. Bakoitzak nahi dituen oharrak egiten ditu. Mutilak parte hartzera bultzatzea garrantzizkoa da, zeren, eskuarki, beren buruaz eta batez ere beren sentimenduez hitz egiteari uko egiten baitiote.

- Nola ikusten dituzten beste sexukoak. Orohar, mutilek neskei buruz eta neskek mutilei buruz hitz egiten dute talde txikietan. Iritziak idatzi eta elkartrukatu. Talde txikietan lan egin, adostasunak eta desadostasunak zenbatu eta justifikatu. Estereotipoak detektatu. Txarteletan azaldu. Denon aurreko azalpena eta ondorioak atera talde handian.

- Normalean esaten ez dena agerrazteko bideak: Zer da estereotipo bat? Nola sortzen da? Zer da genero-sozializazioa? Gai hauei buruzko agirien irakurketa, sintesia eta ondorioak talde txikian. Denon aurreko azalpena, talde txikien ekarpenak bilduz, eta eztabaida.
- Toki ezberdinetan, hau da, albiste, komiki, "graffiti"-ak, txartel, diska-azal, elkarriketa, filme eta abarretan antzemandako genero-estereotipoen zerrenda egin. Estereotipoen eta berauek txertatzen dituzten baloreen azterketa.
- Genero-sozializazioaren alternatibak familiaren aldetik. Zer ikasi dute familietan neskek eta mutilek neska edo mutil izateagatik? Zer egin beharko litzateke alderdi horretatik?
- Nola baliatu bestearen beharra eta menpekotasuna? Burujabetasunaren eta loturaren mugak. Honi buruzko argibideak bildu: irakurketak eta galdeketa baten moldapena eta erabilerak. Azterketa eta ondorioak.
- Bakoitzaren bizitzaren zein arlotan sentitzen diren burujabe edo menpeko. Banakako lana, talde txikikoa eta azkenean eztabaida.
- Mutilen eta nesken artean antzematen dituzten benetako ezberdintasunen zerrenda egin, elkarbizitza eta harreman aberasgarriak alde onak adieraziz.
- Diren sexutakoak izateagatik sentitzen dituzten ezberdintasunei buruz idatzi. Zer dute gogoko, nola sentitzen dira?
- Iharduketari amaiera emango dion irakaslearen edo adituren baten azalpena eta erantzunik gabe gera daitezkeen galderak egiteko aukera.
- Estereotipoak deuseztatzeko estrategia pertsonalak bilatu. Banakako lana, talde txikikoa eta proposamen guztien zerrenda talde handian.

## MATERIALAK

- "Ezkontidearekiko tratua txarra ahalbidetzen duten genero-baloreak" izenburuko 2.5 puntuaren eta "Aurrekin patriarkalak" deritzan 2.2. puntuaren atal ezberdinen fotokopiak.
- Ikasleek ekarritako prentsako albisteak, artikulak, bibliografia, komiki eta abarrak.
- Paper handiak txarteletarako.
- Klaseko zerrenda.
- Moldaturiko elkarriketa-gidoiaren fotokopiak.
- Folioak.

## EBALUAZIOA

- Aurrikusitako helburuen erdiespen-maila: Zergatien azterketa: Programazioa, garapena, metodologia, iharduerak, ikasleak, irakasleak.
- Ikasleen autoebaluazioa.
- Irakasleen autoebaluazioa.
- Parte hartzaileen eta atalaren garapenaren koebaluazioa.

### 1.4.3

## 3. ATALA. BIKOTEA ETA GATAZKA

### HELBURUAK

- Bikoteari buruzko topikoak antzematea.
- Bikotea zer den eta bere egituraren osagaiak ezagutzea.
- Gatazka giza-harreman orori datxekiola gogoan izatea.
- Bikotearen hazkunde-prozesuan gatazkak duen garrantzia ezagutzea.
- Gatazkei aurre egiteko norberak erabilitako mekanismoak eta beste pertsona batzuk erabiltakoak identifikatzea.
- Bikotea prozesu gisa hartuz gogoeta egitea.

Maitementetik elkarren arteko bizitza-proiektura, bion hazkundera ekarri beharko lukeena. Nolabait, bizitza hobea izateko behar den ezagupide berritik abiatuz.

- Ikasleei giza-harremanen ikuspegi errealista erakustea, haien bilakaera-maila kontutan izanik.

### EDUKINAK

#### KONTZEPTUZKOAK

- Bikoteari buruzko topikorik arruntenak ezagutzea.
- Bikoteko harreman baten definizioa. Parametroak.
- Bikotearen egokitze-prozesua: transakzioak.
- Bikotearen bilakaera-zikloa.
- Mugatua izatekotan, gatazkak duen eragin egituratzailea, hazkunde-sortzailea eta komunikaziozkoa ezagutzea.

## PROZEDURAZKOAK

- Iturri ezberdinetatik informazio-bilketa: testuak, prentsa, aldizkariak eta bere gizarte-inguruneko iritziak.
- Errealitatea kritikoki aztertzea. Estereotipo eta topikorik arruntenen azterketa.
- Testuak, agiriak, albisteak, "graffiti"-ak, txartelak, diska-azalak, etab. aztertzea, berorietan aurkitutako estereotipoak adieraziz.
- Gaiari buruzko txostenak, laburpenak nahiz erakusketak moldatzea.
- Norberari begiratzeko ariketak egitea: sentimenduen eta jokaeren azterketa.
- Talde txiki eta handietan lan egitea.
- Eztabaidetan parte hartzea.
- Topikoak, nolabaiteko egiak, zehazgabekoak, aurriritziak... aztertu eta detektatzea.
- Estereotipoek zenbaterainoko eragina duten gure harreman, jokamolde eta pentsakeretan ikustea bakoitzarengan eta besteengan.
- Geroko jokabidean eragina izango duten zenbait ondorio teoriko eta praktikoa ateratzea.
- Elkarrizketarako gidoiaren tailuketa. Hura egin, bildutako informazioa aztertu eta ondorioak ateratzea.

## JARRERAZKOAK

- Ikasgelakoan aldetik sentimenduak eta pentsamenduak entzuteko begirunea lortzea.
- Gatazkei aurre egiterakoan erabilitako mekanismoen arteko ezberdintasunak ulertzeko malgutasuna faboratzea.
- Norberaren eta bikotearen hazkunderako beharrezkoak diren aldetik, gatazkei dagokien balioa aitortzea.
- Gatazken aurreko norberaren mekanismoen kontzientzia hartzea, baliogarriak gertatzen zaizkien ala ez eta baliogarritasunaren zehazketa.
- Prozesu iraunkorra denez gero, inoiz ere bukatu ez dagoen harremanari aurre egitean, errealitatearen zentzua areagotzea.
- Bikotekide bakoitzaren nortasuna balioetsi eta transakzioak egiterakoan kontutan hartzea, haiek parekidetasunaren arabera gauza daitezen.

- Bikotea zer den mugatu nahian komunikabide ezberdinetan irakurri edo entzuten diren iritzien zerrenda egin.
    - Iritzioi antzemandako bikoteari buruzko topikoak aurkitu.
    - Nori onuratsen edo kalte egiten diote topikoak dauzkan ideiak.
    - Errealitatearen zein alde erakusten duen topikoak, zein ezkututzen duen zergatik.
  - "Gatazka"ren definizioa idatzi.
    - Gatazken kausak.
    - Hitz honen sinonimoen zerrenda egin.
  - Bakoitzaren gatazken zerrenda.
    - Norberarekin, familiarekin, adiskideekin, ikaskideekin edo irakasleekin.
    - Zer egiten dut bakoitzaren aurrean.
    - Banakako lanaren ostean, gatazka amankomunen eta berorien aurrean gehien erabilitako mekanismoen zerrenda egingo dute talde txikian. Horretarako, une horretan, gatazkei aurre egiteko eren zerrenda emango zaio talde bakoitzari. Talde handian, klaseko laburpena egin eta ondorioak aterako dira.
  - Pertsona bakoitzak ezaguna zaion gatazkaren bat idazten du, ahal bada kanpoko norbaitena.
    - Talde txikian, taldekide batek idatzitako bat aukeratzen da.
    - Klasekoen aurrean antzezten da.
    - Azkenik, hartan iharduniko pertsonen erabilitako mekanismoak identifikatzeko ahalegina egiten da. Garrantzitsua da beraien hitzez egitea, hitz teknikoak erabiltzen saiatu gabe. Azterketa hau antzezipenaren ostean edo, bideoan hartuz gero, gerora ere egin daiteke.
  - Iturri ezberdinetako materiala bildu eta bikoteari buruzko lan monografikoa egin: definizioa, parametroak eta bilakaera.
  - Elkarbizitza ahalbidetzeko zernolako akordioetara, esplizituak eta inplizituak, heldu ziren adieraz ditzaten zenbait bikote elkarriketatatu. Zeintzu izan diren aurre egin behar izan dieten edo egiten dieten gatazkek eta nola aurre egiten dieten. Norberaren hazkundea bestearenarekin batera gertatzen den ala ez eta zergatik, etab.
- Ikasleek elkarriketarako gidoia moldatu, hura egin, bildutako informazioa aztertu eta ondorioak ateratzen dituzte.
- Ustezko bikote bati iradoki lizkioken transakzioei buruzko idazlana, haiek arrazoituz.

- Amaiera emateko balio izango duen irakaslearen edo adituren baten azalpena, laburpena, eta argitu beharreko alderdiren baten zehaketa.

## **MATERIALAK**

- "Bikotea eta gatazka" izenburuko 2.4 atal ezberdinen fotokopiak.
- Ikasleek ekarritako prentsako albisteak, artikulak, bibliografia, komiki eta abarrak.
- Paper handiak txarteletarako.
- Ikusentzunezko materiala.

## **EBALUAZIOA**

- Aurrikusitako helburuen erdiespen-maila: Zergatien azterketa: Programazioa, garapena, metodologia, iharduerak, ikasleak, irakasleak.
- Ikasleen autoebaluazioa.
- Irakasleen autoebaluazioa.
- Parte hartzaileen eta atalaren garapenaren koebaluazioa.

### **1.4.4**

## **4. ATALA. NORBERAREN PROIEKTUA: BENETAKO IGURIKAPENAK IGURIKAPEN IDEALEN AURREAN**

## **HELBURUAK**

- Zentzu errealista bat faboratzea familiari eta etorkizunari begira.
- Proiektu errealista eta bideragarriak eduki beharra azalaraztea.
- Norberaren aukerak balioestea konbentzionalismoa alde batera utzita.
- Bizitza prozesu iraunkor eta amaigabetzat hartzea.
- Pertsona bakoitzak bere bizitzarenganako duen erantzunkizuna azaltzea.
- Burujabetasunaren beharra, bai maitasunezkoa eta bai ekonomikoa, agerian jartzea.

## KONTZEPTUZKOAK

- “Mari Errauskin” konplexua ezagutu, ezkontzaren ikuspegi topikoa, hierarkikoa eta menpekotasunezkoaren laburpena baita.
- Indarkeriaren eragina familiarengan.
- Familia osasuntsuaren eta indarkeriari emanaren ezaugarriak.

## PROZEDURAZKOAK

- Iturri ezberdinetatik informazio-bilketa: testuak, prentsa, aldizkariak eta bere gizarte-ingurune iritziak.
- Errealitatea kritikoki aztertzea. Inguruko familiaren bat aztergai.
- Gaiari buruzko txostenak, laburpenak nahiz erakusketak moldatzea.
- Norberari begiratzeko ariketak egitea: sentimenduen eta jokaeren azterketa.
- Talde txiki eta handietan lan egitea.
- Eztabaidetan parte hartzea.
- Geroko jokabidean eragina izango duten zenbait ondorio teoriko eta praktikoa ateratzea.
- Familiak sailkatzeko taula bat taiutzea. Berori erabiliz familia bat aztertu eta ondorioak ateratzea.

## JARRERAZKOAK

- Gizonezkoengan, euren bizitza afektiboarekiko erantzunkizuna bultzatzea eta emakumezkoengan burujabetasun afektiboa eta ekonomikoa.
- Etorkizunari begira eta familiari dagokionez, batez ere, jarrera errealista bat faboratzea.
- Arriskua balioestea burujabetasuna lortzeko bide bakar gisa.
- Norberaren bizitzaren aurrean jarrera aktiboak edo pasiboak eta menpekoak agertaraztea.
- Neskengan diruaren aurreko jarrera identifikatzea, litekeen “Mari Errauskin Konplexua”<sup>8</sup> bere kostuekin.
- Emakumezkoek zeri atxikitzen dioten beren identitatea eta lorpen afektiboak soilik atxikitzen ote dioten agertaraztea.

<sup>8</sup> E. oharra: Colette Dowlingek erabilitako termino hau ekonomikoki eta bere gizarte statuserako bere bikotekidearen menpe egotearen jarrera femeninoari dagokio. Mari Errauskin Printzearen menpe zegoen bezala. Ez ditu burujabetasunaren beharrezkoak edo berorrek dakartzan buruhausteak planteatzen. Gizonezkoak ordea bai, beti. Ekonomikoki gizonezkoaren menpe egotearen jarrera ez ezik, ezkontza status sozial eta ekonomiko eta bizimodu jakinaren sinonimoa dela sinistek sortarazten duen jarrera da.

- Mutilengan eginkizunak betetzeari eta ez lorpen afektiboei loturiko sendotze pertsonalerako jarrera identifikatzea.

## IHARDUERAK

- Familia zer den definitu.

Sinonimoen zerrenda bat egin. Hasiera batean, pertsona bakoitza bere iritzia idazten du eta gero, talde txikian, idatzitakoaz hausnartzen da. Ondoren, 2.3.2. eta 2.3.3. atalaren 2.3. puntuaren fotokopiak ematen zaizkio talde bakoitzari. Gaiari buruzko eztabaida batekin amaitzen da.

- Bere familiaren deskripzioa.

Nola sentitzen da hartan?

Zein alderdi du gogoko eta zein ez?

Arrazoitu.

Alternatibak.

- Nola bizi eta harremanak edukitzeko gerorako proiektuak deskribatu.

Pertsona bakoitzak, nahi badu, bere aukera pentsatu, idatzi eta argudiatzen du. Garrantzizkoa da ezberdintasunak jaso eta ikasleei itzultzea balorazio diskriminatzailearik gabe.

- Zer egiten ari naizen edo zer egingo dudan nire proiektua egiazkoa bilakatzuz joan dadin. Nola planteatzen diot neure buruari askatasun afektiboa eta ekonomikoa.

- Familiaren funtzio eta ezaugarrien araberrako taula bat egin eta, ezagutzen dituzten zenbait familia aztertuz, berorien sailkapena egin.

- Pertsona bakoitzak bere burua 20 urte barru nola ikusten duen idazten du, burujabetasun afektiboa eta ekonomikoa, bizimodua, beronen oinarritzko baloreak, zorientsuak diren ala ez eta antzerako alderdiak deskribatuz. Iharduera honetarako zailtasunik balego, adierazi. Nolanahi ere, ez jarri ikasleak egoera zailetan, eta isiluneak errespetatu.

- Aurreko ariketaren antzezpena. Talde txiki bakoitzak "geroko" kasuetako bat aukeratu eta antzeztu egiten du. Azterketa, orain, besteek egin behar dute, nola ikusten duten pertsonaiairengan burujabetasun afektiboa eta ekonomikoa, bere baloreak eta zorientsua den ala ez adieraziz. Hau, antzezpen bakoitza amaitutakoan egin daiteke edo, bideoan grabatu badira, geroago.

- 
- Amaiera emateko balio izango duen irakaslearen edo adituren baten azalpena, laburpena, eta argitu beharreko alderdiren baten zehaketa.

## **MATERIALAK**

- "Familia eta etxeko indarkeria" deritzan 2.3 puntuaren atal ezberdinen fotokopiak.
- Ikasleek ekarritako bibliografia.
- Familien sailkapen-taularen fotokopiak.
- Paper handiak txarteletarako.
- Ikusentzunezko materiala.

## **EBALUAZIOA**

- Aurrikusitako helburuen erdiespen-maila: Zergatien azterketa: Programazioa, garapena, metodologia, iharduerak, ikasleak, irakasleak.
- Ikasleen autoebaluazioa.
- Irakasleen autoebaluazioa.
- Parte hartzaileen eta atalaren garapenaren koebaluazioa.

## 2.1

## TRATU TXARRA GAUR EGUN

## 2.1.1

## AIPAMEN HISTORIKOA

Hala mundu mailan, nola Estatuan nahiz Autonomi Elkartean, arazo honen kontzientzia hartzeari buruzko aipamen historiko laburra egiten da, arazoaren zaharra eta berorren azterketaren berriaren arteko kontrastea azpimarratzeko.

Ezkontidearekiko tratu txarrari buruzko azterketak hirurogeigarren hamarkadaren erdialdera hasten dira emakumearen laneratze masiboaren ondorioz.

Emakumearen Nazioarteko Urtea zela-eta 197ean Mexiko hirian egin zen Munduko Konferentzian, Nazio Batuen Emakumearentzako Hamarkada aldarrikatu zen, hamar urte horietan zehar, Munduko Ekintza Plana oinarritzat harturik, hiru gai nagusi jorratzeko: berdintasuna, garapena eta bakea.

1980an, berriz, aipaturiko Munduko Ekintza Plana burutzeko hartutako neurriak aztertzeke asmoz, Hamarkadaren Lehenengo Erdiari buruzko Konferentzia egin zen Kopenhagen, eta Hamarkadaren Bigarren Erdirako Ekintza Plana onartu zen, beste gai batzuren artean, etxeko indarkeriaren zenbaterainokoa eta zergatiak ikertzeko lanen promozioa aintzat hartzen zuena.

Nazioarteko komunitateak indarkeriaren aurrean agertutako kezka eta arduraren hainbat aldiz jarri da agerian, adibide nabarmen gisa emakumeei eta haurrei emandako tratu txarrei buruzko 1982/22 ebazpena eta biktima emakumea denean, familian dagoen indarkeriari buruzko 1984/14 ebazpena aipa daitezkeelarik.

Gai honekiko arduraren adierazgarriarik nabarmenena, ordea, Nazio Batuen biltzar Orokorrak 1985eko azaroaren 29an onetsi zuen etxeko indarkeriari buruzko 40/36 ebazpena da, hots, arazoari aurre egiteko, Nazio Batuen sistema barruan eta kanpoan ekintza kontzertatua eta disziplinantzuna babestuz, emakumeari familian nabari zaion biktimizazioari

justizia-sistemetatik erantzun egokia eta gizalegezkoa eman dakion lortzeko neurri krimino-  
logiko bereziak hartzeko agintzen zuena<sup>9</sup>.

Purificación Gutiérrez Lópezek<sup>10</sup> dioenez, 1973an, emakumeei laguntza emateko emaku-  
me-talde profesional bat sortu zen, izan ere, Kodearen 583<sub>2</sub>. artikuluan "el que maltratase  
a su cónyuge o hijos menores de palabra o de obra, aunque no le causase lesiones de las  
comprendidas en el párrafo anterior" ezartzen den arren, tratatu txarrak jasandako emaku-  
meak bere burua defendatzeko eragozpen handiak aurkitzen zituen eta, egoera horri au-  
rre egiteko, zenbait emakume elkartzeko eta erreakzionatzeko hasi ziren. 583<sub>2</sub>. artikuluan ai-  
paturiko jokabideak bost egunetik hamabost egunera bitarteko atzipenaldi txikiaz eta  
gaitzespen pribatuaz zigortzen ziren. Agindu honek, ordea, ez zuen eraginik, zeren, bes-  
te kausa batzuren artean, poliziak ez baitzuen emakumeen salaketak kontutan hartzen, ho-  
rrenbestez, emakumeak adoregabetsen zituela. Epaileek ere zigorrik gabe uzten zituzten  
salatuak.

- 1983an Emakumearen Erakundea sortu zen.
- 1985ean Nazioa Batuen Emakumearentzako Munduko III. Konferentzia egin zen Nairo-  
bin, non etorkizunari begira emakumeen aurrerapenera zuzendutako estrategiak onartu zi-  
ren.
- 1986an, Senatuko Giza Eskubideen Batzordeak emakumeei emandako tratatu txarrak az-  
tertzeako ponentzia sortzeko erabakia hartu zuen.
- 1989an gomendioak helarazten zaizkie herri botereei.
- Urte horretantxe, Barne Ministraritzatik zenbait zirkular bidaltzen dira Poliziara eta Guar-  
dia Zibilera hurrengo aldaketak iragarritz:
- Komisaldegietan emakumeei laguntza emateko zerbitzua sortzen da, emakumezko poli-  
ziek osaturiko zerbitzu hau Epai Poliziaren osagai da. 1990ean, zerbitzu hau Bartzelonan,  
Madrilen, Vigon, Palma Mallorcakoan eta Zaragozan zegoen ezarrita, eta Euskadin, Bilbon  
eta Gasteizen.
- Emakumeen aurkako delituen tratamendurako komisaldegia berezia sortzen da, emakume-  
ek osatua.
- Barne Ministraritzako estatistika programan tratatu txarren hobea eta delituak sartzen dira.

<sup>9</sup> *Violencia contra la mujer en la familia*, delakoan, op. cit.

<sup>10</sup> Gutiérrez López, Purificación: *Violencia doméstica. Respuesta legal e institucional*, aipatua: Maqueira, V.; Sán-  
chez C.: *Violencia y sociedad patriarcal* delakoan, op. cit.

- 88-89 ikasturtetik aurrera, halaber, emakumeek jasan ohi dituzten delituei buruzko gai bereziak eta kasu berezi hauek eskatzen dituzten jokaerak sartzen dira Estatuko Seguritate Indarren, Poliziaren eta Guardia Zibilaren ikasketa-planetan.
- 1995ean Pekinen egingo da Nazioa Batuen Emakumeei buruzko Munduko IV. Konferentzia, eta berorretan, Nairobin aurrikusitako ekintzak berrikustez gainera, 2000. urterako proposamenak ere egingo dira. Konferentzia honetan, halaber, Ekintzarako Plataforma deituriko agiria eztabaidatuko da.

### 2.1.2

### ARAZO IKUSTEZINA

Kontsultatu diren azterlan ezberdinetan<sup>11</sup> azpimarratu egiten da azaldutako datuek ez dutela arazoaren norainokoa adierazten.

Tratu txarra delako arazoaren alderdi berezi eta deigarria zera da: ikustezina izan ohi dela. Berrikitan aztertzen hasi den arazoa izanik, badira alderdi horri buruzko aipamenak, baina gaur egun ere bere horretan dirauenez, zenbait gogoeta azaltzen dira, tratu txarra ezagutuzina eta heltezina bihurtzen dituen ikusezintasunaren sopikun ez izateko.

Hurrengook kontutan hartu beharra dago:

- Ikusezintasuna familiaren edo bikotearen errealitatean esplizituki nahiz inplizituki dauden erantzunetatik sortzen da. Isiltzea kolpea onartzeren ondorioa da eta, halaber, hura errefusatzearena, sekretua dakarrena lotsagatik.
- Ikusezintasuna emakumearen menpekotasun ekonomiko eta emozionaletik eratortzen da eta gizartean orohar diharduen ezkutatze-ideologiaren inguruan egituratzen da. "Zer edo zergatik izango da" esaldiak horixe adierazten du.
- Ikusezintasunean eragin handiagoa duen sinismen bat zera da: famili bizitza tartean sartu behar ez deneko tokitzat jotzen duena alegia. Familiaz, barne-arazoez hitz egiteari uko egiten zaio. Arazo horiek interesatuei beraiei baino ez dagozkie.
- Intimitateak, famili bizitzaren garapenerako oinarritzat harturik, gizarte-isolamendua ekar dezake eta, ondorioz, familia barneko harremanetan nolabaiteko nahierarakotasunari bide emateko arriskua.

<sup>11</sup> – *Violencia contra la mujer en la familia* delakoan, op. cit.

– *Violencia en la familia a las mujeres*, Europako kontseiluak egindako dokumentoa, Encuentro Fundazioa

– Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia*, Buenos Aires, Universidad, 1989.

Intimitatearen paradoxa<sup>12</sup>, bestalde, ageri-agerikoa da, hots, alde batetik zaintza eta maitasuna faboratzen ditu norberaren burujabetasuna errespetatuz eta bereizkeria eta menpekotasuna gaitzetsiz eta, bestetik, pribazitatea erabat nagusitzen bada, hierarkia zapaltzaile bat ezartzeko aukera izan daiteke, gizarte-inguruneak arautu edo kontrolatzerik izango ez duena.

Bere akats eta guztiz iharduten utzirik, eta, aldi berean, Estatuak aurre egin behar dizkien ekintzak ezkutaturik, ez da familiaren babesa faboratzen<sup>13</sup>.

Zenbait balizko bereziki berrikusi behar dira, honek arazoaren oso ñabarra eta konplexua dela erakusten du eta konponbidea beste aurriritzi eta eskubideekin tupust egiten duela.

Balizkook hauexek dira:

1. Familiaren batasuna faboratu behar da.

Hortaz, arrotzen artean eskuarki gaitzetsiak diren ekintzak pairagarriak izan daitezke familia barnean. Horrela, epaitzeari eta zigortzeari uko eginez, biktima babesik gabe uzten dugu gizartean gaitzesgarriak diren jokamoldeen aurrean. Jokamoldeok, banakako eskubideak urratzeaz gainera, familiaren eginkizunetan ere eragina izaten dute, seme-alaben sozializazio-prozesuan batik bat, haiek indarkeriaren lekuko izanik, jokabide horrek gerora eragina izango baitu beraiengan.

2. Familiaren intimitatea babestu beharra.

Famili erasoak, toleratzen bada, besteak jokabide jakin bat izateko konpulsio bat onartzea dakar eta, halaber, nahi gabeko ekintzak disziplintatzeko ahalbidea. Hau, praktikan, justizia pribatu bat baino ez da, Estatuak, epaitzeari uko egiten badio, bultzatu egiten duen justizia pribatua; boterezko harremanetan eta erasotzailearen beraren kodeetan oinarritutako derrigortzeko era pribatuei emaniko abala litzateke, kausen eta motibazioen gizarte-kontrol gabekoa.

Egia da familian badela Estatuaren eraginetik babestu behar den askatasun-eremu bat, baina, beti ere, giza-eskubideak bortxatzen dituztenei mugarik gabe iharduteko beta eman

<sup>12</sup> E. oharra: Hitz sistemikoa: Subjektu bati kontraesanezko aginduen aurrean jartzen zaioneko egoera deskribatzen du. Logika erabiliz ezin ebatz daitekeen egoera sortzen da, munduaren barne mapa sormenaz aldaraziz soilik ebatz daitekeena aipatua: Simon; Stierling; Wynne: *Vocabulario de terapia familiar* delakoan, Bartzelona, Paidós, 1988.

<sup>13</sup> Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia*, op cit.

gabe, familiaz kanpo debekaturik dagoena ez baita haren baitan jasan behar familia gizarte-erantzunkizunetatik at balego bezala.

### 3. Arintasuna ekintzak epaitzean.

Familian emaniko kolpeek, kalte arinak sortu arren, badute gizarte-eraginik. Denboraren iraganean ondorioak larriagotu egiten dira eta, aldi berean, ahalbide terapeutikoak murriztu. Justiziak, berriz, indarkeriazko portaerek urraturiko norberaren eskubideak babestu edo intimitatearen gotorleku den familia errespetatzearen arteko aukera egin beharrean aurkitzen da. EpaiKETarik ezak sortarazten duen kontraesan hau familiaren funtzionamenduan antzematen den egoera paradoxikoan oinarritzen da, hots: maitasun-gunea eta tartekoen emoziozko inplikazio handiagoa eskatzen duen nortasunen garapen osorako eremu, alde batetik, eta mugak ezartzeko zailtasun handia, burujabetasuna gehiagotan urratzeko ahalbidea, hau da, indarkeriazko egoeren areagotzea dakarten zirkunstantziak bestetik<sup>14</sup>.

## 2.1.3

### ARAZO HONEN NONDIK NORAKOA ERAKUSTEN DUTEN DATUAK

#### MUNDU MAILAN

O.N.U.ren datuen arabera<sup>15</sup>, azterlanetarik gehienak herrialde industrializatuetan eginak badira ere, tratu txarra arazo unibertsala da eta garapen bidean dauden herrialdeetako tratu txarra erakusten duten zenbait datu ere badaude.

Ingalaterra eta Galesen, 1885etik 1905era bitartean, gizonezkoek eginiko 487, giza hilketatik 124, hau da, laurdena baino gehiago, senarrek erahildako emakumeak izan ziren, eta beste 115 kasutan, erasotzaileen maitalea edo adiskidea izan zen biktimak.

EE.BB.etan, 1989an, gaixotasunak kontrolatzeko Zentroetatik Brownek (1989) eta Brownek eta Williamsek (1989) aztertutako giza hilketak familiarrei buruzko datuak bildu ziren. Datu hauek erakusten dutenez, famili indarkeriak eragindako hiru hilketetarik bi gizonezko lagunak hildako emakumeak dira, sarritan banantze-bidean daudenak. Giza hilketen biktimak

<sup>14</sup> Grosman, Masterman; Adamo: *Violencia en la familia* delakoan, op. cit..

<sup>15</sup> *Violencia contra la mujer en la familia*, New York, ONU, 1989.

izan diren emakumeetako erdia baino gehiago egungo bikotekideek edo lehenagokoek erahil dituzte.

Britainia Haundian eginiko kriminalitateari buruzko lehen txostenak agerian jarri zuen eraso-aren biktima guztietarik %10 beren maitaleak edo senarrak erasoturiko emakumeak zirela.

Eskozian, berriz, 1974an, indarkeriazko krimen arruntenetarik bigarrena emaztearekiko eraso zela eta poliziak erregistraturiko krimen guztien %25 zirela azaldu zen.

Kolonbian, Bogotako ospitaletan trataturiko 1.170 gorputz-lesioetarik %20 ezkontidearen indarkeriak sortuak zirela agertu zen.

Txilen, 1986ko hiru hilabeteetan zehar, erasoak jasandako 10.545 biktimaren kasuak erabili ziren, 2.618 emakumezkoak ziren eta 1.884 familiako indarkeriaren biktimak.

1983tik 1985era bitartean Bangladeshen erahildako 170 emakumeren kasuei buruzko atzeranzko azterlan batek, berriz, %50 familia barnean gertatu zirela erakutsi zuen.

Antzerako kalkuluak egin daitezke aterpetxeak kontutan hartuz:

Ingalaterran eta Galesen, 1977-78 urtean, berrehun aterpethek 11.400 emakumeri eman zieten ostatu, eta oso beteak zeuden.

1974an tratu txarrak hartutako emakumeentzako zazpi etxe baino ez zegoen EE.BB.etan, 1986an 800 baino gehiago. (Stith, Rosen, Williams. 1992).

Europako Kontseilutik<sup>16</sup> zenbait datu har daitezke Frantziari buruz, elkarte pribatuen xehetasunak eta poliziarenak jasotzen dituztenak:

- Elkarte pribatuak:

- A.A.F.B. elkartea. 1986an 1.300 emakume hartu zituen eta 3.900 telefono-dei.
- Strasburgoko inkesta: 1977an medikuen artean egin zen: 10.000 emakumek tratu txarrak hartzen zituzten, SOS Femmes delakoak baiezturiko zenbatekoa.

- Polizia:

- 1980ean, Poliziaren Goimailako Eskolak urteko 10.000tik gora eta 20.000tik behera emakumek tratu txarrak hartzen zituztela uste izan zuen.
- 1982tik 1985era bitartean, Hiri Polizien Zuzendaritzak senarrak eta lagunak emandako kolpe eta sortutako lesioak salatu dituzten emakumeen kopurua azaltzen du:

1982an: 7.500 salaketa

1983an: 7.223 salaketa

1984an: 7.146 salaketa

<sup>16</sup> *Violencia en la familia a las mujeres*. Europako kontseiluak egindako dokumentoak, Encuentro Fundazioa.

ESTATU MAILAN

1988an 16.500 salaketa egin ziren, lege-aholkularitzako 113 zentro eta 36 harrera zentro zeudela. Zentro hauen mantenimenduak arazoak dakartza, finantzaketa publikoa izaten baita, eskuarki urteroko dirulaguntzen bidezkoa eta, horrenbestez, dirulaguntzok ematen dituen talde politikoaren gorabeheren araberakoa. Egoera honek arazo larriak sortarazi ditu. Beste alde batetik, zentro horietan aldi baterako egoten da, harik eta, epaia emandakoan, emakumeek irten ziren egoitzaren erabilera berreskuratu edo bestelako etxebizitzaren bat aurkitu arte. Irtenbide oso zailak biak ere zeren, alde batetik, Justiziaren geldotasuna nabarmena baita, eta bestetik, emakume hauek lanbide-maila eskasa izan ohi baitute<sup>17</sup>.

AUTONOMI ELKARTEAN

|                |                         | 1992             |                  |                  | 1993             |                  |                  | 1994             |                  |                  |
|----------------|-------------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|------------------|
|                |                         | BORTXA-<br>KETAK | SEXU-<br>ERASOAK | TRATU<br>TXARRAK | BORTXA-<br>KETAK | SEXU-<br>ERASOAK | TRATU<br>TXARRAK | BORTXA-<br>KETAK | SEXU-<br>ERASOAK | TRATU<br>TXARRAK |
| ARABA          | POL. NAZIONALA          | 9                | 21               | 219              | 4                | 19               | 282              | 3                | 14               | 265              |
|                | UDALTZAINGOA            | —                | —                | —                | 2                | 20               | 24               | 6                | 22               | 59               |
|                | ERTZAINZA               | 0                | 2                | 15               | 2                | —                | 5                | 0                | 2                | 17               |
|                | <b>ARABA GUZTIRA</b>    | <b>9</b>         | <b>23</b>        | <b>264</b>       | <b>8</b>         | <b>29</b>        | <b>311</b>       | <b>9</b>         | <b>38</b>        | <b>341</b>       |
| BIZKAIA        | POL. NAZIONALA          | 11               | 24               | 474              | 12               | 29               | 398              | 14               | 16               | 260 (1)          |
|                | UDALTZAINGOA            | 9                | 20               | 63               | 9                | 64               | 41               | 4                | 51               | 160              |
|                | ERTZAINZA               | 12               | 41               | 72               | 10               | 33               | 61               | 8                | 35               | 109              |
|                | <b>BIZKAIA GUZTIRA</b>  | <b>32</b>        | <b>85</b>        | <b>609</b>       | <b>31</b>        | <b>126</b>       | <b>500</b>       | <b>26</b>        | <b>102</b>       | <b>529</b>       |
| GIPUZKOA       | POL. NAZIONALA          | 6                | —                | 66               | —                | 6                | 31               | —                | —                | —                |
|                | UDALTZAINGOA            | —                | 4                | 18               | 2                | 12               | 18               | 2                | 9                | 13               |
|                | ERTZAINZA               | 7                | 17               | 80               | 8                | 19               | 70               | 4                | 67               | 102              |
|                | <b>GIPUZKOA GUZTIRA</b> | <b>13</b>        | <b>21</b>        | <b>164</b>       | <b>10</b>        | <b>37</b>        | <b>119</b>       | <b>6</b>         | <b>77</b>        | <b>115</b>       |
| <b>GUZTIRA</b> |                         | <b>54</b>        | <b>129</b>       | <b>1.007</b>     | <b>49</b>        | <b>202</b>       | <b>930</b>       | <b>41</b>        | <b>217</b>       | <b>985</b>       |

(1) Gainera 242 kontsulta eta 150 telefono-deiak daude.

<sup>17</sup> Gutiérrez López, Purificación: *Violencia doméstica. Respuesta legal e institucional*, aipatua: Maqueira, V.; Sánchez, C.: *Violencia y sociedad patriarcal* delakoan, op. cit.

## BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

- Tratu txarraren aurretiko iraupena: Emakume bat ere ez zen etxetik joan indarkeriazko lehen ekintzaren ondorioz. %40k urtebetetik gora zeramaten tratu txarrak hartzen eta egunero gainera.
- Gizarte-ezaugarriak:
  - Adina: %70etik 80era 20-40 urte bitartekoak dira.
  - Lokarria hausteko saioak: %46rentzat etxetik joaten ziren aurreneko aldia zen, gainontzekoak gehiagotan saiatuak ziren.
  - Hekuntza-maila: %80k gutxi gora-behera lehen mailako ikasketak zituen.
  - Okupazio-maila: Inoiz laneratu gabekoak %10 baino ez ziren.
  - Senarren lanbide-maila:

### HAFB ELKARTEA

Enplegatuak (%21,5)  
Langile kualifikatuak (%14)  
Goi-mailako kuadroak (%10,5)  
Langabetuak (%26)

### POLIZIAREN GOIMAILAKO ESKOLA

Erdi-mailako kuadroak (%27)  
Langile espezialistak (%18)  
Goi-mailako kuadroak (%18)  
Peioak (%33)  
Langabetuak (%7)

- Indarkeria gertatu zen tokia: %87 kasutan etxean bertan.

- Etxera itzultzearen datuak:

Arestian eginiko zenbatespenen arabera, erasotzaileengandik urrundutako emakumeetarik %50etik %75era haiengana itzultzen dira elkarrekin bizitzera. Askok, gero eta tratu txar gehiago jasatearen ondorioz behin eta berriz babes bila ibili ondoren, berriro heltzen diote lehengo harremanari (Hendurcks-Mattews, 1982). Harrera etxeetako profesionalek diotenez, indar asko alferrik galtzen da emakumeek aterpetxea utzi eta erasotzailearengana itzultzen direnean, frustrazioa are handiagoa izaten da emakumeak bere kabuz iharduteko gai dela ziurtzat jotzen duenean. Hortik dator profesional havei nabari zaien frustrazioa, herragunea, adorerik eza eta lanbide-etsipena.

- Tratu txarraren astuntasunaz:

EE.BB.etan, famili indarkeriak eragindako hiru heriotzetarik bi gizonezko lagunak erahilda-ko emakumezkoak dira, sarritan banantze-bidean zeudenak. Giza hilketaren biktima izan diren emakumeetako erdia une horretako bikotekideak edo lehenagokoak erahil du<sup>18</sup>.

Hegoaldeko Gales Berrian, Australia, poliziak 1968tik 1981era bitartean argitutako giza hilketatik erdia familiaren inguruan gertatu zen. Berorietatik %55etan erahildako ezkontidea zen eta gehienetan emakumezkoa.

Kanadan ere antzerako egoera somatzen da 1961etik 1974ra bitartean, hots, giza hilketaren biktima izan ziren emakumezko guztietarik %60 familia-eremuan erahilak ziren<sup>19</sup>.

- Osasun psikologikoari eragindako kalteez:

Erasoa jasandako emakumezkoek tratu txarrak hartutako emakumezkoen "sindrome traumatikoa" dei dakioketena izaten dute, "bortxaketa sindromearen" parekide dena, hots: pasibotasuna, bere kabuz iharduten ez jakitea, nekea, lozorroa, indargabe.

Horrez gainera, alkohola gehiegi edateko arriskua eta drogak kontsumitzekoa ere aipatu behar dira. Emakumezkoen alkoholismoaren sortzaile nagusienetako bat tratu txarra da.

Norbere burua hiltzeko arriskua ere aregotu egiten da. Azterlan batek<sup>20</sup> adierazten duenez, tratu txarrak hartzen dituen emakumezko batek tratu txarririk hartzen ez duenak baino bi bider gehiagotan hil dezake bere burua.

Bangladeshen lortutako emaitzek adierazten dutenez, familia barnean tratu txarrak hartzen dituztenek sarritan hiltzen dute beren burua arazoa ebazteko.

## 2.2

### EZKONTIDEAREKIKO TRATU TXARRA

### 2.2.1

#### ZER DA TRATU TXARRA? MOTAK

Ezkontidearekiko edo etxeko indarkeria deitzen zaio harreman heterosexual<sup>21</sup> heldu baten barnean, gehienetan (beti ez bada ere) elkarbizitzan zertzen dena, gertatzen den gehiegizko jokabide orori. Gehiegizko jokabidetzat jotzen da egiteagatik edo aldera uzteagatik beste pertsonari kalte fisikoa edo psikikoa sortzen dion oro<sup>22</sup>.

<sup>18, 19 eta 20</sup> *Violencia contra la mujer en la familia* delakoan, op. cit.

<sup>21</sup> E. oharra: Lan honetarako aztertu den bibliografia eta dokumentazioan ez da harreman homosexualetan tratu txarririk egoteari ala ez egoteari buruzko aipamenik aurkitu.

<sup>22</sup> Fernández Ana M.<sup>a</sup>; *La mujeres en la imaginación colectiva* delakoan, op. cit.

Nahikoa zabala den definizio hau egin ondoren, tratu txar ezberdinak bereizten dira:

- Tratu txar fisikoa: Belarrondokotik giza hilketara, ospitaleratu beharreko edo ospitaleratu beharrik gabeko lesioak barne.
- Tratu txar sexuala: Tratu txar fisikoari oso lotua izanik ere, tratu txar sexuala bereiztea me-rezi du. Bikoteko harremanean gertatutako bortxaketatik emakumezkoei gogoz kontrako ekintza sexualak egitera derrigortzeraino sartzen dira. Legeen aldetik, oso garrantzitsua da era honetako indarkeria sexuala legeak jaso eta aipa dadin, zeren, bestela, abusu deso-nestu gisa baino ez baita jasoko, horrek gutxienezko zigorra dakarrela.
- Tratu txar psikologikoa, tratu txar emozionaletik bereizia: Tratu txar psikologikoan tratu txar fisikoren bat ere egon da, eta mehatxuak edo irainak tratu txarren bat gogorarazten du, kalte sakonagoa eta kezkagarriagoa sortaraziz.
- Tratu txar emozionala: Irainak, mehatxuak edo beharrezko zaintza alde batera uztea.
- Tratu txar soziala: Tratu txarra hartzen duenari isolatu egiten zaionean, harreman ga-rrantzitsuak kentzen zaizkionean edo gizarte harremanetan gutxiesten zaionean.

Finantza-mailako tratu txarra: Ezkontideari diruaren erabilera edo informazioa galerazte-a. Maiztasuna baloratzen da eta tratu txarrak gertatzen direnean faktore ekonomikoak izaten duen garrantzia<sup>23</sup>.

## 2.2.2

## EZKONTIDEAREKIKO INDARKERIA

### INDARKERIAREN ZIKLOA

Nola gertatzen da tratu txarra? galderari erantzuteko, hura ziklikoki gertatu ohi dela esan behar da. Leonor Walkerrek<sup>24</sup> eta kontsultaturiko beste egile batzuek aipatzen duten Ezkon-tidearekiko Indarkeriaren zikloa honela gertatzen da:

Indarkeria egoera ziklikoetan gertatzen da, bikoteen arabera intentsitate eta iraupen ezber-dina izaten duten hiru fasetan sailka daitekeena:

<sup>23</sup> Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia* delakoan op. cit..

<sup>24</sup> Walker, L.: *The Battered woman*, Hayer and Row, New York, EE.BB. 1979, aipamena Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia* delakoan, op. cit..

1. Tentsio-areagotzea.
2. Kolpeen fase larria.
3. "Maitasunezko barealdia".

Garrantzizkoa da poliki deskribatzea, argi uzten baitu arazoa ez dela une jakin bateko eraso fisikora mugatzen, ziklo osora baizik. Erasoak ez bada zikloan azaldu bezala gertatzen, nekez izango da tratatu txarra. Adibidez: Oso ezberdina da, erasoaren aurrean, emakumeak bikotea kinka larrian dagoela ohartzea eta harremana birplanteatzea, edo alderantziz, kolpeen ondoren zikloko ohiko "barealdia" etortzea.

#### 1. FASEA: Tentsio-areagotzea harremanetan

Fase honetan eraso psikikoak eta kolpe txikiak izaten dira. Emakumezkoek ukatu egiten dute benetako egoera eta gizonezkoek areagotu egiten dituzte erasoak, zeloak eta jabetza, euren jokabideari zilegizkoa deritzotela.

Bikote baten indarkeriazko interakzioak ezarritako botere harremanetan tentsioa areagotzeari loturik daude. Bikoteko batek dagokion genero-estereotipoaren igurikapenak betetzen ez dituen bakoitzean hasten dira indarkeriara daramaten elkartrukeak.

#### 2. FASEA: Fase larria, kolpeak

Kontrolik eza eta kolpe ekidinezinak. Emakumeak harriturik agertzen dira bat-batean sortzen den gertaeraren aurrean.

Gizonezkoaren kolpea ezintasunezko ekintza da indar-erakustaldia bainoago. Bere igurikapenak betetzen ez direnean, emakumearenganako boterea galtzen duela sentitzen du. Hark, bestalde, bere identitatearen desbaieztatze bat bezala hartzen du.

Kolpe-aldiaren ondorioek, berriz, bakoitzaren identitatea birbaieztatu du, hots, emakumearen ahaulezian eta pasibotasunean eta gizonezkoaren indar-erakustaldian oinarritua. Bion arteko harremana eginkizunen arabera denez gero, bakoitzak bere buruarenganako errekonozimendua gordetzen du bestea "ustez dena" izateari uzten ez dion bitartean.

#### 3. FASEA: "Maitasunezko" barealdia

Kolpe-aldi larria gizonezko kolpatzailearen damu eta afektuzko jokabideak eta haren zintotasunean sinisten duen emakumezkoaren onespak hausten dute.

Etaparen honetan harremanaren irudi idealizatua nagusitzen da, genero-eredu konbentzionalen bat datorrena. Gero, ziklo berria hasten da.

## TRATU TXARRA EMATEN DUEN GIZONEZKOA

Tratu txarrak ematen dituen gizonezkoaren ezaugarriak azalduko ditugu. Lehenengo eta behin, funtsezko ezaugarriak eta ondoren perfila, hau da, osotua, horren baliogarria ez izan arren. Kontsultaturiko bibliografiaren norabide ezberdinek beharturik arituko gara horrela. Ezaugarri ezberdinen zehazketak arlo berezietan lan egiteko aukera ematen die irakasleei, talde ezberdinetan adierazgarriagoak edo lantzeko errazagoak gerta daitezkeenak.

### EZAUGARRI NAGUSIAK

Bere buruarenganako estimazio txikia dute, botererik gabeak direlakoan daude eta indarkeriaz baliatzen dira botere-sentzazio horretaz jabetzeko<sup>25</sup>. Posesiboak, jeloskorrak eta aierukorrak izaten dira, menpekotasun handiak eraginda<sup>26</sup>.

#### • Trebetasunak

Ez dira tratu txarririk<sup>27</sup> ematen ez duten gizonezkoak bezain asertiboak eta haiek baino hezikuntza baliabide gutxiago dituzte, eta tentsiozko egoera baten aurrean hurrengooz baliatzen dira:

- Ukapena, hots, egoeraren kontzientzia ez hartzea, ez kanpoko errealitateari dagokionez, ez eta bere baitako errealitateari dagokionez ere, hau da, bere tentsio-egoera ukatzea.
- Berak emandako tratu txarraren ondorioen errepresioa. Ahaztu egiten ditu, baina, haieztaz hitz egin daiteke, ukapenean ez bezala, honek gehiago deformatzen baitu errealitatea.

#### • Adina

Ez da adinaren eta tratu txarraren arteko lotura zuzenik aurkitu.

Ezkontidearekiko abusua, nolanahi ere, sarriago gerta daiteke erasotzailea gaztea denean<sup>28</sup>.

<sup>25</sup> Steele, 1975; Conger et al., 1979, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, Bilbo, Desclee de Brouwer, 1992.

<sup>26</sup> Hotaling eta Sugarman, 1986; Rouse, 1984; C. Coleman, 1980; Roy, 1982; Sokin etab. 1985, aipamenak Stith, Sandra M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>27</sup> E. oharra: Asertibitatea: pertsonarteko testuinguru batean pertsona batek dituen jokaerak, zeinen bitartez bere sentimenduak, jarrerak, nahiak, iritziak eta eskubideak irmoki, zintzoki eta indarkeriarik gabe adierazten dituen bere solaskideenganako begirune osoz.

<sup>28</sup> Hotaling eta Sugarman 1986; Datlan, 1989..., aipamenak Stith, Sandra M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

---

- Itxura Bikoitza

Ikerle guztiek aipatzen dute itxura bikoitzaren ezaugarria, hala jokabidezko bidetik jotzen dutenak, nola orientazio sistemiko eta dinamikoari jarraitzen diotenak. Oso garrantzitsua da bere ondorioengatik, eta jendaurreko irudi bat eta irudi pribatu ezberdina izatean datza. Zenbait ikerlek, erasotzaile tipikoekin ariketa-taldeetan bi urtez lanean ihardun ondoren, “Jekyll eta Hyde” motatako nortasuna duten pertsonak direla esaten dute. Hasieran pertsona integratua, atseгина eta maitagarria ematen du. Itxura atsegin hau, ordea, beste batean bilakatzen da eta haren ordeztu biktimari errua egozten dion, bat-bateko indarkeria agertzen duen, oso jeloskor ageri den, alkohol eta droga gehiegi hartzen duena eta abusuei garrantzirik ematen dien eta harreman heterosexual adierazgarriak izateko gauza ez den pertsona agertzen zaigu, hots, bestearenganako hunkipena, maitasuna eta balioespina adierazteko gai ez dena.

Ezaugarri honek bi eratako eragina du emakumezkoengan: 1) Norbere buruarenganako gaitzespena eta nahasmena eginiko hautapenengatik. Gizonezko erasotzaileen jokabide aldakorra ezagutzea argigarria gertatzen zaio biktimari, berak bestela ezin antzeman lezakeen jokabidearen alderdiak ezagutzeko. Tratu txarrak hartutako emakume batek baino gehiagok adierazi du ezkondu ondorengo aldian inoiz baino maitatuago eta babestuago ikusi dutela euren burua. Konpromezu horren ostean, berriz, (hesiak biguntzen direnean eta emakumezkoek elkarren barnera sartzeko ahaleginetan dabiltzanean) egoera erabat aldatzen da. Erasotzaileek sarritan aipatzen dituzte biktimaren zaurgarritasuna, defentsarik eza, bildurra eta ahulezia tratu txarrak emateko aitzaki gisa. Behin abusuzko dinamikatik abiatuz gero, gizonezkoaren abusuzko jokabideen eta emakumezkoaren bere burua kaltetzeko jokabideen kiribila eratzen da, eta kiribil hori sortarazten duten jokabide horiek, bai emakumearengan eta bai gizonarengan oso erroturik egoteaz gainera, abusuzko harremana berrendartu egiten dute. Ez du ingurutiko erantzun egokirik jasotzen, inguruak ez baitu erasotzailea den bezala ezagutzen.

- Sineskerak eta Ikaskuntza

Sineskerak aipatzerakoan, norbanakoak bere buruaz eta besteetat (bere balioa, bizi-rolak eta munduak zor diona barne) eta besteetat dituen kontzeptualizazioez ari gara.

Sineskerak hauexek dira:

a) Erasotzaileek beren desegokitasun-sentimenduek, beren buruarenganako uste txarrekin inor kalte egiteko baimena ematen dietela uste dute.

b) Hainbat azterlanetan aztertu da senarraren indarkeriaren eta rol sexualetarako jarrera estereotipatuen arteko harremana. Zenbait ikerlek adierazi dute, halaber, emazteari tratatu txarrak ematen dizkioten gizonezkoak erasorik egiten ez duten gizonezkoak baino tradizioari lotuagoak izan ohi direla rol sexualei dagokienez.

c) Beste ikerle batzuek, berriz, ezkontidearekiko indarkeria onartzearen eta indarkeriazko jokabideen arteko lotura ezartzen dute. Erasotzaileek, erasorik egiten ez dutenen aldean, maizago adierazten dute ezen, emakumezkoari tratatu txarrak ematea, justifikagarria ez ezik, onargarria ere badela. Aginteari eusteko indarkeria justifikatua dagoelako sineskera honek aurki daiteke, agian, gizonezko askok beren haserrea arintzeko ikasitako jokaerak ez erabiltzearen zergatia.

d) Arazoari loturiko aldagaiak identifikaturik, harremanak izateko indarkeriazko jokaerak gatazkak konpontzeko onargarriak direlako ustea zabaltzen duen eredu sozial eta familiar batenganako atxikimenduaren ondorio direla esan daiteke. Halako gizonek, "mistika maskulinoa" deritzana osotzen duen balore eta sineskera-multzo bat erantsi diote bere genero-sozializazioari, multzo horretan maitasun mugatua eta kontrola, agintea eta lehia sartzen direla.

- Helburuak lortu eta arrakasta izateko grina

Nortasunaren eraketan bi prozesu gailentzen dira: kanpoko niaren hipergarapena (egin, lortu, ekin) eta maitasun-mailaren errepresioa. Mina, tristura, atsegina eta abarrak erakusteko autokontrol iraunkorrari eutsi eta hala jokatzeko. Eredu tradizional hau familiaren, heziaren, komunikabideen eta kulturara heltzeko era sinbolikoen bidez ikasten da.

Indarkeriak (berau jasan, hala jokatu edo esku hartzea) sineskera-sistema aldarazten duela kontutan hartu behar da.

- Ezagumenaren bihurdurak

Erasotzaileek inguruko gauzak azaletik interpretatzeko joera dute. Erasotzailearen okerreko pentsamenduek sarritan daramate hura zakarki jokatzera eta jokaera honen erantzunkizunak ekiditera. Ezagumenaren bihurdura, arrazionalizazio eta justifikazio ugari nabari zaie. Halaber, erasotzailea kutsatzen duten ikasitako zenbait pentsamendu ere badira.

Norbere burua ezagutzeko gaitasun mugatua dutela eta, sentimendu eta emozio ezberdinak izaten badituzte ere, odolgaiztoko gizonezkoek sentitzen dutena ezabatu eta ezkutatze joera dute.

## PERFIL PSIKOLOGIKOA

Alicia Ruiz de la Pradari jarraituz, gizonezko erasotzailearen perfila azaltzen dugu:

a) Trasmitzen duen komunikazio nagusiaren ardatza eraso da. Sintoma amorrua da, zuzenean edo gertakarien bidez adierazten dena.

b) Depresiozko esperientziak izan dituzte, atsekabe iraunkorra bezala bizitzen dena. Pertsekuziozko antsiak, hau da, jasanezinak, izaten dituen depresioa da. Adikzioa mina eta errua arintzeko baliabidea da, hurrengoan bidez:

- Jokaera paranoikoa.

- Jokaera psikopatikoa.

c) Antsia-maila nabarmenak.

d) Jokabide oldarkorrak. Jokabide-eragozpenak. Jokabideok norbere buruaren aurkakoak gertatzen dira ondorioengatik, ez norbere buruari kalte egiteko hasierako asmoengatik.

e) Lotura egongaitzak. Bestea nahierara erabiltzeko nahi dute, ez harremanak izateko.

f) Harreman terapeutikoan errefusa eta eraso sortarazten dituzte.

Beste ikerle batzuek<sup>29</sup>, ordea, beste perfil bat eskaintzen dute, aurrekoarekin bat datorrena, baina zenbait alderdi zehazten dituen:

- Emozioak adierazten ez dituen.

- Bere buruarengako estimazio urria.

- Hitzek komunikatzeko gaitasun eskasa.

- Autokontrol eskasa.

- Bere burua ezagutzeko gogo gutxi.

- Indarkeriari garrantzirik ez emateko joera.

- Erantzunkizunaren eta erruaren proiektzioa.

Beste alde batetik, sexuaren eta indarkeriaren arteko lotura berezia dago. Gizonezko hauek sexu-gogoa eta botere-desioa bereizteko eragozpenak dituzte. Lorpen sexualak garaipen-sentimenduari lotuta daude. Beren buruarengako estimazioa ordaintzat menpekotasuna exijitzen duen kontrol eta aginte ahalmenean oinarritzen da.

Emakumearen presentzia bere gizentasuna baiezteko da beharrezkoa, baina intimitatea edo hurbiltasun emozionala mehatxutat hartzen da. Halako gizonezkoen paradoxa da. Testuinguru honetan, sexua tentsioen aringarria da.

Harremanaren kontrola bilatzea eta intimitatea ekiditea gizonezko kolpatzaileen ohiko jokabideak dira, euren kontrol ahalmena arriskuan ikusiz gero, eraso egiten dute.

<sup>29</sup> Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia*, op. cit.

Sexualitatea eta indarkeria gurutzatu egiten dira gizartearen oinarrietan dauden izenda-tzaile komunetatik:

- Genero-estereotipoen hornitzen duten kulturazko ereduak.
- Botere, kontrol eta lehiazko gizarte-ereduak.
- Indarkeriazko interakzioetan eta maitasunezko elkartruke urrian oinarrituriko familia-ereduak.
- Ekintzaren zentzua ikusteari kontrajarririk, ekintzan bertan oinarritutako eredu sexualak.

#### TERAPEUTIKA

Gizonezkoentzako terapiak hurrengo alderdiak azpimarratzen ditu: hiraren kontrola, erantzunkizun pertsonala, arazo konponketa, aldatzeko kontratuak, antsiaren murrizketa, komunikazioan saiatzea eta rol sexualen estereotipoak aldatzea<sup>30</sup>.

Odolgaiztoko gizonezkoentzako taldeek haien indarkeriazko jokabidearen erantzunkizuna onar dezaten eta haserrea baretzeko oinarritzko baliabideak irakasteko balio dute.

Hainbat talde terapeutikoren bitartez, indarkeria zerk sortzen duen jakin ahal izan da. Eraso-tzaileak kontrola galdu aurretik izandako pentsamenduak sentimenduak eta haren ekintzak aztertu ondoren jakin ahal izan da.

Gizonezko hauen jokabidea, sentimenduak eta pentsamenduak hobeto ezagutu eta ulertzeko lagungarria gerta daitekeen zerrenda bat ere azaltzen da. Eratorritako balizkoak ez baina gizonezko hauekin zuzenean eginiko lan terapeutikotik ateratakoak direlako gerta daitezke erabilgarriak. Horrela errealitatea hurbilagotik ezagutzeko aukera eskaintzen da, lehen aipaturiko estereotipoen eta ikusezintasunari eragin ahal izateko.

<sup>30</sup> Gondolf, 1965; Neidig eta Friedman, 1984; Walker, 1989, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

## 1. TAULA Odolgaiztoko gizonezkoen pentsamenduak, tentsio gero eta handiagoan daudenean

| ALDAGAIA                                                              | AIPAMENA        | URTEA |
|-----------------------------------------------------------------------|-----------------|-------|
| Ezagumenaren bihurturak                                               |                 |       |
| Gatazka txikia puztua                                                 | Glasser         | 1986  |
| Gehiegizko eta errealtatez kanpoko igurikapenei eustea                |                 |       |
| Arrazionalizazioak                                                    |                 |       |
| Jokabideak ez direla horren odolgaiztokoak uste izatea                | Star            | 1983  |
|                                                                       | Ganley          | 1981  |
| Justifikazioak                                                        |                 |       |
| Krisisa emakumearen jokabideak sortu duela uste izatea                | Ganley          | 1981  |
| Indarkeria eskusagarria dela uste izatea                              | Hornug etab.    | 1981  |
|                                                                       | Stahly          | 1978  |
| Okerreko Pentsamendu Ikasiak                                          |                 |       |
| Gizona nagusia dela uste izatea                                       | Walker          | 1977  |
|                                                                       | Glasser         | 1986  |
| Emakumeek galderarik egin gabe menpean jarri behar dutela uste izatea | Walker          | 1977  |
|                                                                       | Hornug etab.    | 1981  |
|                                                                       | Gooder          | 1971  |
| Erlijioak mendekua onartzen duela uste izatea                         | Brutz eta Allen | 1986  |
| Jainkoak emakumea gizona baino eskasagoa sortu zuela uste izatea      | Brutz eta Allen | 1986  |
| Emakumeak eta gizonak ez direla berdinak aldarrikatzea                | Walker          | 1977  |
|                                                                       | Glasser         | 1986  |

## 2. TAULA Odolgaiztoko gizonezkoen sentimenduak, tentsio gero eta handiagoan daudenean

| ALDAGAIA                                  | AIPAMENA              | URTEA |
|-------------------------------------------|-----------------------|-------|
| Amorru adierazgabea                       | Deschner              | 1984  |
| Bere buruarenganako estimazio urria       | Star                  | 1983  |
| Etsaikeria                                | Gil                   | 1986  |
| Frustrazioa                               | Gil                   | 1986  |
| Depresioa                                 | Gil                   | 1986  |
| Eskapismoa                                | Gil                   | 1986  |
| Esplotazioa                               | Gil                   | 1986  |
| Barne sufrikarioa minimazioez disimulatua | Ganley                | 1981  |
| Lotsa                                     | Ganley                | 1981  |
| Antsia                                    | Ganley                | 1981  |
|                                           | Walker                | 1984  |
| Tristura                                  | Ganley                | 1981  |
| Erruduntasuna                             | Ganley                | 1981  |
| Babesgabetasuna                           | Ganley                | 1981  |
| Zaurgarritasuna                           | Ganley                | 1981  |
| Beldurra                                  | Ganley                | 1981  |
| Harremanarekiko atsekabea                 | Ganley                | 1981  |
|                                           | Walker                | 1984  |
| Zeloak                                    | Walker                | 1984  |
|                                           | Deschner              | 1984  |
|                                           | Seligman eta Rosellin | 1975  |
| Bakardadea, intimitate urratua            | McCall eta Shields    | 1986  |
| Bizimodua aldatzeko ahalmenik eza         | Star                  | 1983  |
|                                           | Walker                | 1984  |

### 3. TAULA    **Gizonezko erasotzaileen jokaerak, tentsio gero eta handiago- an daudenean**

| ALDAGAIA                                                                                                                                                                                     | AIPAMENA              | URTEA |
|----------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------|-------|
| Jokaera oldakorra (lanez, lagunez, etxez aldatzea)                                                                                                                                           | Glasser               | 1986  |
| Besterengandik isolatua                                                                                                                                                                      | Star                  | 1983  |
| Gehiegizko jabetza eta menpekotasuna bikotekidearenganako                                                                                                                                    | Hilberman eta Munsoon | 1978  |
|                                                                                                                                                                                              | Giles-Sims            | 1983  |
|                                                                                                                                                                                              | Pagelow               | 1981  |
|                                                                                                                                                                                              | Fieze                 | 1980  |
| Emoziorik gehienak amorru biziz adieraztea                                                                                                                                                   | Ganley                | 1981  |
| Beste batzuk kontrolatu eta menperatzea                                                                                                                                                      | Straus etab.          | 1980  |
|                                                                                                                                                                                              | Walker                | 1979  |
|                                                                                                                                                                                              |                       | 1984  |
|                                                                                                                                                                                              | Deschner              | 1984  |
| Behar ez bezala komunikatzea                                                                                                                                                                 | Star                  | 1983  |
| Gogorra, zurruna                                                                                                                                                                             | Star                  | 1983  |
| Interakzio negatiboen tasa handia                                                                                                                                                            | Patterson             | 1982  |
| Erabakiak berak bakarrik hartzea                                                                                                                                                             | Giles-Sims            | 1983  |
|                                                                                                                                                                                              | Pagelow               | 1981  |
|                                                                                                                                                                                              | Walker                | 1984  |
| Senarraren eraso sexuala eta bortxaketa                                                                                                                                                      | Finkelhor & Yllo      | 1983  |
|                                                                                                                                                                                              | Giles-Sims            | 1983  |
|                                                                                                                                                                                              | Pagelow               | 1980  |
|                                                                                                                                                                                              | Walker                | 1981  |
| Droga eta/edo alkohol gehiegi hartzea                                                                                                                                                        | Bayles                | 1978  |
|                                                                                                                                                                                              | Gelles                | 1974  |
|                                                                                                                                                                                              | Prescott eta Letko    | 1977  |
|                                                                                                                                                                                              | Roy                   | 1977  |
|                                                                                                                                                                                              | Straus etab.          | 1980  |
| Tratu txarrak haurrei                                                                                                                                                                        | Johnson eta Morse     | 1968  |
|                                                                                                                                                                                              | American Human Ass.   | 1974  |
|                                                                                                                                                                                              | Gil                   | 1970  |
|                                                                                                                                                                                              | Straus etab.          | 1980  |
| Aurkaria, menperatzailea                                                                                                                                                                     | Brekke                | 1987  |
| Suizida/bere buruari kalte egiten diona                                                                                                                                                      | Ganley                | 1981  |
| Janaria gehigarri askorekin jaten duena, goxokiak                                                                                                                                            | Adams                 | 1981  |
|                                                                                                                                                                                              | Printz etab.          | 1980  |
|                                                                                                                                                                                              | Stare etab.           | 1980  |
|                                                                                                                                                                                              | Reed                  | 1983  |
| Gelatik nahiz etxetik irainduz, biraoak esanez eta modu txarrean; negar eginez, sarkasmoz, jo edo gauzak hausteko mehatxu eginez, gauzak boteaz, hautsiz, kolpatuz edo ostikoka alde egitea. |                       |       |
| Bikotekidea bota, oratu eta astindu; belarrondokoak eman, ostikadak, hozka egin edo ukabilez jo; kolpatu edo zerbait erabiliz jo.                                                            | Straus                | 1986  |
| Emazteari eraso egin, mehatxa egin labanaz edo pistolaz; labana edo suarmak erabiltzea.                                                                                                      | Straus                | 1986  |
|                                                                                                                                                                                              | Straus                | 1986  |

## TRATU TXARRA JASANDAKO EMAKUMEZKOA

### EZAUGARRI NAGUSIAK

- Sentimenduak. Tratu txarrak hartzen dituen emakumezkoak Walker L.k<sup>31</sup> "tratu txarrak hartzen dituen emakumearen sindromea" deitzen duena sentitzen du, hots: sindrome honen pean dauden emakumeek gero eta inhibizio handiagoa daukate euren bizimodua aldatzeko ahalmenei dagokienez. Hurrengo erasoak noiz izango ote denaren beldurrez bizi izaten dira. Hala ere, ez dira laguntza bilatzeko gauza. Energia-galera iraunkorra sortarazten dien trauma eta estres nabarmena jasaten dute.
- Errealitateari uko. Tratu txarren biktimek sarritan uko egiten diote euren egoeren errealitateari. Uko egiten diete tratu txarren aztuntasunari, bikotekidearen arriskugarritasunari, beldurrei, segurtasunik ezari eta, batzutan, beren lesioen benetako eragileei ere bai. Haien jokabideak arrazoitu egiten dituzte erasotzailea tratu txarren jokabidearen erantzunkizuna bere gain hartzeko gauza ez dela uste izateraino<sup>32</sup>.

Tratu txarren biktimak fantasiazko mundu batean bizi izaten dira, atsegin litzaikeen bizimoduaren lilurapean. Euren bizimoduaren alderdi kaltegarriak, txarrak edo urriak, inorengana proiektatu edo kontzientziaren arloan blokeatzen dituzte.

- Autokontzientzia urria. Bere sentimenduekiko kontzientzia-arloa oso mugatua izan ohi da eta bere diskurtsoa eta esateko era, adibidez, ez datoz bat.

Garrantzizkoa da tratu txarrak hartutako emakumeen sentimendu nahasiak argitzea. Sentimenduok hurrengoan inguruan zertzen dira: maitasuna/gorrotoa, hira/pasibotasuna, ahalgutzia/ezintasuna.

Sentimendu nahasiok tratu txarren biktimek aurre egin behar izaten dieten elkarren aurkako nahi eta indarren erpinak erakusten dituzte. "Gizakiak bere nortasunaren bi muturrak eza gutzen dituen arte, haren bizitza emoziozko gora-beheren tobogan bat bezalako da.

Integratu gabeko gizakiak bere buruaren ikuspegi zurrin eta estereotipatua garatzen du. Bere nortasunaren zenbait alderdi baztertuz. Tratu txarren biktimek isilik egoten eta inoren aurrean begirunez jokatzen ikasten dute askotan. Inoren menpe egoten eta euren rola segurutzat har-

<sup>31</sup> Walker, L. 1979, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rose, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>32</sup> Hensicks-Matthews, 1982, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

tzen ikasten dute. Haserreari, oldarkortasunari, herrari eta asertibitateari dagozkien alderdiak zigortu egiten dira, kontzientzia-arlotik ezabatuz eta nortasunean ez txertatuz”.

- Autoerantzunkizun urria. Tratu txarren biktimek, bestalde, iharduteko ahalmena inguruko beste batzurengan uzteko joera dute. Biktimaren rola onartzeak esplikatzen du tratu txarrak hartzen dituzten emakumeek bere bizitzako esperientziak ez kontrolatzea. Pozgarri zaien guztia inork sortutakotzat jotzen da (kontrolaz kanpoko), kaltegarri zaien guztia, aitzitik, norbere buruari eginiko zerbait da nolabait. Honek erakusten du Walkerrek<sup>33</sup> azaldutako ahalguztia/ezintasuna delako gatazka. Halako emakumeekin lan egin duten profesional klinikoek sarritan egiaztatu dute tratu txarrak hartutako emakumeek euren bizitzaren gaineko erantzunkizunarekiko ahalmenari uko egin izana.

Autoerantzunkizunik eza hurrengootan nabari da:

- Emakumeek ezagutzen dute tratu txarrak dakartzaten ekintzen sekuentzia eta ez dute ezer egiten beren burua babesteko.
- Ez dira konturatzen dramen bere “papera” betez tratu txarrak faboratzen dituztela.
- Beren erantzunkizuna alde batera uzten dute nortasunik gabeko hizkera erabiliz.
- Hitz egitean, galderak erabiltzen dituzte baieztapenen orde.
- Nahien arteko gatazka sortzen denean, nahiaren bi muturrak aitortu beharrean, tratu txarrak hartzen dituzten emakumeek nahasi egiten dira eta babesik gabe sentitzen dira.
- Zentzugabetasuna: zentzugabetasuna ohikoa da tratu txarrak hartzen dituzten emakumezkoengan. Ohiko jokabide horrek hurrengo ezaugarriok ditu:

a) manipulatzailerik pasiboa;

b) zeharkakoa babesgabekoa.

Tratu txarrak hartzen dituzten emakumeetako askok haurtzaroan ikasi dute norberak nahi duena zuzenean eskatzeak nahi hori inola ere ez betetzea dakarrela. Hortaz, nahiak beteiko badira, norberak nahi duena egin dadin, besteak manipulatu, planeatu, makinatu eta nahasi beharra dago.

Guzti honek gizarte-harremanaren aldaketa larria eskatzen du, batez ere harremanon kalitateari dagokionez.

Heldutasunik gabeko gizakiari babesgabetasuna nabari zaio, inoren menpe egon ohi da “behar den moduan” jokatzeko eta bere bizimodua antolatuz edukitzeko. Terapeuta gogo onez

---

<sup>33</sup> Walker, L., 1978, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar delakoan*, op. cit.

onartuko dute erantzun guztien jabe den eta bere bizimodua birbidera dezakeen borondate oneko despota bat bezala. Laguntza ematen dietenak erreskatatzaileak bailitza jartzen dituzte. Botereari uko egite hau hain normala zaie ez dutela bestelako aukerarik antzematen<sup>34</sup>.

#### PERFIL PSIKOLOGIKOA

Adela Ruiz de la Pradak dioenez, emakumezko biktimaren perfila, tratatu txarrak hartzen dituen emakumearen perfila honelako dateke:

- a) Emakume hauen komunikazio nagusia kezkan datza, bikotean ezarri den alderdi agresiboa estaltzen duen mekanismo gisa. Kezka ororen azpian beti dago eraso bat.
- b) Depresiozko esperientziak ditu, abandonaturik sentitzearen depresioak batez ere. Bakardadeak uztea esan nahi du eta erasoak. Buru-minari eusteko gaitasun txikia.
- c) Antsia eta estura-maila handiak. Haurtzaroko gabeziazko esperientziei lotua.
- d) Nork bere buruari kalte egiteko joerak. Bikotekideak toxikoaz bezala, emakume honek tratatu txarren harremanaz baliatzen da antsia eta depresioa arintzeko, egoerari sakonetik heldu eta sortarazten duen samina jasaten laguntzen duen droga bat bezalakoa da.
- e) Akatsak identitatearen eraketan, ez baitago integrazio-prozesurik. "Objektuzko harremanak"<sup>35</sup> partzialak dira. Identitatea beste pertsona baten bidez (senarra, seme-alabak) eratuko da.
- f) Langile terapeutikoei zaila gertatzen zaie emakume hauekiko harremana eta suminkortasuna, errefusa eta ezintasuna sortarazi ohi dira. Laguntzailea eraso egin eta frustazioa sortzen dien norbait balitz bezala ikusten dute.

#### EMAKUMEZKOEN PASIBOTASUNAREN ARRAZOIAK

Salaketak aurkezteko luzamenduak eta egoera aldatu ez arren etxera itzultzen direnen kopuru nabarmena ulertzeko arrazoiatar hurbilduko gara.

Kanpoko edo gizarteko arrazoi batzuk bereizten dira. Gellesek<sup>36</sup> honako kausa hauek aipatzen ditu:

- Famili indarkeriazko esperientzia zaharrak.
- Heziera-maila.

<sup>34</sup> Little, Linda F.: "Terapia gestalt con mujeres víctimas de violencia en la intimidad", aipamenak Stith, Sandra, M.; Rose, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>35</sup> E. oharra: Jatorri psikoanalitikoa duen terminoa, batzutan harreman pertsonalak edo harreman horien barne-irudikapena adierazten duena. Hemen barne-irudikapena partziala dela adierazi nahi du, ez dagoela bestearen alderdi guztiak integratu eta ezagutzeko gaitasun psikikoa.

<sup>36</sup> Gelles, R.: "Abused Wives: Why do they stay?" *Journal of Marriage and the family* 38, 659, 668zk., aipamenak Walters, M. eta beste. *La red invisible. Pautas vinculadas al género en la relaciones familiares* delakoan, op. cit.

- Lanbide-maila.
- Seme-alaba kopurua.
- Seme-alaba nagusien adina.

Eta trumingerri jarraituz, emakume hauengan oso maiz izaten dira pentsamendu eta sentimendu jakin batzuk, hots:

1. Beren buruarenganako iritzi txarra dute.
2. Senarrek bide onera etorriko direla uste dute.
3. Ekonomi egoera larrian bizi dira.
4. Aitaren ekonomi euskarria behar duten seme-alabak dituzte.
5. Ez dakite beren kabuz aurrera egiteko gai izango ote diren.
6. Dibortzioak estigmatizatu egiten duelakoan daude.
7. Seme-alabak dituen emakume batek aurrera egiteko eragozpen handiak dituela uste dute.
8. Kolpatua izan den emakumeak bere gizona "maite du" eta haren maitasunik gabeko bizitza ezinezkoa iruditzen zaio.
9. Gizonak hilko duelako beldurrez da, edo hurrei nahiz senitartekoei edo bere buruari min egingo ote dielako beldurrez bizi da.
10. Ez du senitartekoen edo adiskideen laguntzarik.

Beste alde batetik, banantzeak, eta emakume havei batik bat, dakartzan arazoak kontutan hartu behar dira. Grosmanek zera dio gai honetaz: "Kolpatua izan den emakumeak askotan nahiago du halako bizimoduari eustea askatasun handiagoa eskainiko dion bizimodu berriari ekitea baino; banantzeak identitate-krisi latza sortarazten du eta horrek atzera egi-tera behartzen du emakumea, zeren gizarte-arauak eta beraren tenoreak familiaz kanpoko bizimodurik ez onartzera baitaramate".

Banatzeko zailtasun honek emakumearen identitatea familiari eta ezkontzari loturik egotearen ondorio zuzena da, hau da, emakumea pertsona mugatua da, gizonezko batekiko loturak mugaturik egon behar duena; ezin imagina dezake ezkontzaz kanpoko bizimodua.

Ez da ahaztu behar, ordea, emakumearen sentimendua bere inguruan antzematen duenaren islada ere badela, eta inguruari bakarreko bizimoduaren estigmatizazioa nabari zaio. Horrela bada, emakumearen suntsigarri den senarraren botereak, aldi berean, eratu egiten du, identitatea ematen dio.

Berdintasunean oinarritutako familiaren kontzeptu berriari jarraitzen dion emakumeak are lotsa handiagoa sentituko du jasan duen erasoa agerian jartzeko tenorean.

## KRISI/SALAKETA DELAKO EGOERAREN DESKRIBAPENA

Emakumeak krisialdian dagoenean egiten du salaketa edo eskatzen du laguntza. Krisi egoera hurrengootan azal daiteke:

- Biktimak jazoera sortarazle edo estualdia esperimentatzen duenean. Hiru dira sortarazle-rik arruntenak:
  - Lesio fisiko aztunak dakartzan tratu txarren gertaera larria.
  - Seme-alabei emandako tratu txarren ondoriozko lesio aztuna.
  - Jipoialdi larri baten ondorioz ikusmena, entzumena nahiz adimena aldi baterako galtzea.
- Emakumeak bere integritatea edo bere seme-alabena urratua gerta daitekeela uste izatearen ondorioz, tentsioa eta estura areagotzen direnean.
- Tratu txarrak hartu dituen emakumeak ohiko metodoez baliatuz arazoa konpontzen ahalegindu arren, asmatu ez eta arazoak bere hartan dirauenean.
- Nahasmendua eta emoziozko ondoeza areagotzen direla, biktimaren samina eta estura pairaezinak bilakatzen direnean.

Halako krisialdi bati aurre egiterakoan, bi alderdi baloratu beharra dago:

a) Hilgarritasun indizea baloratzea, hots, hiltzeko arriskurik ote dagoen. Horren adierazleatariko batzuk hurrengook lirateke:

- Senarraren aldetiko aurreneko.
- Gora-beherarik larriena.
- Azkenengo gora-behera.
- Tratu txarren maiztasuna.
- Etxean armatik ote dagoen.
- Etxeko indarkeria etxetik kanpoko okerreko ekintzen bidetik ote doan.

b) Gertaera horren aurrean emakumeak zernolako erreazioa duen ikustea, hala ezagumenari dagokionez, nola afektibitateari dagokionez.

## TERAPEUTIKA

Ekinbide terapeutiko ezberdinak daude, bakoitzak bere helburuak dituela:

- Etxeko indarkeriazko kasuetan iharduteko estrategiak gomendatzen dituzten idazkiak, eskuarki, indarkeriazko gertaeraren krisi-alderdiei heldu ohi diete. Garrantzi handiagoa ematen diote biktimaren integritateari harremana berreratzeari baino; hortaz, krisia igaro eta indarkeria birpizteko arriskua murriztu bitartean, erasotzailearekin eta biktimarekin bereizirik ihardutea gomendatzen da.

Krisialdian iharduteko gomendioen artean, emakumeekin lan egiterakoan giro babestuez<sup>37</sup> baliatzea eta gizonezkoekin taldean<sup>38</sup> aritzea daude. Gomendio hauen arabera, sexu berekoekin eginiko terapia, banakakoa edota taldekoa ez omen da egokia harik eta krisialdia bukatu eta indarkeriazko jokaera behar bezala kontrolaturik dagoela nolabait ziurtatu bitartean. Emakumezko terapeutei gizonezkoekin lan egitea gomendatzen zaie.

- Terapiaren helburua ezkontza-indarkerian emakumezkoari dagokion rola argitzea da, harremanean duen erantzunkizuna areagotzea, hala bikotekideari dagokionez, nola harremanean agintea duen beste edonori dagokionez.

Emakumeekiko terapia, eskuarki, hurrengoan inguruan zertzen da: buruaskitasuna, haien gaitasunen susperketa, dituzten baliabideak indartzea, lanbide-plangintza, erasotzailearen menpe egon gabe ihardutea, ariketa asertiboa, "counseling" feminista, etab.

Walkerrek (1989) azpimarratu egiten du indartze hori, zera adierazten duela: "... boterea berreskuratu, biktimaren esperientziak aurretiaz landu eta integratu gabe egokitu eta norberaren hazkunderari jarraitu beharrean".

Terapeuta feministek asmatu egin dute egoera hau birdefinitzean: "... beren bizitzako emakumezkoak indarkeriaz baliatuz ere kontrolatzeko eskubidea dutela sinestaraziz sozializatuak izan diren gizonezkoek duten boterea gaizki erabiltzetik sortzen da emakumezkoen aurkako indarkeriaren arazoa"<sup>39</sup>.

Gizonezkoentzako terapiari dagokionez, hurrengo alderdiak azpimarratzen dira: hiraren kontrola, erantzunkizun pertsonala, arazoak konpontzea, aldatzeko kontratuak<sup>40</sup>, estresa murriztea, komunikazioan ihardutea, eta rol sexualen estereotipoen aldaketa<sup>41</sup>.

- Tratu txarrak hartu dituzten emakumeentzako taldeak isolamendua arindu, bakarrik ez daudela ohartu eta emaztearenaz gainera beste identitate bat garatzeko dira.

<sup>37</sup> Weitzman eta Dreen, 1982, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>38</sup> Gondolf, 1985, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>39</sup> Walker, 1989, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>40</sup> Neidig eta Friedman, 1984, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>41</sup> Gondolf, 1985, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

• Azterlan berrietan entrenamendu asertiboarekin sortzen diren arazoak aditzera ematen ditu. Asertibo izatearen ekintzak indarkeria handiagoaren katalizatzaile<sup>42</sup> izaten da askotan. Emakumezkoak asertibitatean entrenatzea inolako aukeraketarik gabe eta aurretiko jokamoldeak kontutan hartzeke edo biktimari erasotzaileari aurre egitearen ustezko emaitzek ez dutela bere buruerregulazioa moldatzen edo konpontzen ezagutzera eman gabe.

Beste alde batetik, aldaketa terapeutikorako eragozpenak aurkitzen dira. Beroriek ezagutzea garrantzizkoa da, laguntzaile bezala ez bada ere, behar bezala ihardun ahal izateko.

• Kezka erabiltzen da nor bere alderdi gatazkatsuetatik askatzeko. Nagusitu egiten den kezka gogamena eragozten du.

• Nahien frustrazioa itxaron eta onartu ahal izateko eragozpena. Aldaketa min psikikoa delauki ezabatzea bailitzan imajinatzen da. "Gauzak egitea"ri ekiteko joera izaten da, hartatik askatzeko.

• Aholku eta orientabide konkretuak eta berehalakoak eskatzen dituzte. Gertatzen denaz hausnartzeari ekidinez. Gogoetarik eza antzematen da eta jokabide oldartsuak dira nagusi<sup>43</sup>.

• Biktimak terapeutaren esku uzten du bere bizitza eta hau aditu bihurtzen da, egin behar lukeena, nola sentitu eta nola aldatu behar litzatekeen dakiena alegia. Okerreko uste horretan erortzen den terapeuta biktimaren kontrol eta erantzunkizunik eza indartzen dutenen zerrendan sartzen da. Helburuetako bat nor bere buruarenganako erantzunkizuna izatea baita, ez errudun sentitzea, erantzule baizik.

#### TRATU TXARRAK HARTUTAKO GIZONEZKOAK

EE.BB.etan eginiko zenbait azterlanetan<sup>44</sup>, tratu txarrak hartutakoen artean gizonezkorik ere badela azaldu da. Indarkeria hau, ordea, oso ezberdina da, askotan gizonarengandik jasotako tratu txarrari aurre egiteagatik sortua. Nolanahi ere, gizonezkoek ez dute L.Walkerrek "tratu txarra hartutako emakumearen sindromea" deitzen duena sufritu, ez dira bestearengandik urruntzen eta indarkeria fisikoa askozaz ere arinagoa da. Sindrome hau agertzen

<sup>42</sup> O'Leavy etab., 1985, aipamenak Stith, Sandra M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>43</sup> Ruiz de la Prada, Alicia, 1992, "Vínculos de dependencia patológica en las relaciones de malos tratos. Experiencia en un Centro de Acogida", Emakundek antolaturiko *Tratu txarra hartutako emakumeen terapeutentzako ikastaroan* arkeztutako ponentzia, Gasteiz, 1993.

<sup>44</sup> Straus eta Gelles, 1986, aipamenak Stith, Sandra M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar*, delakoan, op. cit.

ez denetik, kasu bakanak direla eta zuzenean edo zeharka halakoak ahalbidetzen dituzten jokabide sozialen eraginez sortuak direla esan daiteke.

## **EZKONTIDEAREKIKO TRATU TXARRAREN ERAGINA SEME-ALABENGAN**

Garrantzizkoa da ezkontidearekiko indarkeria nozitzen duten familietako haurren ezaugarriak adieraztea.

Alicia Ruiz de la Prada dioenez, ezaugarriok hauek dira:

### **AFEKTIBITATEA:**

- Buruestimazio eskasa, segurtasunik eza, galduta egotearen sentzazioa. Besteen arreta bereganatzen saiatzen dira.
- Agresibitate handia, bideratu gabekoa, barnekoa.
- Motibazio oso aldakorra, kilikaberatasun nabarmena.
- Mesfidantza eta kanpoko onespina izateko beharrizan handia.
- Gaueko izualdiak, loaldian zehar gorpuztu egiten diren barne-bizipenek eragindako amesgaiztoak.
- Hiper-arduratsuak, txikitatik behartzen zaie erantzunkizunak hartzera eta famili arazoak eurenak balira bezala hartzera.

### **EZAGUMENA:**

- Aditasun labaina, mugimendu handia behar duten ihardueretarako joera dute.
- Adi egoteko eta kontzentraziorako eragozpenak.
- Afektibitatearen eragin handiko pertzepzioa, oso urria eta matiz gutxikoa.
- Kalitate eskaseko pentsamendu logikoa. Arrazoimen urria.
- Emozioak menperatutako egoerak arrazoimenaren bidez gainditzeko ahalmen txikia.
- Informazioari eutsi eta memorizatzeko arazoak.
- Hizkera-mailako arazoak.

### **INTERAKZIOA:**

- Integrazio txikia talde-mailan.
- Interakzio eta elkartruke-jokabideetarako joera txikia.
- Inoren arreta bereganatzeko jokabide nabarmenak.
- Liskar eta errieta ugari etxeko haurren artean.

#### EGITURAKETA (HELDUARO):

- Egozentrismo handia.
- Amarekiko menpekotasun nabarmena.
- Mugak barneratu gabekoa, arauak baitaratzeke.
- Frustrazioa jasateko eragozpen handiak, aurrea hartzeko, planak egiteko eta itxaroteko gaitasun txikia. Haien jokamoldean berehalakoa eta konkretua dira nagusi, horrek erreflexiorik gabeko jokabideetara daramatza.

### TRATU TXARRAREN ONDORENGO EGOERA

#### SALAKETA-PROZESUA

Tratu txarrak direnerako protokolo berezirik ez dagoen arren, bidezko puntuetan, behinik behin, Emakunderen ekimenari jarraituz halako kasuetan diharduten instantzia ezberdinek (polizia, epaitegia, sanitatea) hiru Lurraldeetan erdietsitako akordioak erabil litezke, hots, poliziaren eta epaileen aurrean gertaera berberak behin eta berriz errepikatu beharra ekidinez, biktimen eskubideak hobeto zaindu eta gordetzeko eta erasotzailearen pertsekuzioa eraginkorragoa izateko sinatu zen askatasun sexualaren aurkako delituetarako ekintza-protokoloari buruzko akordioak.

Akordio hauetan adierazten denez, biderik egokiena eta eraginkorrena, ezer baino lehenago ospitale-zentroren batera joatea da. Zentroa bera arduratuko da bai epaileari eta bai auzitegiko medikuari gertaeraren berri emateaz. Erasoa jasan duena aurrea polizia ezberdinetako batera joana balitz, haiek lagunduko dute biktima ospitalera, beharrezko osasun laguntza eman dakion, guardiako epailea eta auzitegiko medikua bertaratzeko abisua egingo duela. Aurkeztutako salaketa, nolanahi ere, gertaerak izan direneko Lurraldeari dagokion Epaitegi Dekanora joango da, non dagokion Argibideetarako Epaitegiari egokituko baitzaio salaketaren tramitazioari jarrai diezaion.

Tramite hauetan astebete, gutxienez, ematen da, gehienetan luzeagoak gertatzen dira. Ez dago arau orokorrik salaketa jartzen denetik Epaitegiak auzitegiko medikuaren azterketarako dei egiten duenerarte igarotzen den denborari dagokionez. Epaitegiaren, bertan pilatutako lanaren eta, jakina, auzitegiko medikuaren –normalean astean behin egiten ditu azterketok– menpe dago; denek egiten dute beren txostena –oso laburra eta beti antzekoa–,

berorretan espedientean ordurako badagoen mediku-oharreen oinarritutako lesioak zenbat egunetan sendatu diren eta beste medikuren batek –gehienetan Gizarte Segurantzako ospitaleren batekoa– luzatu eta pazienteak ekarritako mediku-oharrak agertu ohi dira. Auzitegi-ko medikuak salaketari erantsitako aurreneko mediku-oharraz baliatuz pazienteak ikusi ere egin gabe luzaturiko txostenak agertzen dituzten espedienteak ere aztertu ditugu.

Argi dago tratu txarren kasuetan auzitegi-ko medikuak lesioak eta beraien aztertutasuna (sama-ko lesioa edo besokoa ezberdinak dira erasoaren asmoa eta aztertutasunaren adierazgarri gisa), aztertu ondoren txosten zehatza egiteak izan litekeen garrantzia, baina gaur egun haien lana nola burutzen den ikusita, baldintzak aldatu bitartean ezin espero daiteke hobekuntzarik. Puntu honetan, halaber, ospitaleetan lesioen mediku-oharrak betetzen direnean nabari den ohikeria azpimarratzea ere garrantzizkoa da, eskuarki lesioaren aztertutasuna inolako adierazpenik gabe inprimaketan azaldu baino ez dute egiten eta. Hau ere garrantzizkoagoa da, mediku-ohar hau askotan auzitegi-ko medikuak bere txostena egiteko erabiltzen duen epaibide bakarra izaten dela kontutan hartzen badugu<sup>45</sup>.

Ondoren Fiskaletzak ekingo dio, Espainiako Konstituzioaren 14. artikulua berorri agintzen baitio, ofizioz edo interesatuek eskaturik, justiziaren ekintza susta dezala legezketasunaren, herritarren eskubideen eta Legeak babesturiko herri interesaren alde eta, halaber, Auzitegien burujabetasuna jagon eta gizarte-interesa fabora dezala haien aurrean.

Emakumezkoek, ordea, bestelako egoera bat aurkitzen dute, egoera etsigarria. Fiskalek, tratu txarren aurkari eta arerio izan beharrean, jarrera pasiboaz ageri ohi baitira, errugabetasun presuntzioaren printzipioa gehiegizko zorrotasunez erabiltzen baitute erasotzaileen alde.

Fiskalen jarrera hau ez dakigu barruko sineskeraren edo, ohikeriaren eraginez sortua den, baina, nolanahi ere, emakumeenganako jokaera erasokorren zigorgabetasuna dakar.

Geroago, epaibidean, Zigor Kodeak dioena izan behar dugu kontutan:

Emakumezkoen emandako tratu txarrak Zigor Kodea eguneratzeko ekainaren 21eko 3/1989 Lege Organikoan;

582. artikulua:

“El que por cualquier medio o procedimiento causare a otro una lesión que no precisare tratamiento médico o quirúrgico o sólo exigiere la primera asistencia facultativa, será castigado con la pena de arresto menor, salvo que se tratare de alguna de las lesiones del art. 421.

<sup>45</sup> Maqueira, V.; Sánchez, C.: *Violencia y sociedad patriarcal*, op. cit.

El que golpear o maltratar de obra a otro sin causarle lesión, será castigado con pena de uno a quince días de arresto menor o multa de 25.000 a 100.000 pesetas. Cuando los ofendidos fuesen los ascendientes, el cónyuge o persona a quien se halle ligado de forma permanente por análoga relación de afectividad, o los hijos menores, la pena será la de arresto menor en toda su extensión.”

425. artikulua:

“El que habitualmente, y con cualquier fin, ejerza violencia física sobre su cónyuge o persona a la que estuviese unido por análoga relación de afectividad, así como sobre los hijos sujetos a la patria potestad, o pupilo, menor o incapaz sometido a su tutela o guarda de hecho, será castigado con la pena de arresto mayor.”

Purificación Gutiérrezek dioenez<sup>46</sup>, epaileen jarretetan lehenago ikusezintasunaz esandakoa ikus daiteke. Dena den, bada alderdi bat lege kontuetan adituak ez direnei harrigarri gertatzen zaiena eta garrantzi handia duena, hots, zigor bidearen eta bide zibilaren arteko desberdinasunak tratu txarren sententziei dagokienez.

#### TRATU TXARREN BALORAZIO EZBERDINA ZIGOR BIDEAN EDO BIDE ZIBILEAN

- Zigor bidea: Tratu txar familiarrak ia beti familiaren intimitatean gertatzen direnez gero, zigor bidean oso zaila izaten da haiek frogatzen, hartan frogarako zeharkako bidez gainera froga zuzenak ere eskatzen baitira. Ez da nahikoa ubeldurak, lesioak eta abarrak daukela mediku-ziurtagiri baten bitartez frogatzea, aitzitik, lesioak pertsona jakin batek toki mugatu batean burututako ekintza konkretuaren ondorio zuzena direlako frogak ekarri behar dira. Intimitate familiarrean ez dago senarraren ekintza baten eta lesio horien arteko erlazioa testigatu ahal izateko lekukorik.

- Arlo zibila: Famili indarkeriaren arazoa arlo zibilean ikusten da ezkontideetako batek bestearengandik jasotako erasoetan oinarritutako banantze-eskaria bultzatzen duenean.

Banantze guztietarik %30tik eta 40ra, gutxi gora-behera, emakumezkoek tratu txarren bat jasan dutelako aurkezturiko salaketaren bat dauka<sup>47</sup>.

Dirudienez, epaileek ez dute oso gogoko delitu hauei zigor bidetik heltzea, aldi berean bide zibiletiko banatze-prozesua badago. Zigor bidea eteteko joera dute, zeren, beraiek diote-

<sup>46</sup> Maqueira, V.; Sánchez, C.: *Violencia y sociedad patriarcal*, op. cit.

<sup>47</sup> Martín Corral, Serafín: “Evaluación e intervención con mujeres que sufren agresiones durante los procesos de separación y divorcio”, Emakundek antolatutako *Tratu txarra hartutako emakumeen terapeutentzako ikastaroan* aurkeztutako ponentzia, Gasteiz, 1993.

nez "ez gaude frogarik aurre-eratzeko" "arazo hauek bide zibiletik ebatzi behar dira". Purificación Gutiérrezen iritziz, objekzio hau funtsgabea da, zeren, tratu txarrak direla-eta batzutan bide zibileko banantze-eskaria aurkeztzen bada ere, eskari horrek ez baitio inolako trabarik egiten epai zibilean gertatzen dena alde batera utzita epaitu beharko litzatekeen zigor bideko salaketari.

## TRATU TXARRAREN ZERGATIAK

Atal honen hasieran, tratu txarraren arrazoiei loturiko zenbait topiko azalduko dira, hura zuzitzeko erabiltzen direnak. Horretarako Perla Haimovich-i<sup>48</sup> jarraituko diogu:

- Tratu txar fisikoa "gizonezkoaren izaera"ri datxekio, "emakumezkoaren izaera"ri datxekion tratu txar psikologikoari erantzuteko. "Emakumezkoa arrazionalagoa eta sotilagoa da, adierazpenak egitean". "Probokatu egiten du".
- Gizonezkoek senak, gaixotasunak edo hiraren menpe egoteak eraginda erabiltzen dute indarkeria fisikoa; honek jarrera ulkerorra dakar, erasoaren asmozkotasuna arintzen duena.
- Gizonezkoak herri bizitzan izandako frustrazioengatik, langabeziagatik, lan baldintza eskasengatik eta abarregatik ematen du tratu txarra.
- Emakumezkoaren erantzunkizuna da eztabaidak ekiditea, ez du probokatu behar. Argudio hau errudun izatearen ustean nabari zaie tratu txarrak hartutako emakumeei.
- Gizonezkoak famili arauak bete daitezela zaindu beharreko rola du. Alde horretatik, emakumezkoa haurra bezalakoa da, onbideratu behar dena.

Tratu txarrari buruzko ikerketa, tratu txarren emale denaren ezaugarriak azpimarratzen dituen Eredu Psikiatrikoa deritzan puntutik abiatu eta genero-sozializazioaren eta indarkeria-erikiko tolerantziaren bidez gizarte egituraren garrantzia azpimarratzen duen Eredu Sozio-kulturalera heldu da. Ibilbide horretan Eredu Psikosoziala ere aurkitzen dugu, beronek bi alderdi nabarmentzen dituela: bikote-harreman zailak eta familia barruan ikasitako indarkeria, belaunaldi-indarkeria deritzana. Hiru ereduok dauzkate euren aldeko datuak. Bidezkoa da denak garatzea tratu txarraren faktoreaniztasunera iristeko.

<sup>48</sup> Haimovich, Perla: "El concepto de malos tratos, ideología y representaciones sociales", aipamena Maquieira, V.; Sánchez C.: *Violencia y sociedad patriarcal* delakoan, op. cit.

## EREDU PSIKIATRIKOA

Subjektu erasotzaileari loturiko indarkeriaren kausei<sup>49</sup> dagokie: nortasuna, gaixotasun psiki-koa, alkoholismoa eta drogamenpekotasuna: bere emazteari tratatu txarra ematen dion gizona bere senetik irtenda dago, haren indarkeriazko jokaera jokabide patologikotzat hartzen dela. Hemen sartzen dira alkoholismoa indarkeriarekin lotzen duten ikerketak ere, aldagai bion arteko lotura estua frogatu egin dela.

- Alkohola eta drogak. Ikerlanek etengabe erakutsi dituzte substantziaren batekiko menpekotasunaren eta era guztietako famili indarkeriaren<sup>50</sup> artean dauden loturak, hala ere, erlazio zehatza ez dago erabat argi. Ez da nabarmentzen alkoholismoak etxeko indarkeria dakarrenik eta ez dago esaterik, halaber, menpekotasuna tratatuz, besterik gabe, norbanako baten indarkeria gutxi daitekeenik.

Nolanahi ere, menpekotasun kimikoren bat dutenek, orohar, halakorik ez dutenek baino agresibitate handiagoa erakutsiko dute ziurrenik.

Beste ikertzaile batzuek ere tratatu txarra eta menpekotasun kimikoa elkarloturik daudela baieztatu dute<sup>51</sup>.

- Langabezia. Langabeziak ere areagotu egiten du edozein eratako tratatu txarra agertzeko arriskua<sup>52</sup>. Lana galdu eta besterik ez aurkitzeak eragin suntsigarria izaten du norbanakoen buruestimazioan.
- Burutiko eria. Emakumearen aurkako etxeko indarkeriaren eragina burutiko eriak jota dauden biztanleen proportzioa baino askozaz ere handiagoa da, hortaz, burutiko eria ezin daiteke jokabide horren kausa zuzentzat har<sup>53</sup>.

## EREDU PSIKOSOZIALA

Eredu honetan, berriz bi faktore ezberdin azpimarratzen dira:

- 1) Erasoa ezkontideen arteko interakzio baten ondorioa da. Indarkeria sortarazten duten komunikazio-erak aipatzen dira.

<sup>49</sup> Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia* delakoan, op. cit..

<sup>50</sup> Coleman et al., 1980. Coleman eta Straus, 1983; Rosentiamon eta O'Leavy 1981, Fulmar 1988, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>51</sup> Hilberman; Reuvoice; Gelles; Gayford aipamenak *Violencia contra la mujer en la familia* delakoan, op. cit.

<sup>52</sup> Gil, 1970; Parke eta Collmer, 1975, Petusum 1980; Straus etab., 1980, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>53</sup> *Violencia contra la mujer en la familia* delakoan, op. cit.

Ikuspegi honi lotuta daude gizarte langileen eta poliziaren esperientzetatik jasotako datuak eta erasotzailearen aurkako epai-demanda kenduen portzentaiari dagokion indizea.

Harrera etxeetako esperientzia, aurreko egoerara itzultzen direnen edo etxearekin berarekin biktimaren eta erasotzailearen arteko harremana errepikatzen dutenen indize nabarmena ageri dela. Lotura horren iraupena krisiak eztanda egin arte: krisi honen ezaugarriak eta berriro aurreko oreka.

Tratu txarrak ematen dituzten senarrentzako programak<sup>54</sup>, eraso beste era batez tratatu eta bideratu beharra azpimarratzen dutenak.

Eroankortasunean oinarritutako metodoek emakumearen asertibitate-gaitasun handiagoa nabarmentzen dute, baina harremanaren dinamikari jaramonik egin gabe, metodo hauek, ordea, arriskugarriak gertatu zaizkie emakumeei, famili indarkeriaren areagotzeagatik.

Tratu txarrak hartutako emakumeentzako programek, berriz, eredu sistemikotik, gestaltikotik zein analitikotik, gatazkak konpontzeko estrategiak eta harreman mailako akatsak nabarmentzen dituzte.

2) Belaunaldi-indarkeria: Ikerlan ezberdinek<sup>55</sup> adierazten dute haurtzaroan bizi izandako indarkeriaren eta ezkontza-harremanean eginiko nahiz jasandako erasoen artean dagoen lotura estua.

Gellesek dioenez<sup>56</sup>, norbanakoak indarkeria jokamolde egokia dela ikasten badu, frustraturik edo haserreturik senti dadinean, estresera egokitzeko era bat izango da erasoak. Indarkeriazko jokaera gizartean ikasi eta inguruko baldintza jakin batzuetan onartutako jokabidea dela baieztatu da. Jokabide hauek ondorioengatik edo imitazioagatik ikas daitezke. Ondorioengatik esaten denean, eraso baten bidez zer edo zer lortzen dela ikusten bada, jokaera horri eutsiko zaiola esan nahi da.

Imitazioagatik ikaskuntza, berriz, imitatu denarenganako adiskidetasunagatik, ospe onekoa delako edo behatzailearen defentsarik edo segurtasunik ezagatik gerta daiteke.

Emozio-mailako tratu txar iraunkorra jasan dutelako edo haurtzaroan abandonatuak izan direlako, erdeinaturik sentitu diren pertsona nagusiei maitatuak izan direnei baino zailagoa gertatuko zaie euren seme-alabei burukontzeptu positiboak irakastea.

<sup>54, 55</sup> Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar*, op. cit.

<sup>56</sup> Gelles, aipamena Stith, Sandra M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

Hartman eta Bargess eta Moos-ek<sup>57</sup> diotenaren arabera, pertsonak krisiei aurre egiteko erabiltzen dituzten bideak ondokoen arabera aldatzen dira:

- Tratu txarren aurrean egon izana.
- Harremanean tratu txarrei dagokien rolari eta duten eraginkortasunari buruzko sineskerak.
- Familiako rolak.

Bere aita ama jipoitzen ikusi duten hurrek jokabide horri jarraitzeko joera handiagoa dute indarkeriarik gabeko etxeetan hazitakoek baino<sup>58</sup>.

Hotaling eta Sugarmanek, senar-emaztearen arteko indarkeria igartzeko faktoreak berrikusi zituztenean, tratu txarrak hartutako emakumearen eta tratu txarrik hartu gabekoaren artean zegoen ezberdintasun bakarra hazkuntzan zehar gurasoen/zaintzaileen arteko indarkeriaren lekuko izan ala izatearena zela ikusi zuten<sup>59</sup>.

#### EREDU SOZIO-KULTURALA EDO EGITURAZKOA

Ezkontza barneko indarkeria gizartearen egiturazko alderdien muturra eta azken ondorioa litzateke.

Egiturazko alderdi hauen artean hurrengook aipa daitezke:

- Emakumearen status menpekoa:

Hurrek emakumeak ez direla gizonak bezain baliotsuak adierazten duten mezuak jasotzen dituzte, eta mezu horiek baieztuz joaten dira haiek enpresetako, gobernuko eta lege-sistemako posturik gorenetara heldu ahala.

Tratu txarrak hartutako emakumeek beren beharrianak, eta beren bizitza ere zenbaitetan, ez direla seme-alaben edo senarraren beharrianak bezain garrantzitsuak pentsatzeraino iristen dira. Alde batera utz ditzakete seme-alabek behar adinako ekonomi baliabideak eduki dezaten edo senarra babesteko.

<sup>57</sup> Hartman eta Bargess, 1986; Moos, 1986, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>58</sup> Park eta Collmer, 1975; Straus etab., 1980; Bernard eta Bernard, 1983; Kalmuss, 1984, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>59</sup> Hotaling eta Sugarman, 1986; Collmer etab., 1980; Kalmuss, 1984; Parker eta Schumacher, 1977; Resenbachum eta O'Leavy, 1981, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

Emakumeak jasaten duen menpeko statusa, bestalde, bere tokian gerarazteko erabiltzen den azken baliabideak erakusten digu, indar fisikoa alegia, menpeko gainontzeko taldeekin gertatzen den bezala.

- Indarkeriaren onargarritasuna:

Komunikabideen eta beste bide batzuren bitartez familiaz kanpoko indarkeria onetsi eta go-  
retsi ere egiten duten gizarteetan indarkeria nabarmenagoa ager daiteke familia barnean  
ere.

- Indarkeria gatazka ebazteko "era"tzat onartzea:

Badirudi ideologikoki arau bat nagusitu dela, hots, pertsonen arteko gatazka berez txarra  
eta kaltegarria da, eraso eta tratu txarra ere bai, orohar<sup>60</sup>.

Tratu txarra erasoari, erasokortasunari eta gatazkari lotuta dago, termino hauen arteko be-  
reizketa ez da horren argia.

Ohar hau garrantzizkoa da, bikotean emakumeak jasandako indarkeriaren gizarte-adie-  
razpena aztertzeke ez ezik, horrek subjektuen arteko komunikaziorako jokabide zuzentze-  
rakoan izango duen eragina aztertzeke ere bai. Hiru kontzeptu hauek direla eta, orohar, egi-  
ten den oharpen negatiboa, alabaina, matizaturik ageri zaigu sexu bakoitzaren erabilerari  
dagokionez. Indarkeria eta eraso izaera maskulinoari lotuta daudela aurriritzik abiatzen  
baikara. Positiboki balioztatzen ez bada ere, maskulinitatearen adierazletzat jotzen da.

- Bateragarritasun aldagaitza familian:

Erantzunkizunak bereizirik daude generoari lotutako rolen arabera.

Gizonezkoa, funtsean, ekonomi horniduraz, ordenaz eta gizarte, erazko eta egiturazko ha-  
rremanetaz arduratzen da, eta emakumeari familiaren emozio-mailako eta zaintza-mailako  
eginkizun guztien erantzunkizun osoa dagokio. Genero eta famili eredu horien malgutasu-  
na, berriz, talde bati datxekion agintaritza-sistemari erabat lotuta dago.

Alderdi hau erabat lotuta dago emakumeek, tratu txarra salatu ez ezik, horrek suposatzen  
duen ezkontza eta famili porrota onartu nahi ez izatearekin. Horrek dakarren lotsa eta erru-  
dun izatearen sentimenduagatik eta norbere buruarenganako estimazioaren murrizte latza-  
gatik, gizonezkoa langabezian aurkitzen denekoa bezalakoa, gizartean "ulertu" egiten den  
jarrera eta sortarazten duen emozio-desorekagatik tratu txarren kausa edo aitzakitza aipa-

<sup>60</sup> Haimovich, P.: "El concepto de malos tratos, ideología y representaciones sociales", aipamena Maqueira, V.;  
Sánchez C.: *Violencia y sociedad patriarcal* delakoan, op. cit.

tzen dena, eta emakumeari tratu txarrak ematen zaizkion “erotasun iragankorreko” jokae-  
rak “ulergarri” bihurtzen dituenak.

#### AURRIRITZI PATRIARKALAK

Familia ulertzeko eran duten eraginagatik, aurriritzi patriarkalak lirateke egiturazko kausa nabarmenetariko bat. M. Walters-i<sup>61</sup> jarraituz, bikotean eta familian, bateragarritasuna ulertzeko era “patriarkal” bat dagoela kontutan hartu behar da. Hona hemen laburbildurik:

- Rolak bateragarritasuna, adibidez, dirua irabazi eta emozio-mailako beharrez arduratu. Eredu honetan oinarritzen da hierarkia maskulinoa.
- Gizonezkoei burujabetasuna, errealitatean banantzea, egokitzen zaie; emakumezkoiei lotura, errealitatean menpekotasuna. Bereizketa honek, azken finean, gizona banantzeari, loturarik ezari, burujabetasunari eta, azkenik, gizarte-balorazioari, eta emakumea menpekotasunari, zentzugabetasunari eta gizarte-baloraziorik ezari lotzea dakar.

Kontzeptuzko errakuntza larria da, bestalde, “burujabetasuna” edo “menpekotasuna” bezalako ezaugarriak gizonezkoei eta emakumezkoiei datxezkiela uste izatea, generoa oinarritzat harturik gizarte patriarkalak esleituak baitira. Izan ere, gizonezkoei “burujabetasuna” atxikitzen zaie boterearekin eta emozio-mailatik libre utziz, eta emakumezkoiei “menpekotasuna”, emozio-mailako loturekin eta botererik gabe. Loturarik gabe egotea eta inoren menpeko izatea biak dira egoera akasduak, alabaina, menpeko izatea askozaz ere larriagoa da biziraupenari begira loturarik gabe egotea baino.

Gaur egun, iraganaldi batean gaude, baina aldaketarik gehienak jokabidezkoak dira eta emakumezkoek lan munduan sartzeari loturirik daude, hots, familiaren ekonomi zamaren zati baten ardura hartu dutela beren gain. Hau horrela izanik ere, kasu urri batzuk salbuesita, gizonezkoen eta emakumezkoen oinarritzko jarrerak ez dira aldatu.

Aldaketa hauek, haurrak zaintzeko irtenbide egokiaren bidez eta seme-alaben hazkuntzari lehentasuna eta gizarte-statusa emanez sortaraz litezke.

Aldaketa hau gertatuko bada, gizonezkoek seme-alaben zaintzaren erantzunkizunaren zati bat beren gain hartu, horretarako ekonomi laguntza emanez eta eginkizun horretan esku hartuz, eta beren indar eta nekearen helburu nagusia etxetik kanpoko lana delako ustea alde batera utzi beharko dute. Aldaketa honek, jakina, status, botere eta diru-galera ekarriko lieke gizonezkoei<sup>62</sup>.

<sup>61</sup> Walters, M. eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares*, op. cit.

<sup>62</sup> Walters, M. eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares*, op. cit.

Egoera honen alternatiba, berriz, eginkizun instrumentalak eta adierazpenezkoetan sexu bietakoak aritzen direnean gertatzen den rolen simetria datza.

Horretarako, ordea, gizonezkoek edukitzeari eta diruari uko egin, eta gutxiago ikusi eta miresten diren eginkizunetan ihardun beharko lukete, eta emakumezkoen mantendua izatearen jokamoldea ere aldatu beharra legoke.

Gizonezkoaren eta emakumezkoaren arteko harremanari buruzko ikuspegi sistemikoak elkarmenpekotasuna aipatzen du. Testuinguru honetan, heldutasun edo zentzutasuna burujabetasuna eta loturaren arteko konbinazioaz definitzen da.

#### TRATU TXARRAREN FAKTOREANIZTASUNA

Orain arte azaldutako guztia laburbilduz, tratu txarra era askotako faktore-multzo batengatik sortu eta mantentzen dela esan daiteke. Ondoren agertzen den azalpenean, Grosman, Masterman eta Adamok<sup>63</sup> emandako perfilak eta Stiith, Rosen eta Williams-ek<sup>64</sup> eskainitakoa integratzen dira:

- "Neutralizatu" egiten duten aginkeriazko famili sistemai positiboki loturiko indarkeria.
- Famili sistemaren hierarkiak finkoagoak diren heinean indarkeria ere handiagoa da.
- Famili talde baten kideen burujabetasun-maila txikiagoa den neurrian, indarkeriaren proportzioa handiagoa da.
- Interakzioak zenbat eta gogorrago, orduan eta indarkeria gehiago familian.
- Familiari eta generoari buruzko balore tradizionaletikiko eta berorietatik eratorritako estereotipoekiko atxikimendua nabarmenagoa den neurrian, indarkeriazko jokaerak sortarazteko aukera gehiago dago.
- Genero-estereotipoak ezagutzeak zerikusi zuzena du indarkeriarekin, sistema desorekatu egiten baitu.
- Kanpoko ingurunearekiko interakzioa areagotu ahala, indarkeriazko ekintzaren desnaturalizazio dator.
- Kanpoko ingurunearekiko interakzioa areagotzen den neurrian, salaketa errazagotu egiten da<sup>65</sup>.
- Estres handia egungo eguneroko bizimoduan.
- Harreman-aginpide desegokiak<sup>66</sup>.

<sup>63</sup> Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia* delakoan, op. cit.

<sup>64</sup> Stiith, Sandra M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>65</sup> Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia* delakoan, op. cit.

<sup>66</sup> Stiith, Sandra M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar*, op. cit.

## ARRISKUAREN ADIERAZLEAK

Atal honen laburpen gisa eta ondorio gisa, jarraian bai neskek eta bai mutilek izan ditza-  
keten arriskuen zenbait adierazle azaltzen dira:

- NESKen "arriskuak":
  - Gazteegi ezkontzekoa.
  - Ekonomi burujabetasunik ez edukitzekoa.
  - Erasokortasunez agertzen ez jakitea eta hura kezka adieraztekoa.
  - Bere ekintzen arduradun ez sentitu eta ez izatekoa.
  - "Irtenbide automatikoak" bilatzekoa, horietako bat ezkontza izan daiteke.
  - Egiazko gertaerak ukatzekoa, hala nola, bikotekidea oso eskuziboa dela, bera isolatze-ko joera duela, tratu txarren emale den gizonezkoaren ezaugarriak dituela.
  - Ingurunetik isolatzekoa.
  - Gauzak "argiegi", zuri beltzez, ikustekoa, polarizaziorako joera adierazten duena.
- MUTIlen "arriskuak":
  - Abandonatu-sentimenduei edo buruestimazio txikiari oldarrez aurre egitekoa.
  - Bere burua ongi ez ezagutzekoa hainbat alderdiri dagokienez, esate baterako: Zeinekin haserretzeko joera duen ezusteren bat sortzen denean, nola erreakzionatzen duenean desi-lusio edo porrotak direnean, nolako usteak dituen bikoteko harremanean emakumearen ro-lei buruz eta rol tradizionalen buruz (haien aldatzeaz ez ezik, haietaz jabeturik izan daite-zela), zer sentitzen edo pentsatzen duten "itxura bikoitzaz".

## 2.3 FAMILIA ETA ETXEKO INDARKERIA

Atal hauek idazterakoan hainbat helburu dira gogoan. Errealitateari heltzeko asmo oroko-rra aintzat harturik, garrantzizkoa dirudi ezkontzako indarkeria bazterrekotzat eta bitxike-riatzat jotzen duen eta protagonistak estigmatizatzeko joera duen estereotipoa haustea. Argi utzi behar da familiak, edozein familiak, talde gisako eraketak denetik, eginkizunak dituen bezalaxe arriskuak ere badituela, eta arriskuetaiko bat indarkeria dela. Eta arrisku hau ez dela "zenbaitetan" bakarrik gerta daitekeena, noizbait, nolabait, zenbait eraginen pean, fa-milia guztietan gerta daitekeena baizik.

Famili errealitatearen alderdi hau ez dator bat zenbait topikorekin, berauek, topiko izanik, esperientziaren alde bat jaso, baina, aldi berean, beste zenbait alde ezkutatu edo itxuraz aldatu egiten baitituzte.

Lan honen bigarren atalean tratatu txarra jorratzen da eta 2.4. azpiatalean bikotea, berorretan normaltasunaren erreferenteak, hala esaterik badago, azaldu nahi direla.

Atal hau, berriz, bi horien bitartekoa izatea nahi da, familiaz aritzekoa, berorren ezaugarriak eta funtzionamendua, hala osasuntsua denean, nola indarkeriazkoa denean, azaltzekoa, eta guzti hau “bizitzarako gaikuntza” baten barruan sarrerako gomendioei jarraituz.

### 2.3.1

#### **FAMILIAREN EZAUGARRIAK INDARKERIAREN SORGUNE GISA. FAMILIARI BURUZKO TOPIKOAK**

Gelles eta Strausek<sup>67</sup> diotenez, polizia eta armada salbuetsiz gero, familia dateke gizartetaldetik gogortzaleena eta etxea, berriz, gure gizarteko gizarte-gunerik gogortzaleena. Pertsona batek arrisku handiagoa du bere etxean eta bere familiakoren batek kolpatua edo erahila izateko beste edozeinek eta edonon baino. Familiak indarkeriaren eraginpean erortzeko arrisku berezia dutela diote eta arrisku hau hamabi ezaugarriengatik eratorria omen da:

- Denbora delako faktorea. Elkarrekin denbora gehiago ematen dute gainontzeko taldeekin baino.
- Interes eta iharduera-multzo hain zabala izanik, gatazka eta liskar asko sortzen dira.
- Harremanaren intentsitatea. Lotura emozionala estuagoa da eta, ondorioz, gatazkaren bat sortzen denean, erantzuna familiaz kanpokoa baino gordinagoa izan ohi da.
- Familiako kideek hartutako erabakirik gehienak gatazkaren baten ondoriozkoak izaten dira. Kide baten erabakiek beste kide batzuren askatasuna, iharduera ezberdinak burutzeko alegia, urra dezakete.
- Familia batekoa izateak besteen jokabidean eragina izateko eskubidea dakar.
- Adin eta sexu-heterogenotasuna, kultur gatazken sortarazle bihurtzen da, kultura zentzu zabalean hartuta.

<sup>67</sup> Gelles eta Straus, 1979, aipamenak Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia* delakoan, op. cit.

---

- Familian, beste talde batzutan ez bezala, rolak ezaugarri biologikoen (adina) arabera asignatzen dira eta ez gaitasunen edo interesen arabera. Horrek gatazkak eta gaitasuna eta rolaekin bat ez etortzea erakar ditzake.

- Famili intimitatea. Famili intimitate handiegiak gizartearen kontrolaz kanpo eta familia barneko gatazkari aurre egitea ahalbidetzen duen kanpoko laguntzatik at utz dezake delako familia.

- Seme-alabek nahitaez dira familiakoak eta, horrenbestez, gatazka nabarmena denean, familia uzteko eragozpenak sortarazten dituzten lotura sozial, emozional, material eta legezkoak izaten dira.

- Famili bizitzaren zikloari datxekion egitura-aldaketa etengabeen ondorioz, estres-maila handia dago. Ziur aski, familia izango da, talde guztien artean, estres sortzailerik larrienak gertatzen direneko taldea.

- Oso erroturik dauden kultur arauak direla medio, gurasoek indar fisikoaz baliatzeko eskubidea omen dute beren seme-alabekiko harremanetan eta ezkontza-lizentzia ere tratu txarrak emateko lizentzia bilakatzen dute.

- Sozializazioa indarkerian. Zigor fisikoaren bitartez, maitasuna indarkeriari lotzen ikasten da. Ikasita hau gerora ezkontza-harremanean proiektatzen da.

Azaldutako alderdi hauetako askok badu bere alde ona eta beharrezkoa, baina bidezkoa da gogoeta bat egitea eta familiari buruzko ikuspegi hau kontutan hartzea, hainbat estereotipo hankaz gora uzten baitituzte, esate baterako:

- Familia “maitasunezko aterpea” da.
- “Familiaren batasuna” tirabira guztien gainean dago.
- Familian gertatzen den guztia kanpokoekin konpartitzen ez den sekretua da.
- Familia guztiak dira “berdinak”, ez oso bereiziak.

### 2.3.2

#### FAMILIA. DEFINIZIOA. FAMILIA OSASUNGARRIAREN FUNTZIO ETA EZAUGARRIAK

Familia indarkeriaren sorgune bihurtzen duten famili bizimoduaren hainbat alderdi azaldu dira. Ondoren, familiaren definizio bat, bere eginzikunak eta, azkenik, familia osasungarrien ezaugarriak agertzen dira.

Familiaren definizio bat honako hau izan liteke: Harremanak estuak, aurrez aurrekoak eta egonkorrak eta, gainera, burututako funtzioak eta ez legezko epatze hutsak mugatzen duen ahaidetasun-lotura dagoen oinarritzko taldeetan gauzatzen diren pertsonarteko harremanak. Famili funtzioek biologi ugalketaren, familiakoen babes psikosozialaren eta sozializazio-prozesuaren bitartez kulturaren baloreak irakastearren zerbitzura egon behar dute<sup>68</sup>.

Babes psikosoziala ulertzeko era zehaztu beharra dago. W. Bionen dioenez, eta familia aldi baterako antolaketa eta egonkortasuna duen taldetzat harturik, taldea eginkizun amankomuna burutzeko elkartzen da, familiaren eginkizuna seme-alaben hazkuntza dela. Talde bakoitzak aurkitu behar ditu, orohar, pentsatzea, hitz egitea eta eztabaidatzea/jendaurrean agertzea eskatzen duen eginkizuna burutzeko ahalbideak. Ildo honetatik, familiak hurrengo eginkizunok bete behar ditu:

- Antsiari eutsi (buru-samina). Antsiari eustea, mentalizazio-prozesuak faboratzen dituzten irtenbide ez automatikoen bilaketari loturik dago.
- Zaintza nagusi deneko harremanak bultzatu.
- Itxaropena sortu. Honek ahalegina nahia erdiesteari lotu ahal izatea dakar: zer edo zer egin beharra dago zer edo zer alda dadin.
- Pentsamena bultzatu (Alicia Ruiz de la Prada, 1992)

Sozializazio-funtzioari dagokionez, famili unitateak gure banakako eta gizarte-mailako izaera etengabe mugatzen duten esanahi eta ekintzen abiapuntu eta helmuga izatean datza. Famili taldeek eragin afektibo eta ideologiko nabarmena dute norbanakoengan beronen bizitza osoan zehar. Famili talde bakoitzak bere kulturaren baloreei buruzko interpretazio berezia du eta horrelaxe transmititzen ditu bere kode berezietan baliatuz eta taldeko interakzio-rako arau bereziak sortaraziz.

Famili egitura, sistema gisa, bizitzaren zikloko etapa ezberdinak betetzen diren heinean etengabe aldatzen delako balizkoa hartzen da oinarritzat. Famili egiturak hurrengook eskaini behar dizkie familiakoei:

- Iraunkortasuna familiako izateari dagokionez.
- Hazkuntza bereizketari dagokionez.

Horrela, bereizketa eta batasun beharraz, norbanakoa, aski batua den famili talde bateko kide izatearen segurtasunaz, pixkanaka-pixkanaka gainontzekoengandik bereiziz doa eta, aldi berean, bere identitatea murriztuz. Prozesu honetan zehar, jatorrizko famili taldearen

<sup>68</sup> Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia* delakoan, op. cit.

funtzionamendurako funtsezkoa zena ez hain funtsezko bilakatuz joango da, harik eta, azkenean, harengandik bereizi eta sistema berria eratu arte, eginkizun berberak beteko dituen sistema alegia.

Famili zikloan halako bilakaera bat gertatzen dela esan daiteke, hots, "izatera beharturik egote"tik, "izateko baimena izate"ra eta bereizketaren biteratez "izan ahal izate"ra.

Familia osoak sorturiko harreman bereziak mugatzen ditu harremanak izateko era, unea eta pertsonak, zer den zilegizkoa eta zer debekatua. Muga hauek, hala ere, taldearen eta taldekideen beharrianak aldatuz doazen neurrian aldaraziak izan daitezke. Ahalbide hau bereizketarako ahalbideei lotuta dago.

Batzutan ez dago inolako aldaketarik, funtzioek bere hartan diraute, tinko. Halakoetan, taldekideen elkarbizitza funtzio-mailara mugatzen da, hau da, "izatera beharturik" edo "izateko baimenaz", hots, besteen arabera.

Esan nahi baita familiaren funtzioek burujabetasuna faboratu edo eragotzi ahal dutela.

Banakotasunari dagozkion arloak zaintzen direnean elkarrenganako onura izaten da.

- Familia osasungarrien ezaugarriak:

- Elkarrekikoa. Auzokoekin eta bestelakoekin harremanak dituzten familien etxeetan indarkeriazko arazoak izateko arrisku txikiagoa izan ohi da.

- Komunikatzailea. Komunikazio argi eta zabalak famili indarkeriari aurrea hartzeko baliabideak sortarazten ditu.

- Kohesionatua. Familiakoen arteko lokarri emozionalak, alegia. Gehiegizko kohesioak antolaketarik eza dakar, kohesio urriak, aldiz, elkarri ez ulertzea.

- Moldagarria. Moldagarritasuna familiari aldaketen aurrean nabari zaion malgutasun-mailan datza. Gehiegizko moldagarritasunak kaoera darama, gutxiegi izateak gogorkeria dakar.

Familiaren kohesioa eta moldagarritasuna estresari aurre egiteko eta eragozpenak gainditzeko baliabide garrantzitsuak direla ematen du<sup>69</sup>.

- Hierarkikoki orekatua. Hierarkia familiakoen mailaketari dagokio. Familia osasungarrietan muga zehatzak daude seme-alaben eta gurasoen artean.

---

<sup>69</sup> Olsmetal, 1974, aipamena Stith, Sandra M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

Gurasoen arteko mugak ere garrantzizkoak dira ezkontidearen aldetiko abusuari aurrea hartzeko. Coleman eta Straus-ek<sup>70</sup> diotenez, boterea senarraren eta emaztearen artean banaturik dagoen etxeetan indarkeria eta famili gatazka gutxiago izaten da.

### 2.3.3

#### INDARKERIA NABARI ZAION FAMILIAREN EZAUGARRIAK

Indarkeria nabari zaien familiei dagokienez, aurrena, familiakoen babes psikosoziala nolabait aldaturik dagoela ikus daiteke. Lehenago aipaturiko Alicia Ruiz de la Pradaren iritziz, zera gertatzen da:

- Pertsekuzio-ahalmen guztia helburu-egoera bati egotziz eusten zaio antsiari, hura da errundun bakarra, hots, ez zaio eusten, ezezaguna eta kontrolaezina den zerbaiti egozten zaio.
- Maitasunean oinarritutako harremanen ezarketa bultzatu beharrean, gorrotatzeko gaitasuna bultzatzen da.
- Itxaropena sortarazi beharrean, etsipena sortzen da, norberaren kontrolpean ezer ere ez dagoela, ezezagunak diren beste faktore batzuren menpe gaudela alegia.
- Pentsamena bultzatu beharrean, ezkutaketa, nahasmendua eta gezurra bultzatzen dira. Erantzunkizun guztia kanporatzeak barne-kontrolik ez izatea dakar, eta beti kanpotik kontrolatu beharra.

J. Lantey-en<sup>71</sup> kontzeptualizazioetan, familia hauek familia ahulak dira. Nahasmenduak nabari dira, ez erregularotasunak. Hor haurrak, hau ala beste eginik ere, ez dauka bere ekin-tzen ondorioak nolakoak izango diren auresaterik eta, horrela, ez inplikatzeko sortuko da harremanaren ordezkari gisa, sufrimendua nolabait aldentzeko diona, baina, aldi berean, hazkuntzaren aurkako ekintza bihurtzen dena, zeren haurrari haziz eta bere esperientziak antolatuz joan dadin galerazi eta afektiboa eta ezagumena egokiro integratzeko gaitasuna eragotziko baitio. Interpretazio hori izan ezik, memorizazio mekanikoa soilik izan daiteke, benetako jakintzarekin apenas zerikusirik duena.

<sup>70</sup> Coleman eta Straus, 1983 aipamenak Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia* delakoan, op. cit.

<sup>71</sup> E. oharra: Kausalitatearen nozioa, norberak kontrola dezakeen ekintza gisa, ezarriko bada, haurrak kanpotik jasotako informazioan erregularotasun-kopurua nahasmendu-kopurua baino handiagoa izango da. Hots, hasieran ekintza bidez bakarrik jasotzen den informazioa, gerora berriz ere jaso beharko dela egoera berdintsuetan.

Sozializazioari eta ikasten diren baloreei dagokienez, belaunaldi-indarkeria jorratzean ere aipatu da ezkontidearekiko tratu txarraren kausatzat.

- Isolatua. Gizartearekiko isolamendua haur-abusuari, ezkontidearekiko tratu txarrari eta zaharrekiko tratu txarrari lotuta dago. Steele, Strauss etab., Kosterg eta Young-ek<sup>72</sup>, adierazi zutenez, indarkeriazko jokaera oso nabarmena duten familetako %85 eta indarkeriazko joakera nabarmena dutenetako %83k ez zuten harreman iraunkorrik familiaz kanpoko pertsonekin. Isolamendu honek familiakoen elkarlotura desegokia faboratzen du.
- Komunikaziorik eza. Abusu sexualak dituzten familiengan nabari diren jokabideak dira<sup>73</sup>: ezkutuko jarrerak. Etsaikeria. Lotura bikoitzeko komunikazio-ereduak<sup>74</sup>.
- Tratu txarraren sortarazleak. Gizonezkoen aldetik emakumeenganako indarkeriaren areagotzea haurdunaldian. Semea edo alabaren jaiotza, estres-une garrantzitsua, tratu txarrak areagotzeko arrisku handiagoa.
- Gogorrak. Interakzio gogor hauetan –dio R. Piperrok<sup>75</sup>– familiakoen arazo nagusia ez da bakoitzaren burujabetasuna lortzea, besteak berea lehenago eratzeari baizik; horrek, mugarik eza dela medio, norberaren izakerari eraso egitea lekarke, joaterik ez dagoela ezartzen duen funtsezko araua nagusitzen da.
- Muga argirik gabe. Identitateak baiezteko ezintasuna dela eta, muga argirik eskaintzen ez duten interakzioak; arlo pertsonalak eta interakzioa nahasi egiten dira eta norberaren tokiaren galera agertzen da zilegizko izatearen modalitate bakarra bailitza. Bereizi gabeko bizimodua nagusitu bada, bakoitzaren eremuak gero eta murriztagoak izango dira, eta sistema gogorragoa eta mugiezinagoa.

## 2.4

## BIKOTEA ETA GATAZKA

Atal honetan bi asmo nabari dira: batetik, topikorik arruntenak erakutsi eta zerrendatzea eta, bestetik, zer den bikotea, lotura hori nolako parametroez egituratzen den eta antzerakoak

<sup>72</sup> Steele, 1975; Straus etab., 1980; Kosterg, 1983; Young, 1964; aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>73</sup> Trepper eta Banett, 1986; aipamenak Stith, Sandra M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>74</sup> “Doble vínculo: una situación en la que haga lo que haga una persona no puede ganar”, definizioa harturik Wynne; Simon; Sterling: *Diccionario de terapia familiar*, Bartzelona, Gedisa, 1988.

<sup>75</sup> Pipherro, R., aipamenak Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia* delakoan, op. cit..

izanik ere ezberdinak diren beste lotura batzuren aldean, adiskidetasun-lotura eta maitale-loturaren aldea alegia, zeintzu diren beronen berezitasunak jakiteko erreferente batzuk azaltzea.

Garrantzizkoa da, egiturazko erreferenteaz gain, denborazkoren bat ere ematea "bikotearen prozesua"z, alderdi kronologiko eta bilakaerazko hori azpimarratuz.

Azkenik, gatazka lehenago ere aipatu bada ere, garrantzizkoa da hark duen eragina azpimarratzea eta baita bikote baten hazkuntza prozesuan eta norbanako bereiziaz eta burujabeak konpartituz eta elkarri lagunduz lotzen direneko ezkontza osasungarri batean betetzen duen tokia ere.

#### 2.4.1

#### ZENBAIT TOPIKOREN BERRIKUSPENA

Garrantzizkoa da topikoak azaldu eta kritikoki aztertzea. Gizonezkoari eta emakumezkoari buruzko mitoak eratzen dituzten topikoak agerian jartzea, errealitatearen ezagupena eragotzi eta ordezteko funtzioa betetzen baitute.

Ana M.<sup>o</sup> Fernándezek dioenari jarraituz, gizarte-jokaera orokortzaile eta esentzialisten sistematzat mito bat ezartzean, gizonezkoak nahiz emakumezkoak zer izan behar duen ez ezik, zer den ere ezartzen da.

Borondate totalitario hau indarkeria sinbolikoa da eta horrelaxe dihardu, ez baitie desberdintasunei tokirik uzten eta, horrenbestez, dibertsitateari eraso egiten baitio.

Desberdinaren sentigaberazpenak haren eraketa sozio-historikoaren sentigaberazpena dakar, errealitateak berezkoak eta ahistorikioak eta, beraz, aldaezinak balira bezala interpretatuz<sup>76</sup>.

Bikote-arloko aurreneko esperientziei aurre egiterakoan; ideologia ezberdinetatik datozen hainbat topikori jarraitzen diete subjekturik gehienek. Batzuk komunikabideetatik, aldizkarietatik, telebistatik, komikietatik, zinematik, literatura erromantikotik eta abarretatik datoz; eta beste batzuk, gizartean dabilzan iritzietatik:

- Maitasuna, zorion-iturria da, arazo guztiak aldatu eta konpontzen dituen hordigarria. Hots, egoera idealizatua, "etorri", "hartu" "gertatu" egiten dena, beti ere, pasiboki jasotzen dena. Bikote-harremanarekin eta maitasunarekin identifikatzen den maitemintzeari dagokio.

<sup>76</sup> Fernández, Ana M.<sup>o</sup>: *Las mujeres en la imaginación colectiva* delakoan, op. cit.

• Kontzepzio idealizatu honen "atzeko aldea"n, nolabait esateko, alderdirik ilunenak daude: maitasuna tranpa bat da, konpromezua harrarazten dizun eta "harrapatua" gertatzen zaren bikote-harremanerako harrapagailua alegia. Inork ez daki ongi nola baina esperientziarekin hondatu edo hautsi egiten da, norberaren kontroletik at dago. Idealizatua izan den zerbaiten sortarazitako desilusia eta debaluazioaren esperientzia hartzen da. Idealizatua den oro ez zaio egunerokoari egokitzen.

• Bikotea familia sortzeko era da. Familia da gizakien bizimodu "normala"<sup>77</sup>. Seme-alabak jaiotzeko tokia da. "Jasan", sufritu eta ahalegindu beharra dago. Hemen, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak azpimarratzen dira, hierarkizatu egiten direla; ezkontidearekiko harremana baino garbiagoak eta desinteresatuagoak dira, "goragokoak", hura biologikoagoa, hutsagoa eta baliogabetuagoa baita bikoteari buruzko kontzepzio honetan. Beraz zaharkitua eta modaz kanpoko irudi lezake, edo ideologia jakin batzuetara mugatua, baina praktikan ez da horrela. Generoaren arabera rol banaketaren statu quo-ra oso ondo egokitzen den kontzepzioa da. Berorren indarra dakusagu zenbat jasan eta sufritu behar den ez jakitean, eta salaketa aurkeztu artean tratatu txarrak jasaten emandako denbora-proportzioan. Horren eragina dakusagu, halaber, bikoteko tratatu txarren eraginik pairatzen ez duten "seme-alabengatik" burutzen ez diren banantzeetan ere.

Balizko honek, familia baten beharra, gizaki orok, gazte zein zahar, duen babes beharra hartzen du aintzat. Alderdirik atzerakoienez nahiz umekeriaz ihardun ahal izateko tokiaren beharra.

Alderdi hau, askotan, seme-alabei egozten zaie, helduen beharra ere badela kontutan hartzeke, bakoitzaren egoeraren eta gizarte-egoeren arabera batzuek besteek baino behar handiagoa badute ere.

Beste alde batetik, gizarte-ingurune gogorrago, zailago eta zorrotzago batek, askotan esaten den familiaren "sendotzea" ekarri beharrean, famili mikrokosmosaren beharra sendotzen du etengabe guardian edo adi-adi ez egotea ahalbidetzen duen tokia gisa.

• Ezkontza baten hausturak, beti ere, erabateko porrota suposatzen duelako kontzeptualizazioa. Hori horrela balitz, familia bat eratzen duen bikotea beti izango litzateke lorpen bat, nola eratu den, zertarako eta haren baitan gertatzen dena berdin zaiola.

Balizko honek, igurikapen pertsonala baieztu ez eta, beraz, ezin buru daitekeenean gertatzen den porrotaren esperientzia erakusten du. Banantzea edo dibortzioa den guztietan ger-

<sup>77</sup> E. oharra: Hemen "normala" konbentzionala eta bakarra da.

tatzen da. Edo gutxienez, hori horrela dela aitortzen da. Ikuspegi arrazionalago batetik, porrot-sentipenak dagokien tokian ipinita, igurikapenak, agian, okerrak zirela pentsa daiteke eta hala onetsi eta irtenbidea aurkitzeko gai izatea lorpen bat dela, edo agian, haustura norberaren hazkuntzari lotuta egonik, ez duela zerikusirik bikotekidearekin<sup>78</sup>.

Hala eta guztiz ere, guzti honek zera eskatzen du, bikoteko lotura giza-loturatzat hartzea, bikotekide bakoitzak bere balore, ezagupen, jarrera, trebezia eta igurikapen-multzoa dakarreneko lotura. Hau da, prozesu honen alderik aktiboena azpimarratzen da. Eta prozesutzat hartzen da, denboran zehar gertatzen den zerbait bezala.

- Aurrez aipaturiko eredu guztien baitan dago bikotea denboraz kanpo gertatzen den zerbait dela, hots, ez dagoela bizitza-ziklo baten menpe. Izatekotan, denbora hura ahuldu edo sendotzeko igarotzen da seme-alabak etortzen diren neurrian.
  - "Topikoen" berrikuspen honetan bada ezinbestekoa den beste alderdi bat, hots, faktore sexuala bikote-harremanean. Azaleko ikuspegi batetik, estereotipo guztiak azalekoak baitira, "harreman sexuala" bikote-harremaneko funtsezko faktoretzat hartzetik, erabat gutxiesteraino doa. Bakoitzaren berezitasunak aintzakotzat hartu gabe eta berorien barruan intimitatea bereizi gabe, "harreman sexualen" sinonimotzat hartzen den intimitatea alegia.
- Aurrez esandako kontutan harturik, ondoren bikoteari buruzko funtsezko kontzeptu batzuk definitzen dira.

## 2.4.2

### HARREMANAREN DEFINIZIOA. PARAMETROAK

"Ezkontza-bikotea" delakoak sexu ezberdineko bi pertsonaren arteko loturazko egitura bat adierazten du une jakin batetik aurrera, hots, hura bere osotasunean eratze konpromezua hartzen dutenetik, bete dezaketen ala ez aintzat hartu gabe<sup>79</sup>.

Bikoteak dituen elementu definitzaileen arabera, berezitasun handiko unitate edo egitura bat dela esan daiteke. Ikuspegi ebolutibo eta konbentzionaletik familiaren jatorritzat hartu ohi zaio tradizionalki.

<sup>78</sup> Martín, Peter A.: *Manual de terapia de pareja*, Buenos Aires, Amorrortu, 1976.

<sup>79</sup> Berenstein; Puget, *Psicoanálisis de la pareja matrimonial*, Buenos Aires, Paidós, 1988.

---

Hasiera batean, familiarteko bakoitzak bere mundu psikikoa ekartzen duela kontutan hartu behar da, eta mundu berezi horren osagai garrantzitsuetako lehena jatorrizko famili loturekin nola ebaki den izaten da.

Gizarte-antolamendu orok du ezkontzazko bikote-eraren bat. Levi Straussek familiaren has-tapenari datxezkion berezkotasun aldaezin batzuk aipatzen ditu.

## PARAMETROAK

Lotura baten parametro definitzaileek barrutia, haren zentzua eta díada delakoan dabilzan adierazleak mugatzen dituzte. Parametro berberak, baina kalifikazio ezberdinez, beste iza-  
era bat ematen diote erlazio diadikoari, adiskidetasunezko harremanarekin edo maitaleen  
artekoarekin erkatzean ikusiko dugun bezala.

Bikotea definitzen duten parametroak: egunorokotasuna, partekaturiko bizi-proiektua, ha-  
rreman sexualak eta joera monogamikoa.

### EGUNOROKOTASUNA

Ezaugarri nagusitzat eguneroko elkartrukeak dituen batasun denborazko eta berezi batean  
oinarritutako egonkortasun-mota adierazten du.

Denborazkoa besterik ez denak baino konplexutasun handiagoa du.

Egunorokotasunak erritmoak bezalako ekintza egonkorretan oinarritutako harreman-modali-  
tateak eragiten ditu. Aipatu erritmoetan artíkula daitezke bikotekoen elkartzeak edo ez el-  
kartzeak. Eguneroko harremana loturaren toki sinbolikoa da, delako egunean bete egiten da  
ala ez.

Loturaren egonkortasuna adierazteko era ezberdinak daude, adibidez: egonkortasuna, haz-  
teko eta egoera berriei aurre egiteko ahalbidearen sostengua, edo egonkortasun inauska-  
rria, asperraldia edo unadura.

Ezegonkortasuna, berriz, aurkikuntza gisa adieraz daiteke bakoitzaren bizitzaren ausazko  
aldea ezagupidearekin batera gertatzen denean. Hau da, hausnarketa eta esperientziaren  
ikaskuntza edo bizitzeko ezinezkoa den ezegonkortasunaz bizi daiteke.

### PARTEKATURIKO BIZI-PROIEKTUA

Geroaren dimentsioan kokaturiko erdiespen edo lorpenak batzean, eta bikotean birbatzean,  
datza.

---

Bikote baten aurreneko bizi-proiektua loturazko espazio-denbora bat erdibanatzean datza, elkarbizitzarako konpromezu bat dago.

Bikote batentzako etorkizunerako proiektu-eredu paradigmaticoan seme-alaba sinbolikoak edo benetakoak sortzea sartzen da.

Erdibanaturiko bizi-proiektuak egunorokotasunerako pasabide etengabe irekia du ezaugarritzat, eta horrek proiektu berri bat birformulatzea dakar.

Une hori antsia-krisialdi, emozio depresibo edo haren ondoriozko zailtasun bezala erregistratzen da bikotearengan.

Bikoteak barruti bat behar du, proiektuaren konkretzioa, krisi eta berriztaketa edo proiektu berri baten birformulazioa jasateko egonkortasuna. Prozesu honek, halaber, bikotearen krisi berezi batzuk mugatzeko aukera ematen du, delako proiektua bete eta galdu dute-nean eta beste bat birformulatzerik ez daukatenean. Batzutan proiektua galdurik ez dakitenean zer galdu duten. Une horretan, paradoxikoki, geroko arazoei itzuritzeko asmoz banantzeak ere izaten dira batzutan. Bikote berri batekin nahasirik proiektu berri baten fantasiaz.

#### HARREMAN SEXUALAK

Peter Martinek, "Manual de terapia de pareja" delakoan zera dio: "Ezkontzako arazo sexualak ulertu eta tratatzeko erarik onena jarraian adierazten diren arlo nagusiak, bakoitzaren eragin eta konbinaketekin, ezagutzean datza:

- Ekintza sexual hutsari, dagokion intimitate fisiko eta emozionalari, haragi-irritsa esaten zaio. Pulsio libidinosoaren isuria izaten da.
- Intimitate fisikoa, sentsualitatea esan ohi zaiona. Ekintza sexualaren aurretiko edo ondorengo plazer sentsualak atzera eragiten ditu.
- Intimitate emozionala, eskuarki maitasuna deritzana. Pertsonarteko harramana (solasa, mirespena, adorazioa, barne-zirrara, berotasuna, bestearenganako irrika eta bakarmina).

#### JOERA MONOGAMIkoa

Ezkontide bakarrarekiko ezkontza-lotura da. Jokabideetat hartzea baino egokiagoa litza-teke ikur sinbolikotzat hartzea, lehentasuna, gurentzat aukeratu izana adierazten duena alegia.

Guren gisa aukeratzea arrazoi ezberdinengatik gertatu ahal da. Paregabea, guztiduna, harrengandik dena espero den idealizatua izan daiteke. Hala gertatzen da maitemintzen de-

nean, norberaren idealaren proiektzioak sortutako irudikeria maitatzen baita bestearengan. Maitemintze hau bikotearen faseetako bat da<sup>80</sup>.

Aukeratze hau nortasunaren alde helduago eta errealistagoetan oinarritua ere izan daiteke, hots, norberarentzat hoberena da, baina badauzka alderdi frustragarriak eta kontradiktziozkoak ere<sup>81</sup>.

Ilusiozko (edo Paregabea) objektu batetik maitasunezko (edo Bateratua) objektu baterako pasabideak mugatzen du bikote batek maitemintzen denetik lotura konplexuago bat izatera bitartean urratutako ibilbidea.

Aukeraketa hau positiboki bizi daiteke, atsegingarri bezala, edo negatiboki, giltzape bezala. Ilusiozko objektuaren bila dirauenari ihesak edo maitaleekiko harremanak ekarriko dizkio, bata bestearen ondorengo maitemintzeak, "ilusiozko objektu batekiko" harremana "maitasunezko objektu batekiko" harreman bilakatzeko lan psikiko eta loturazkoa eskatzen ez dutenak alegia<sup>82</sup>. Puntu honetan, azkenik, bikote-lotura eta adiskideen artekoa eta maitaleen artekoa aipaturiko parametroen bitartez bereizten direla azaldu behar da.

#### ADISKIDANTZAZKO LOTURAK

Era honetako lotura ez dago egunorokotasunik elkarrekin sarritan emandako denbora bairik. Elkarrekin sarritan egote hori "jolas-denbora" da zentzu zabalean, ezkontza barruko "erantzunbeharren denbora" baztertu egiten duena.

Harreman sexualak bateraezinak dira barruti honekin, adiskideen arteko harremanak harreman sexualak, hala ezkontzakoa nola maitaleena, ezabatu egiten duen bitartekotza eskatzen baitu.

Joera monogamikoari dagokionez, adiskideen artean, euren arteko sekretuak hartzen du bikotearen kasuan intimitateak betetzen duen tokia.

#### MAITALEEN ARTEKO LOTURA

Egunorokotasunaren ordezkotasuna da, eta erritmoa dela medio, hala egunorokotasunetik nola adiskideen sarritan elkartzetik bereizten da.

<sup>80</sup> E. oharra: Berensteinek ilusiozko objektua, edo Paregabea, deitzen dio, benetakoaren antonimo gisa. Ilusiozko objektu hau etengabeko emale edo hornitzailearen tokian jartzen da.

<sup>81</sup> E. oharra: Berensteinek maitasunezko objektua edo Bateratua deitzen dio, maitatzen den benetako beste batekiko harremana alegia, bestearen kontraesanak bateratzen direneko harremana.

<sup>82</sup> E. oharra: Objektuzko harremanen zentzuan erabiltzen da objektu hitza. Terminologia psikoanalitikoan pertsonarteko harremanak dira.

Maitaleen arteko harremana, ezkontzaz kanpoko harremana duten bikoteena ez ezik, ezkontzako barrutia onartzen ez duen eta onartzerik ez dagoen barne-egoera psikiko bereziari eusteko konpromezuari loturiko hitzarmena duten bikoteena ere bada. Barne-egoera psikiko berezi horri idealizazioaren eta kondiziogabetasunaren kutsua nabari zaio. Barruti egonkorretik at baino ezin euts dakioken etengabeko plazerraren ilusioa finkatzen da. Halako loturak ez du geroari begira dagoen proiekturik onesten, nahiz eta harremanaren ondorioz seme-alabak etor daitezkeen<sup>83</sup>.

### 2.4.3

### ERREFERENTEAK

Buru-osasuna, besteak gehiegi derrigortu gabe nor bere kabuz baliatzeko gaitasunari esaten zaiola aintzat harturik, ezkontzak besteei laguntza emateko beharra sortarazten duela ulertzen da. Elkarlaguntza honek, berriz, ezkontideak bakarrik eratzerik ez daukan eremu bateratzailea sortzen du.

Bere kabuz baliatu eta besteei laguntza emateko gai izanik, euren arteko batasunari eusteko konpromezua hartzen duen bikoteak osaturikoa da ezkontza osasungarria.

Balore "arrunt" hauek bat datoz garapen psikosozialaren kontzeptu psikoanalitikoekin, amaren eta haurraren arteko hasierako harreman sinbiotikotik hasi eta hurrengook izatea eskatzen duen banantze-banakatzeraino:

- Heldutasuna.
- Ezagutza.
- Jakinduria.
- Maitatzeko eta lotuta sentitzeko gaitasuna.

Ezkontzaren barruan, "ideiala" zera da:

- Pareko independentzia. Hau da burujabe izateko ahalmena, eta burujabetasun hori bikotekidearenaren parekoa izan dadila.
- Elkarrekiko menpekotasuna. Menpekotasuna aipatzean, lotura orotan bestearenganako beharra eta, horrenbestez, menpekotasuna dagoela esan nahi da. Norbera menpeko dela eta menpekotasun horren beharra daukala aitortzeko gaitasunak zentzudun izatearen adie-

<sup>83</sup> Berenstein, I.; Puget, J.: *Psicoanálisis de la pareja matrimonial*, op. cit.

razgarria da eta baita burujabe izatea ez bezalako buruiritzi izateari dagokion ideiala narzistari uko egin izanaren adierazlea ere.

Garrantzizkoa da, era berean, haur menpekotasuna eta menpekotasun heldua bereiztea, izan ere, lehenengoan bestearengandik den-dena espero izateaz gainera, ez da frustaziorik onartzen eta asimetrikoa, beti zentzu berekoa; bigarrenean, aldiz, bestearengandik nolabaiteko laguntza espero da une jakin batzuetan, mugak aitortzen zaizkio eta harreman simetrikoa da, hots, bikotekide biak dira menpeko eta emale, elkarrekiko erantzunbeharra dago.

Ideial honetatik abiatutik, era askotako ezkontza arrunt aurki ditzakegu.

Ezkontza ez baita egoera estatikoa, ezkontidearekiko barne-esperientziari esker norbanakoak bere hazkuntzari eta garapenari euts diezaiekeeneko bizi-zikloaren fase bat baizik.

Bi pertsona, elkarri lagunduz arduradun, burujabe eta menpekotasunik gabeko izatera irits daitezkeen edo, bestela, harremanaren intentsitate eta intimitatearen poderioz, erregresio eta psikopatologia larriak sortaraz ditzakeen egoera da. Ezkontzak norbanakoaren hazkuntza edo suntsipena ekartzeko gaitasuna du.

Hortaz, ezkontza "arrunta", nor bere buruaz arduratzeko eta, aldi berean, besteari laguntzeko gai diren bi pertsona helduen arteko harreman hori ideial bat da, noski, inoiz ere osoan betetzen ez den ideiala alegia. Erreferentziazko puntu bat baino ez da.

Bikotearen alderdiak aipatzerakoan, ezin ahaz daitezke igurikapenak eta funtzionalitatea. Martin-en<sup>84</sup> hitzak aipatuz: Esperientzia klinikoari jarraituz, orohar, zera esan dezakegu: ezkontideen arteko armoniarik eza bi gizakik beren ezkontz harremanean berezkotasunik eta elkarri ulertzeko gaitasunik ez izatearen adierazgarria dela. Elkarri ezin ulertze hori, aldi berean, ezkontideetako batek edo biek bestearen igurikapenak ez betetzetik dator.

Batak bestearen igurikapenak betetzeak ezkontza osasungarria dakar.

Igurikapenak eta ondoriozko desengainioak gutxi badira, ezkontza funtzionalak izaten dira, desegokitasun-sentimendurik jasaten ez duten ezkontzak alegia.

Martin-ek bikote funtzionalen eredu batzuk aipatzen ditu haien igurikapenak oinarritzat harturik:

- Haragi-atsegina sentsualitatetik eta maitasunik gabe. Halako bikoteetan, beti ez baina, maiz gerta daiteke eraso fisikoa.

<sup>84</sup> Martin, Peter A.: *Manual de terapia de pareja*, op. cit.

- Sentsualitatea eta maitasuna haragi-atseginik gabe. Bion bizi-beharrizanak eta igurikapenak txikiak badira, erraza gertatuko zaie ezkontz armonia erdiestea.
- Sentsualitate, maitasun eta atsegin urriak. Intimitate eskasa eta iharduera sexuala urria duten senar-emazteak abiapuntu "baketsu"tik ekiten diote elkarbizitzari eta, horrenbestez, babiliteke norbaiti haien ezkontza hotza iruditzea, nahiz eta eurentzat bideragarria izan. Hala-ko bikoteen igurikapenak eta beharrizanak oso urriak izan ohi dira.

Peter Martin-ek bikotearen lau eskema psikopatologiko azaltzen ditu, bere esperientzia terapeutikoan arruntenak gertatu zaizkionak, alegia. Hona hemen:

a) "Senar hotza-emazte maitemindua" delakoan: Emazteak ez du bere kabuz baliatzeko, burujabe izateko eta ezagunen-mailan funtzionatzeko gaitasunik.

Senarra ez da intimitatea jasateko gauza, bakarrik bizi daiteke, baina hunkipen-mailan ezin diezaieke inoren eskakizunei erantzun eta ezin dezake beste pertsona batekin barne-elkarbizitarik izan.

b) "Ama baten bila dabilen senarra" delako ereduan, gizonezkoa da bere kabuz baliatzeko gauza ez dena, menpekotasunik gabe baliatzeko edo inoren laguntzarik gabe ezagunen-mailako eginkizunak betetzeko gai ez dena. Bere emaztea atsegin ez bazaio, berehala desorekatzen da edo beste emakume baten laguntza bilatzen du. Eskema honetan, emakumezkoa bere kabuz baliatzeko eta inori laguntzeko gai izaten da, baina inori laguntzeko behar patologikoa dutela dirudi.

c) "Bi bizkarroi"en eskeman, berriz, bi ezkontideek ez dute beren kabuz baliatzeko gaitasunik ez eta inori eustekorik ere.

d) "Folie a deux" motako ezkontza paranoidean ez da banaturik baina, aldi berean, batuta dauden bi norbanakoen egituraren adibide, barne-espaziorik gabeko erabateko bategi-tea baizik.

Ezkontide menperatzaileak morrontza-lakioa ezartzen dio menpeko ezkontideari, horrela, ez bata ez besteak, bakarrik egoterik ez izateko edo errealitateari nor bere kabuz aurre egiterik ez izateko.

Eskema guztietan ikus dezakegu burujabetasunaren edo lotura nahiz menpekotasun-gaitasunaren mentsa, edo biena aldi berean.

#### 2.4.4

#### BIKOTEAREN BILAKAERA-ZIKLOA

Bikotearen elkarbizitza hasten denean, barne-elkartean bizi den bikote orori beharrezkoak zaizkion hainbat erabaki hartu beharra dago. Besteak beste, hurrengook erabaki behar dituzte:

- Nolako harremanak izan jatorrizko familiarekin.
- Nolako harremanak parekoekin.
- Elkarbizitzaren alderdi praktikoak.
- Norbanakoak diren aldetik, euren artean dauden ezberdintasunak.

Elkarregokipen honek hainbat transakzio eskatzen ditu. Transakzio hauek, familiaren egoera asko arautzen duen osagarritzko eskakizun-multzoari dagozkio.<sup>85</sup>

Famili zikloa aipatzen denean, familiak garapen-prozesuan daudela esaten da, bilakatuz doazela eta etapa ezberdinak igarotzen dituela. Egonkortasuna, krisia, aldaketa eta berriz ere egonkortasuna dirateke famili dinamikaren nondik-norakoak.<sup>86</sup>

Bizi-zikloaren mugarritzat har daitezke:

- Seme-alaben jaiotza: Jatorrizko familienganako loturak aldarazten ditu. Rolak banaketa nabarmentzen da. Etxearen eta haurren zaintza emakumezkoei esleitzen zaie eta ekonomi mantenua gizonezkoei, eta horrek, Harley-k dioenez, emakumezkoei murriztu egiten die hel duen munduan parte hartzea eta, ondorioz, isolatu egiten ditu.
- Eskolaketa hasten denean, gurasoak, familiak kanpoko ingurunean guraso gisa agertu beharra daukate.
- Seme-alaben nerabezaroa. Sexualitatara heltzen dira, haur-menpekotasuna amaitzen da eta honek gurasoen desidealizazioa dakar eta, ondorioz, gurasoek beren zahartzaroa hurbilago sentitzen dute.
- Seme-alabak familiarengandik aldentzen dira eta gurasoek bere ezkontz lotura birplanteatu eta birmoldatu behar dute eta bizi-proiektu berria aurkitu.

Gurasoak aiton-amon bilakatzen dira horrek dakartzan aldaketa guztiekin.

<sup>85</sup> Minuchin, 1974, aipamena Walters, M. eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares* delakoan, op. cit.

<sup>86</sup> Haley, J., 1976, aipamena Walters, M. eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares* delakoan, op. cit.

Gatazkatzat kontrako iritzien elkartrukea edo erkaketa hartzen da. Banakotasuna bere funtzio positiboan adierazteko era bat da<sup>87</sup>.

“Intimitaterik lortuko badute, bikotekideek beren desadostasunak eta gatazkak argi eta garbi adierazi behar dituztela”ko ustea hartzen da abiapuntutzat<sup>88</sup>.

Bikote baten bizitzan, gatazkaren ideiaaren bitartez, ilusiozko objektua maitasunezko objektu bilakatzen da, maitemina sakoneko eta benetako lotura bihurtzen da.

Gatazka iraunkorra, neurri batean, loturaren desegituraketara heldu gabe, loturazko hazkuntza baterako bidea da, hots, lotura konplexuagoa, helduagoa eta atsegingarriagoa erdiesteko ahalbidea<sup>89</sup>.

Azaldu den moduko gatazkaren garrantzia aintzat harturik, argi dago gatazkari aurre egiteko estrategiez hitz egin beharra dagoela. Gai hau jorratu da lehenago ere tratatu txarrak ematen dituen gizonezkoaren edo haiek hartzen dituen emakumezkoaren ezaugarriak azaldu direnean, eta berriro helduko diogu genero-sozializazioaz hitz egitean.

Honako lan hau ez dela gizarte-trebezien bilduma eta psikopatologia definizioz salbuesten duela aintzat harturik, ondoren, gatazkei aurre egiteko bide erabat oker eta desegokiak azaltzen dira, gertaeraren protagonistek mezua jasotzea ere ezinezkoa gertatzen delako halakoetan, komunikabideak oztopoa egiten baitituzte.

Hona hemen:

a) Ezetza. Ukatu egiten da gatazkarik dagoela, “hemen ez da ezer gertatu”. Askotan gatazkaren aurreneko agerraldiaren ondoren izaten da. Indarkeriazko zikloaren hasieran antzeman da, “eztei-aldia” deritzan hirugarren fasearen hasieran, tratatu txarra agertarazi duen arazoa ukatzen denean. “Ez da berriz gertatuko”. Inork ere ez ditu gertatutakoaren arrazoiak aztertzen.

Tratatu txarrak ematen dituzten gizonezkoen aurre egiteko mekanismoetan ere antzeman da, beren ekintzak eta haien ondorioak gutxien dituztenean.

Sarritan, menpekotasun toxikoa ukapenaren zerbitzuan erabiltzen da.

Tratatu txarrak hartzen dituen emakumearengan ere antzeman da errealitatea, kolpeak, tratatu txarra ukatzean.

<sup>87</sup> Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia* delakoan, op. cit.

<sup>88</sup> Walters, M. eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares* delakoan, op. cit.

<sup>89</sup> Berenstein, I.; Puget, J.: *Psicoanálisis de la pareja matrimonial*, op. cit.

b) Kezka. Honek norberaren odolgaiztoa ukatzea dakar. Ikusi dugu nola, batzutan, pentsamena bera ere eragozten duen. Kezka, frustrazioagatik edo bestelako arrazoiengatik sortu den odolgaiztoaren adierazpidea da, kezkatzen denak ez du odolgaiztorik aitortzen eta, horrenbestez, askotan, harritu egiten da indarkeriazko erantzuna jasotzen duenean.

Kezka egoera asimetrico batean oinarritzen da, hau da, kezkatzen denak menpekotasuna duen eta saria hartu nahi duen norbaiten tokian ezarri da. Menpekotasunezko egoera horrexek erantzunkizunaren eskuordetze bat dakar eta, beraz, ez du irtenbiderik edo alternatibarik azaltzen. Biktimizazio-prozesuari erabat lotuta dago eta jarrera horren "baliogarritasuna"ri ere bai. Hau da, sadomasokismoaren arazoarekin hertsiki loturik dago.

c) Eraso fisikoa. Aurre egiteko era hau guztiz gaitsezgarria da arrazoi ezberdinengatik. Lehenengo eta behin, arrazoi etiko eta moralengatik, delitu bat delako. Bigarrenik, erasotzaileak ez du ezer konpontzen, tratatu txarra ematen duen gizonezkoak, kolpearen bidez, ezintasun eta bere buruarenganako estimazio urria isladatzen duen sentimendu batetik "askatzen" ahalegintzen baita, besteari, emakumeari kasu honetan, sentimendu horien erantzunkizuna leporatuz. Hau da, bere gatazka inorenganatu eta alienatu egiten da eta, ondorioz, ezin da hartaz den bezala ohartu.

Badira beste estrategia batzuk ere, gatazkaren, baldintzen eta inguruabarren arabera egoiak ala desegokiak gerta daitezkeenak.

Ondoren, laburbildurik azaltzen dira:

- Ekiditea. Egoera, pertsona edo errealitate bat alde batera uztea, hari aurre egitea ezinezkotzat jotzen delako.
- Gerorapena. Subjektua gatazkaz oharturik dago, baina geroratu egiten du hari aurre egiteko unea, egoera animiko hobearen, irtenbide berrien eta abarren zain.
- Errepresioa. Gatazka ahaztea sortarazten duen estura eta antsiagatik, gatazkaren kontzientzia ustez "galdu" egiten da, baina berriro hel dakioke ukapenean ez bezala.
- Arrazionalizazioa. Mekanismo honetan hierarkizatu egiten dira gatazkazko egoeraren alderdi arrazionalak, hunkipen-mailakoak, aldiz, erriprimitu eta arrazoi bihurtzen dira.

Hau ez gainera, badira beste batzuk ere, hala nola, proiektzioa, delegazioa, etab.

Beste ikuspegi batetik, gatazkari zuzenean aurre egin dakioke, besteari hitzez edo hunkipen-mailan eraso eginez, edo beste jarrera asertiboago batez, hau da, norberaren iritzia argi eta sendo azalduz eta hautabideak eta konponbideak proposatuz. Zuzeneko aurre egiteko era honetan, batak bestearen kritika jaso dezake, hots, komunikazioa errazagoa da...

Gatazkari aurre egiterakoan zeharbidea ere urra daiteke, manipulazio edo txantaiatik hasi eta solasa eta elkarulertzea faboratzen dituzten baldintzak sortzeraino iristen den bidea alegia.

## **2.5**

### **EZKONTIDEAREKIKO TRATU TXARRA AHALBIDETZEN DUTEN GENERO-BALOREAK**

Genero-rol estereotipatuek sendotu eta eutsi egiten diote ezkontzako tratu txarrari, bai indibidualki eta bai sozialki ere. Hau hala gertatzen da hurrengo bidez:

- Famili egitura gogortuak, polarizatuak eta aginteriazkoak.
- Trebezia edo trebezia gabezia oso ezberdinak.
- Balore eta sineskera-sistema.

### **2.5.1**

#### **GENERO-SOZIALIZAZIOAREN PROZESUA ETA BERORREN ONDORIOAK**

Generoa oinarritzat harturik gure gizartean gertatzen den balore, jarrera eta trebezia-mailetako berezikeriazko akulturazio-prozesuari deitzen zaio genero-sozializazioa<sup>90</sup>.

Ondoren, feminizazio edo maskulinizazio programak azaltzen dira. Biotan agertzen dira mutilak eta neskak bereizirik sozializatzeko erabiltzen diren baloreak, eta azkenean hainbat estereotipo azaltzen dira.

Gero, tratu txarraren arazoari dagozkion alderdi bereziak jorratzen dira: erasoa, diruaren erabilera, harreman sexualak eta bikotearen loturari datxekion menpekotasunaren tratamendua.

<sup>90</sup> Walters, M. eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares*, op cit.

## FEMINIZAZIO-PROGRAMA

Emakumeen heziera bizitzan izango duten ardura nagusia besteak zaintzea izango delako igurikapenaren inguruan zertzen da, hortaz, emakumeen bizitza gainontzekoen eta ez euren handitazpenera daramaten ihardueretan oinarritzen da.

Euren berezkotasuna, nortasuna, arras finkaturik dago maitasunaren, hunkipenaren eta enpatiaren garapena iradokitzen duten kide eta harremanetan.

Jean Baker Miller-ek<sup>91</sup> dioenez, emakumezkoen burubalorazioa, hein handi batean, emateari lotuta egoten da. Emakumezkoak "aski ematen ari ote naiz?" galdetzen dio bere buruari. Aski ez ematearen ondorioak, beste batzuk hartzeko zain daudenean, beldurgarriegiak dira aintzat ez hartzeko.

Inoren beharrianak asetzea atsegingarria gerta daiteke. Ordaina, alabaina, inoren menpe egon beharra da, norberaren senarraren menpe bereziki, senarrok daukaten botere, status eta etxetik kanpoko agintea ez baitira nolanahikoak.

Kanpoan agintzeko gaitasunari balio handiagoa irizten zaionez gero, emakumezkoaren egokitasuna maitasunari, enpatiari eta pertsonarteko harremanei dagozkien arloetan balio-gabetu eta, askotan, gutxietsi ere egiten da. "Berezkoa du" biologikoki.

Gizartean orohar nabari den gizonezkoen eta emakumezkoen ekarpenekiko aintzatespen ezberdina, ezkontideen arteko harremanean ere funtsezko osagaia da.

## MASKULINIZAZIO-PROGRAMA

Nork bere burua gizonezkozat sentitzea erdiespen-mailan jartzen da, ez harreman pertsonalen mailan. Gizonezkoaren buruestimazioa egiteari lotzen zaio, ematearen aurka jarritz. Senar eta aita ere izatea interesatzen zaien arren, maskulinitatea, funtsean, familiatik kanpo duten roletatik eta lider-jarreretatik datorkie.

Familiatik kanpoko arrakastak jokabide neurtua, tentuzkoa eta kalkulatua eskatzen du. Horrek norberaren sentiberatasunaren murrizketa dakar, besteen beharrianen erantzuteko gaitasunaren inhibizioa.

---

<sup>91</sup> Miller Jean Baker, 1976, aipamena Walters, M. eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares* delakoan, op. cit.

Barne-harremanak balaztatu beharreko egoerak dira eta, sarritan, eragozpen edo tranpak babilira bezala hartzen dira. Maitasunaren eta intimitatearen erasoei aurre egiten badiete ere, beharrezkoak zaizkie eta emakumezkoek exijitzen diete euren eman eta hartzeko beldur direna. Tratu txarrean bereziki nabari diren alderdi espezifikoak, lehen ere aipatu ditugunak, hauek dira:

## AGRESIBITATEA ETA AMORRUA

Intimitaterik lortzeko bikotekideek beren desadostasunak eta gatazkak argi eta garbi adierazi behar dituztela oinarritzat harturik. Amorrua norberaren eta gizartearen aldarazlea izan daiteke eta status quo delakoa desafiatzen du<sup>92</sup>.

Alabaina, amorrua argi eta garbi adierazteko gizarte-debekapenak daude, emakumeentzat batez ere, eta debekapen hauek eragotzi egiten dute liskarrak ebazteko behar den elkar-trukea egiteko gaitasuna.

Generoaren arabera, amorruren erabilera eta ondorio ezberdinak nabari dira:

- Emakumeengan<sup>93</sup>

Egoera ahul eta menpekoan beti bizi izateak amorrua sortarazten du emakumeengan. Hala ere, emakumeok besteak zaintzeko ardura duen pertsona baten irudia eta pertsona amorrutuarena bateraezinak direlako mezua jaso du. Hortaz, ez dute zuzenean adierazten, sintoma (txaketena) edo urruma eta kezka asaldagarri eta eraginik gabekoen bitartez baizik.

Amorrua erakusteko beste oztopo bat ere badute, hots, ekonomikoki menpekoak direla.

Gizonezkoekiko berdintasun handiagoa lortu eta egoeraz ohartu nahi dutenean, euren haserre egokiro bideratu eta, mezu zehatz eta argien bidez, jarrera tinko eta irmoak hartu beharrean, zenbaitetan, akusazio orokorrak eta koherentziarik gabeko kezkak egitera mugatzen dira, inguruko nahasmendua eta ondoeza sortarazteko besterik balio ez dutenak. Ez dira irmoki ihardutea eta erreakzioz ihardutea bereizten. Honen alternatiba, amorrua eskakizun zehatzen bitartez bideratu eta berauek erantzuna merezi dutelako uste sendoaz planteatzean datza.

<sup>92</sup> The Dance of Anger, 1985, aipamena Walters, M. eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares* delakoan, op. cit.

<sup>93</sup> Miller, Jean Baker: *La construcción de la cólera en los hombres y las mujeres*, 1983, aipamena Walters, M. eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares* delakoan, op. cit.

- Gizonezkoengan

Batzutan "amorru bizia" edo "haserre basatia" gizonezko baten botere edo indarraren iturri gisa ikus daiteke. Miller-ek dioenez, gizonezkoek ere amorrua barne-hunkipen emankor gisa erakusteko eragozpenak dituzte. Eskuarki, ez diotelako hura sortarazi duenari zuzentzen, solaskiderik ahulenari baizik.

Emakumearen amorruaren aurrean, hura ekidin eta urruntzea izaten da gizonezkoaren erantzunik arruntena. Gizonezkoek ez dituzte bat ere gogoko zirrarezko "eszenak", burruka galdu eta umiliaturik sentitzearen beldur dira edo, bestela, burruka irabaztekoan, emakumearen maitasuna galtzearen beldur.

Ageriko liskarrak ekiditeko jarrera horrek areagotu egiten ditu emakumearen frustrazioa eta haserrea, eta azkenean, askotan, hark bion amorrua azaltzen du zirrarezko "eztanda" baten bidez, bikotekideak eta berak ere "zirrara aldetik ezegonkor"izat hartzeko balioko duena eta, halaber, arazoa emakumearen haserraldietan datzalako ustea sendotzeko.

Gizonezkoen amorrua emakumezkoena baino izugarriagoa eta suntsigarriagoa izan daiteke indarkeria fisikoaz azaltzen denean. Gizonezkoek emakumezkoek baino gehiagotan erabiltzen dute indarkeria fisikoa, eta halakoetan, indartsuagoak eta handiagoak izanik, arriskuagoak gertatzen dira.

Horren larriak ez diren kasuetan, gizonezkoek hitzeko erasoaren muga gainditzen ez dutenean ere, haien haserraldia aski izan daiteke emakumezkoak geldiarazteko, indarkeria sortzeko arriskua beti izaten baita.

Arlo psikikoan, berriz, gizonezkoaren eraso egiteko joera hau "esklabu" bihurtzen du, zeren munduan eta familian horrela ihardun "beharra"ri kateaturik bizi baita. Gizona ezgaitu egiten du gatazkei eta frustrazioei indarkeriarik gabe aurre egiteko.

## DIRUAREN ERABILERA

Dirua, segurtasun ekonomikoaren adierazgarri izateaz gainera, statusaren, ospearen eta agintearen ikurra izatera ere iritsi da<sup>94</sup>.

<sup>94</sup> Walters, M. eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares* delakoan, op cit.

Blumstein eta Schwartz-ek<sup>95</sup> azterlan batean agertu zutenez, ezkontideen artean, erabakiak hartu eta betearazteko eskubidea ezkontide bakoitzaren diru-sarreraren arabera izan ohi da. Ihardunaldi osoko lana izan eta gizonezkoak baino diru gehiago irabazi arren, emakumezkoak senarraren ardurapean uzten du bion etorkizun ekonomikoa, bere diruaren kontrola ere haren eskuetan utziz. Boterearen oreka ezartzen duena ez da dirua berez, dirua eta gizonezkoaren nagusitasunaren batasuna baizik.

Dirua hainbat modutan erabiltzen da ezkontz gatazketan negoziatzeko eta bikote askok diru-arazoengatik egiten dute errietan, beste edozein arrazoiengatik baino gehiagotan. Ulertzekoa da, dirua boterearen eta kontrolaren adierazgarria da eta.

Emakumezkoak, halaber, desabantaila dute ekonomi kontuak erabakitzeko mahaian, zeren, gizonezkoek baino baliabide gutxiago izateaz gainera, etxeko eginkizunetan egunero arduratzeari ez baitzaio inolako baliorik aitortzen. Hortaz, dirua gastatzeko erabakiak harterakoan, gizonezkoen eskubide berberak ez balituzte bezala sentiarazten zaie.

Clara Coria<sup>96</sup>, diruaren sexu ezkutuaz idatzitako liburuan, zera dio: " cuando ambos miembros hacen aportes económicos, las mujeres destinan sus ingresos a gastos relacionados con lo doméstico: comida, ropa de los chicos, servicio (si existe), adornos de la casa, etc..., mientras que los hombres "naturalmente" se ocupan de los gastos extraordinarios: la compra de un coche, un inmueble, los ahorros, salidas, vacaciones, etc.".

Idazle berberak bi motatako dirua bereizten du: "txikia" eta "handia". Diru txikia egunerokoa da, eguneroko kontsumoan eta famili egituraren mantenuan erabiltzen dena; diru handia, aldiz, boterearen zutabe eta oinarri da, eragin handiko erabakietan tarteko den dirua. Horrela bada, diru txikia emakumezkoak erabili ohi duena da, menpekotasunaren dirua alegia. Gizonezkoek oparotasunaren dirua administratzen duten bitartean, emakumezkoek ga-beziarena administratzen dute.

Diruaren erabilera berezi horretan Colette Dowling-ek<sup>97</sup> "Mari Errauskineen konplexua" deitzen duena sar daiteke. Emakumeak bere bizitza osoan zehar norbaitek mantenduko duela eta ekonomikoki berataz arduratu dela espero eta sinesten du. Aipaturiko idazleak, halaber, etxetik kanpo lanik ez egiteari baino eragin handiagoa leporatzen dio ekonomi erantzunki-

<sup>95</sup> Blumstein eta Schwartz, 1983, aipamenak Stith, Sandra, M.; Rosen, Karen; Williams, M. Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar* delakoan, op. cit.

<sup>96</sup> Coria, Clara: *Las mujeres españolas, lo público y lo privado*, Madril, C.I.S., 1991.

<sup>97</sup> Dowling, Colette: *El complejo de cenicienta. El miedo de las mujeres a la independencia*, Bartzelona, Grijalbo, 1982.

zun guztia bestearengan uzteko jarrerari. Arazoa, beraz, etxea kanpoko mundua ekiditeko "aterpe" izatean datza, horri nabari zaion zentzugabetasun-zamarekin. Gizonezko batek kanpoko munduari edo ekonomi burujabetasunari aurre egiteko arazoak ditunean, laguntza eskatzen du, gizarteak hartara behartzen baitu; emakumezkoaren kasuan, ordea, arazo horiek etxeko bizimodua aukeratu izanaren azpian estaltzen dira.

## HARREMAN SEXUALAK

Harreman sexuala gutxitan izaten da elkarrekiko atsegingarri huts. Mistika femeninoak eta maskulinoak ezarritako esanahi sinbolikoz beterik dago.

Sexua boterearen eta kontrolaren inguruko negoziazio laban eta konplexuetan erabiltzeko tresna izan daiteke eta, sarritan, hala erabilia izaten da. Hurrengootarako erabil daiteke:

- Intimitatea eta urruntasuna erregulatzeko.
- Atsegina emateko.
- Boterea izateko.
- Onurak lortzeko.
- Maitasuna erreprimitzeko.
- Umiliatzeko.
- Baretzeko.
- Konpontzeko.

Oraintsurara arte, ekintza sexualak esanahi oso ezberdina zuen genero bakoitzarentzat, eta osagarritasuna arau oso estuei lotuta zeuden. Ondoren, esanahi ezberdin horiek azaldu eta nola beroriek komunikazioa eragozten duten ikusiko da.

- Gizonezkoei dagokienez:

Mistika maskulinoan, boterea eta statusa sexualitatearekin identifikatuta egon dira. Emazte-arekiko harreman sexualak ez baina setiatu eta konkistaturiko emakume guztiak dira hizpide eta lilura-gai.

Gizonezko askorentzat, desioak ez du zerikusirik zirrarezko behararekin; barne-barneko sentimenduak halako kontrol arduratsua arriskuan jar dezakeen zerbait balira bezala hartzen dira, guardia-lasaitze bat bezala...

Beste gizonezko batzurentzat, esperientzia sexuala intimitatera bidea da. Logela da emakumezko bati lotuta senti daitezkeeneko toki bakarra.

---

Harreman sexualaren bidez samurtasuna adierazi nahi dute eta dira ongi ulertuak, haien-  
tzako sentimentuez hitz egiteak ez baitu garrantzirik intimitate-mailan, emakumezkoentzat,  
aldiz, oso garrantzitsua da.

- Emakumezkoei dagokienez:

Harreman sexuala, hasiera batean, beharkizunaren eta erantzunkizunaren izenean, ezkon-  
tzari eta amatasunari zor zaion ekintza sinboliko bihurtu zen. Jarrera honek, ordea, beren  
sexu-gogoa bete-betean esperimentatu eta atsegin hartzea eragozten die emakumeei. Honek  
herragunea sortarazten du, inoren atsegingarri izan norberaren komunikazio-beharrizanak  
bete gabe. Frustrazio honek, batzutan, harreman sexualak izaterai uko egitea ekartzen du.  
Elkarrenganako harremanean, gizonezkoek euren jardun sexualaren ondorioztat hartzen dute  
erantzun hori, hots, sexualitateari uko egiten badio, bera trebea ez delako edo bera eta bere  
gizontasuna errefusatu egiten dituelako da. Gizonezkoaren mendekurik arruntena emakumez-  
koari "hotza" dela leporatzea izaten da. Emakume "hotza" izatea, gizarte-mailan, "ama txar-  
ra" izatea bezain larria eta gaitzesgarria da. Emakumeak, eskuarki, onartu egiten du katalo-  
gazio hori eta errudun sentitzen da, eta horrek are gehiago eragozten dio sexu-gogoa.

## MENPEKOTASUNA

Gizonezkoen eta emakumezkoen arteko elkarlotura da bikote-harremanen funtsezko oina-  
rria, baina genero bakoitzak era ezberdinez aurre egiten dio.

- Emakumezkoak:

- Ez dute exigitzeko joerarik, eskubiderik ez dutelakoan berekoi agertzearen beldur baitira.
- Bere erabakiak hartu, buruaskitasunaz jabetu, bere interesen arabera jokatu eta eremu pri-  
batua eta psikologikoa erreklamatzeko zailtasunak dituzte. Nahi dutena besteei jakinaraz-  
tea ere zaila gertatzen zaie, berak ere hartaz ohartzea zaila gertatzen baitzaie, beren in-  
teresez eta beharrizanez ohartzerik ere ez dute izatan eta.
- Euren emandako zerbitzuen ordainez beren beharkizunak beteko direla uste izateko joe-  
ra dute.
- Burujabe izatearen beldur dira, ondorioz, gizonezkoak "oldarkorregi"tzat jo dezakeela-  
koan edo.
- Emakumezkoak ez du burujabetasunetik negoziatzen, zeharkako metodoen bidez baizik.

- Gizonezkoak

- Zirrarezko beharizanik aitortu ezina nabari zaie, umiliaturik edo arbuaturik gertatzearen beldurrez.

- Suminkor eta lotuak izatera beharturik daudela uste dute.

- Menpeko emakumezkoaren eskakizunak errefusatu egiten dituzte, baina, aldi berean, bultzatu egiten dute beren “ni”aren sendogarri gisa.

- Gizonezkoek ez dute nahi dutena eskatzen ikasi, zeren, famili egituraren barnean, ziurtzat jotzen baitute emakumezko batek beteko dituela haien beharkizun fisikoak eta zirrarezkoak.

Hau hala gertatzen ez denean edo eten egiten denean (seme edo alabaren bat, lana, etab...) oso jeloskor eta abandonaturik sentitzen dira.

- Euren izakeraren alde hori gaitzesgarritzat jotzen dute eta “erakutsi” baino ez dute egiten: bilduz edo oldarkortasunez zorrotzegi agertuz. “Ulertuko” dietelako itxaropena dute.

- Zeharkako komunikazioaren aurrean, “manipulatzailerik” edo “emozionalki ezegonkor” izatea leporatzen dio emakumeari.

## 2.5.2

## ESTEREOTIPORIK ARRUNTENAK

Estereotipoak egoerak, jokamoldeak eta pertsonak deskribatzerakoan erabiltzen diren irudi edo klitxeak ditugu.

- Gizonezkoak:

Independienteak.

Askeak.

Indartsuak.

Argiak.

Ausartak.

Objektiboak.

Arrazionalak.

Aktiboak.

Indibidualistak.

Gogorrak.

Itsusiak.

- Emakumezkoak:

Menpekoak.

“Norbaiti” dagozkionak.

Ahulak.

Tentelak.

Ikaratiak.

Subjektiboak.

Sentiberak.

Pasiboak.

Altruistak.

Samurrak.

Edertasunaren ikur.

|                                                                    |                                                                                                     |
|--------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------------|
| Sexualki askatuak.                                                 | Sexualki erreprimituak.                                                                             |
| Atseginerako askatuak dira.                                        | Atseginerako erreprimituak.                                                                         |
| "Gizonezkoak berak moldatzen du bere izakera".                     | "Emakumezkoa, aldiz, "naturak" moldatzen du".                                                       |
| "Gizonezkoa da "lan" egiten duena, familia diruz hornitzen duena". | "Emakumezkoa gizonezkoaren aliatua da, etxeko lanen eta seme-alaben zaintzaren "arduradun" da eta". |
| "Gizonezkoa etxeko agintari nagusia da".                           | Emakumezkoaren aginteak, eraginik izango badu, "gizonezkoak emana behar du izan".                   |
| Gizonezkoa da familian gertatzen den guztiaren "azken epailea".    | Emakumezkoa/emaztea seme-alaben eta senarraren alde izango da beti.                                 |
| Gizonezkoa da familiaren baloreen "zaintzailea"                    | Emakumezkoari familian barrena maitasunak kurritzearen ardura dagokio.                              |
| Gizonezkoak ezartzen ditu disziplina eta zigorrak.                 | Emakumezkoa etxearen "ugazaba" da <sup>98</sup> .                                                   |

### 2.5.3

### SOZIALIZAZIO BEREZIAREN MEKANISMOAK

Sozializazio bereizia, alde batetik, gizartean nagusituriko eredu konbentzionalen bitartez gauzatzen da; bestetik, berriz, eguneroko jardunaren bidez, genero-ereduei bere erara atxikitako famili taldearen bitartez.

Zeintzu dira sozializazioan parte hartzen duten egungo proposamen ideologikoak?

- Lehenengoa: Emakumezkoa dena eta gizonezkoa denari buruzko ideologia. Ideologia hau estereotipoak moldatuz transmititzen da: egoerak, jokamoldeak nahiz pertsonak deskribatzeko erabiltzen diren irudi edo klitxe finkatuak. Ondorengo orrialdean azaltzen da estereotipo hauen zerrenda bat.
- Bigarrena: Liburuetan agertzen den ideologia ofiziala. Sariak merituei, norbanakoen gaitasunari dagozkiela irakasten da, norbanakoek, ahaleginduz gero, gizarteak eskaintzen dizkien sariak lor ditzaketela, aukera-berdintasuna baitago.

<sup>98</sup> Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia* delakoan, op. cit.

– Hirugarrena: “Herri-ideologia”. Zentzuzko ideologia da, “edonork daki” esamoldeak laburbiltzen duena.

Irudi hauek hizkeraren bidez adierazten dira eta, estereotipoei dagokienez, beren esanahiekin, gizarte-kontrol bezala dihardute. Koherentziarik ezak sortarazten ditu kontraesan eta hausturak.

#### **2.5.4                                      GENERO-SOZIALIZAZIOAREN ERAGINA EZKONTZA-KONTRATU ARRUNTEAN**

Mendebaldeko kulturaren esparruan, emakumezko batek eta gizonezko batek elkar aurkitu eta harreman egonkorrei ekiten dietenean, beraien artean harreman berrian eragina izango duen esanahi-trukaketa bat hasten dela esan daiteke.

Elkar aurkitzen dutenean, bakoitzak bere pentsamoldea dakar bikoteari eta familiari buruzko balore eta sineskeriei dagokienez. Familia berria, beraz, gizartean dabilen aurriritzi-multzoan oinarriturik eratzen da.

Aurriritzi horietako zenbait gizarte-mintzairan zehazturik agertzen dira, beste batzuk, aldiz, inplizituak dira, ez hitzez adieraziak. Esplizituak kulturaren kontzepzio berriei dagozkie, inplizituak, berriz, esplizitazioen azpian dauden eta, nolabait, haiek estaltzen dituzten kontzeptualizazio zaharkituak dira.

AURRIRITZI ESPLIZITUAK:

- Ezkontza elkarrekiko askatasunez eginiko hautapenaren ondorioa da, maitasunez ezarria.
- Seme-alaben jaiotza bikotearen maitasunaren emaitza da.
- Familiaren baitan, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremana berdintasunezkoa da, aukerei, eskubideei eta erantzunbeharrei dagokienez.
- Bikotea eginkizun-osagarri da elkarbizitzan, hots, etxea eta seme-alabak emakumezkoen ardura nagusia diren bitartean, familiari ekonomikoki eustea da gizonezkoen funtsezko erantzunkizuna.
- Babesa eta zaintza elkarbizitzari berez dagozkion eginkizunak dira eta, horrenbestez, halabeharrezkotzat hartzen dira.
- Familiaren intimitatea eta pribazitatea beti ere gorde beharrekoak dira.

#### AURRIRITZI INPLIZITUAK:

Familiaren hierarkiazko egitura generoaren arabera eratzen da. Berezko sexu-desberdintasunean oinarrituriko pentsamoldeen bidez "berezko" kategoria hartu duen desberdintasun hierarkikora iristen da.

- Familia gizonezkoen eta emakumezkoen boterezko hierarkia ezberdinetan oinarriturik antolatzen da.
- Desberdintasun hori gizonezkoari nagusitasuna eskuesten dion sexuen arteko antolamendu biologiko batetik dator.
- Ugalketa-gaitasunaz gaindi dago. Berez eskuesten zaizkie ahulezia, sentiberatasuna eta pasibotasuna.
- Gizonezkoak, aldiz, kemen, ekintza eta indarrez natura menperatzeko eginak dira.

Senar-emazteen artean, gizonezkoaren boterea eta emakumezkoarena gizartean nagusi diren maskulinitate eta feminitate-ereduetako bakoitzari egokitua izatetik datoz.

Senarraren/aitaren ezaugarriak: Familiaren diru-hornitzailea. Kanpoko munduarekiko bitartekaria. Gizarte-mailan garrantzizko arazoak ezagutzen dituen da, ezagupen horiek bere boterearen sendogarri gisa dihardute, dagokion ekonomi babestzailearen eginkizuna ez bete arren. Balore-eredua zera da: gizon indartsua, seguru sentitzen dena, burujabe, ausart. Emaztearen/amaren ezaugarriak: Bere familiaren zerbitzura jartzeko gaitasuna. Besteen esanetara egoteko gaitasuna. Amatasunak maitasunezko konpromezu trinkoa esan nahi du, disziplinarik eta zigorrak gabekoa. Mugak jartzeari uko egiten zaio, horrek nahiak frustratzea eta errefusatua izatea baitakartza.

Emakumezkoaren/amaren identitatea seme-alaben eta senarraren zerbitzura egoteari baldintzapeturik dago, norberaren garapena oso urria edo ezerezean gelditzen dela. Seme-alabekiko edo senarrarekiko edozein arbuio edo gatazkak zuzen-zuzenean urratzen du bere integritatea pertsona gisa.

Gizonezkoak/aitak, aitzitik, familia-gunetik kanpoko agintaria den aldetik, zirrarezko konpromezu gutxiago ditu, gizartean aintzatespen zabala du eta. Gainera, "bere tokia" herri-arloan dago, emakumearena ez bezala, honen "tokia" arlo pribatuan baitago. Beste alde batetik, bere esperientzia baliogarria da seme-alabei geroko mundu horretan baliatzen irakasteko<sup>99</sup>.

---

<sup>99</sup> Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia*, op. cit.

### 2.5.5

## FAMILIARI BURUZKO OINARRIZKO KONTZEPTUEN BERRIKUSPENA GENERO-SOZIALIZAZIOAREN IKUSPEGITIK

M. Walters-ek<sup>100</sup> diotenari jarraituz, famili terapeuten lan-tresnak izanik, arlo honetan adituak ez direnek familiaren funtzionamendua ulertzeko eta aztertzeke orientabideak ere badiren zenbait kontzeptu berrikusi beharra dago. Berrikuspen hau zehatza da eta gizonezkoaren eta emakumezkoaren artean dagoen bereizkeri kontutan hartzen du, horregatik da balio-garria.

### BATEGITEA ETA ALDENTZEA, TXANPON BEREKO BI ALDEAK

Bategitea eta aldentzea deitzen diogu bikoteengan eta famili harremanetan gertatzen den batze eta elkarrengandik urruntze prozesuari. Parametro honen heldu-gabetasuna, hala ere, era ezberdinez nabari zaio sexu bakoitzari, eta honen arrazoia esleitutako roletan datza. Hortaz, emakumezkoaren heldu-gabetasuna menpekotasunaren itxuraz ageri da:

- Onespena bilatzen dute.
- Gatazkak ekidin.
- Bakeak egin.
- Besteen laguntzaz baliatu.
- Gaitasunik ezaz jardun.

Gizonezkoen heldu-gabetasuna, aldiz, distantziaren bidez erakusten da:

- Isolamendu emozionala.
- Helezintasuna.
- Itxurazko axolagabetasuna.
- Uzkurdura.
- Besterenganako erreserba.
- Zaurgarritasunaren beldur.

Hauek dira estereotipoak eta generoz aldatuak agertzen direnean, hau da, "menpeko" gizona, "urruneko" emakumea, birritan patologizatuak izaten dira.

<sup>100</sup> Walters, M. eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares*, op. cit.

Kurioski, ekintza terapeutikoan, eta bestelako ekintzetan ere bai, aurrena emakume "menpeko eta bateginiko"arekin lan egiteko joera dago. Emakume "menpeko", hurbileko eta hiperduratsuen jarduna bere hartan baieztu ohi da.

Teknika hauek gizonezkoak ere gutxien dituzte, euren borondatez maitasunezko ekintzetan parte hartzea ezinezkoa dela eta jarrera horri ez zaiola aurre edo aurka egin behar, bestela alde egingo dutelako ustean oinarritzen baitira.

## ELKARREKIKOTASUNA

Elkarrekikotasun-kontzeptuak zera suposatzen du, arazo batean tarteko diren pertsona guztiek bere eginkizuna betetzea, bestearen jokabidea indartuz arazo horrek irauten duen neurrian. Adib.: Senar jipoitzailea, emazte jipoitua.

Esaten ez dena zera da, eginkizun bat betetzea eta eginkizun baliokidea betetzea ez dela gauza bera, ez baitu botere bera, ez aukera berberak, ez eta gaitasun berbera zikloa aldarazteko, handiagoa, indartsuagoa, adinez nagusiagoa den edo eragin handiagoko posizioa duen baten menpe dagoen edonork ez duen bezala.

## BATERAGARRITASUNA

Elkarrekikotasuna, pertsona baten jokabideek beste pertsona bati haien bateragarri izan daitezen jokabideak hartzea, eta alderantziz, bultzatzeko erari dagokio. Guzti hau rol polarizatuak (adib.: kanpoko langilea, barruko zaintzailea) eskatzen dituen sistema baten tasuna den armonia lortzeko.

Polarizazioa, ordea, ez da armonia lortzeko sistemarik aproposena, noski, zeren, sistema-ren barneko orekari eusteko norbanako desorekatuak eskatzen baititu.

Rol polarizatuak sistemaren armonia hura osatzen duten norbanakoen beharrianen gainetik dagoela erakusten dute. Askatzaileagoa ematen du sistemako norbanako bakoitzak ezau-garri eta eginkizun bateragarrien barne-armonia erdiestea.

Gizarte-testuinguruak, bestalde, balio oso ezberdineko esanahi eta irudiak atxikitzen dizkio jokabide eta rol bateragarri horiei eta horrela, hitz egiten duen emakumezkoa "berritsua" da, gizonezko isila, aldiz, "sakona".

---

Bateragarritasuna eta zirkulartasuna ikuspegi sistemikoaren kontzeptu eta tresna baliogarrak izateak nolabaiteko baliokidetasuna badela erakusten du. Delako gertaeran halakorik ez bada, harremanen gizarte-jatorriak aintzat hartzen ez dituen abstrakzio hipotetiko baten aurrean gaude.

## HIERARKIA

Norbanakoen eta familiako azpisistemen botere eta aginte erlatiboak sailkatu eta beraien arteko mugak ezartzen dituen egiturazko kontzeptua da.

Hierarkia hori betearazteko jokaera femeninoa kontutan hartu beharra dago, izan ere, kontzentzuzkoagoa eta kolektiboagoa izateaz gainera, harremanaren bidez agintzen baita, bostereaz baliatuz bainoago.

## MUGAK

Familiakoen arteko eta belaunaldi ezberdinekoen arteko banaketa egokiari dagozkio. Ongi antolatutako familia batek mugak ditu, harremanetarako hurbiltasun eta urruntasun "egokia" ezartzen dituztenak.

Hemen ere jokaera femeninoa gutxietsi egiten da, "sarkina" omen delako, eta isilik egoteko jarrera gutxitan jotzen da "kontrolatzaile"izat edo ama betetzen saiatzen den hutsunearen sortzailetzat.

## TRIANGELUAK

Bi aldeen arteko gatazka hirugarren baten bidez desbideratzean datzan disfuntzio bati dagokion kontzeptua da.

Atal honetan, generoaren ikuspuntutik baloratu beharko litzateke emakumezkoei nabari zaien gehiegizko erantzunkizuna beren gain hartu eta zirrarezko gatazkei (ama eta seme-alaben artekoak) (ama eta amaginarrebaren artekoak) aurre egiteko joera, gizonezkoei nabari zaien gatazkok ekidin eta desbideratzeko joeraren aurrean.

## SINTOMAREN FUNTZIOA

Sistema batean, familia familia gisa definitzen deneko sisteman, sintoma bat haren finkagarri suerta daitekeela adierazten du kontzeptu honek. Hau da, sintoma sistematik zabalena arautzeko behar den baliabideetat har daiteke.

Nolanahi ere, okerra familia zenbait balore-eskalatatik at dagoela, berdintasunean oinarritzen dela aintzat hartzean eta generoak alde batera uztean datza.

### 2.5.6

## ALTERNATIBAK

Ondoren, genero-sozializazioaz nabari diren okerrak zuzentzeko zenbait alternatiba azaltzen dira

- Jokabideak eta rola sexuaren arabera baldintzatzen dituzten mezua eta generoan oinarrituriko gizarte-eraketak antzematea.

Generoari dagozkion gaiak kontzeptu bat ez ezik, jokabide ororen funtsezko iturri dira eta kulturaren eta kulturakideen arteko loturarik nagusienetako bat.

- Emakumezkoek gizarte-mailako eta ekonomi arloko baliabideetara heltzeko dituzten eragozpenak aitortzea.

Emakumezkoek jasaten dituzten benetako aukeren gabezia eta gizarte-mailan ezarritako lotsa, haiek zenbait egoerari (banatzea, dibortzioa, tratu txarren salaketa, bortxaketa, etab...) aurre egiteko moduan eragina duten faktoreak dira.

- Emakumezkoen euren bizimodua zuzentzeko aukerak murrizten dizkien pentsamolde sexistaren kontzientzia hartzea.

Zenbait gizarte-adierazbururi antzematen zaion pentsamoldea da:

- Emakumezkoek gizonezkoek mantendu, zuzendu eta balioets ditzaten behar dute.
- Euren gorputzak kontrolatzeko eskubidearen ukapena.
- Emakumezkoak logikarik gabekoak eta zeharo emozionalak direlako uste osoa.
- Gaitasunezko eta burujabetasunezko jokabidea ez da erakargarria, ez eta femeninoa ere.
- Sozializazio bereiziak genero bakoitzak laguntzan edo burujabetasunean arriskua ikusteko eragingo du.

Pollack eta Gulligan-ek<sup>101</sup> TAT delakoarekin Unibertsitateko ikasleekin eginiko azterlan batean antzeman zutenez, arriskua deskribatzerakoan, gizonezkoek pertsonarteko lotura estuak

<sup>101</sup> Pollack eta Gulligan, 1982, aipamenak Walters, M. eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares* delakoan, op cit.

---

aipatzen zituzten zerbait lortzeko eta arrakasta izateko burruka baino gehiagotan. Intimitatearen, giltzapetzearen eta traizioaren beldurrean aurkitu zuten arriskua, lotura zapaltzaile batean kateaturik gelditu edo errefusagatik eta iruzurragatik umiliatua gertatzearen beldurrean alegia.

Emakumezkoek, berriz, lorpen inbertsonaleko egoeretan antzeman zuten arriskua, lan arloko lehiakortasunean esate baterako. Isolamenduan eta alienazioan ikusi zuten arriskua: harreman pertsonalik gabe geratzean edo arrakastagatik baztertuak izatean.

Azterlanaren egileek ondorioztatu zutenez, gizonezkoek loturan dakusate arriskua eta emakumezkoek banaketan.

- Emakumezkoak famili harremanetan funtsezko erantzunkizunaz arduratzeko sozializatuak izan direla aitortzea.

Honek, sarritan, kontraesan latzak sortarazten ditu, eta emakumezkoak halako lotura bikoitz ero baten pean jartzen ditu, zeren edozer eginda ere gaizki egina izango baita. Familian dauden harremanak arintzeaz ardura dadin espero da. Hala jardutea, berriz, zerbitzu egin, kontrolatu eta ardatz izateko beharrian patologikotzat har daiteke.

Ez da harritzekoa, beraz, gauzak gaizki doazenean, emakumezkoak haiek hobetzen ahalgintzea eta oker ororen errua beren gain hartzea.

- Gure gizartean seme-alabak munduratu eta hazteari datxezkion eskubideak eta gatazkak aitortzea.

- Emakumezkoen boterea edo gizarte-ospea gizonezkoekiko harremanen bitartez eskuratzeko delakotik eratorritako jokamoldeez ohartzea. Jokamolde hauetako batzuk aipa ditzakegu:

- Emakumezkoek desbideratu egiten dituzte gatazkak, gizonezkoengandik urrunduz, haiei zuzenean aurre egitea arriskutsuagoa delako edo gizonezkoak babestearren.
- Familiako emakumezkoen arteko lehia, familiaren zirrarezko ongizateari eusteko erarik "egokiena" gatik.
- Emakumezkoak zirrarezko arazoei "aurpegi emateko" akulturatuak izaten direnez gero, batzutan haiei gehiegi aurre egiteak familiako emakumezkoen arteko gatazkak sortarazten ditu.

- Emakumezkoen balore eta jokabide berezien baiezipena, hots, lotutasuna, bihoztoitasuna, eta hunkiberatasuna.

---

Gizarte-mailan, laguntasuna eta intimitatea pertsonarteko harremanetako alde ontzat hartzen dira, baina kontraesanez eta baldintzapean, "bai baina..." delakoarekin, kanpoko lorpenak garrantzitsuagotzat jotzen dira.

- Emakumezkoei ezkontzaz eta familiaz kanpoko hautabideak aitortu eta onestea.

Ezkondutako gizona ezkontutako emakumearekin oso ezberdinak dira. Emakumezkoek balioztatuak eta maitatuak diren harreman-sarea mantendu behar dute, eta sare horretara egokitzeko erak, konbentzionala zein esperimentalak, ez du garrantzirik.

## Bibliografía

- Berenstein, Isidoro; Puget, Janine: *Psicoanálisis de la pareja matrimonial*, Buenos Aires, Paidós, 1988.
- Colección de Materiales Curriculares*, Sevilla, Andaluziako Junta, 1992.
- Cómo elaborar y seleccionar materiales coeducativos*, Vitoria-Gasteiz, Emakunde, 1993.
- Dowling, Colette: *El complejo de Cenicienta. El miedo de las mujeres a la independencia*, Bartzelona, Grijalbo, 1982.
- Erikson, Erik H.: *Identidad, juventud y crisis*, Madrid, Taurus Humanidades, 1989.
- Erikson, Erik H.: *Infancia y sociedad*, Buenos Aires, Hormé, 1980.
- Fernández, Ana M.º (comp.): *Las mujeres en la imaginación colectiva*, Buenos Aires, Paidós, 1992.
- Grosman; Masterman; Adamo: *Violencia en la familia*. Bartzelona, Bartzelonako Unibertsitate Autonomia, 1989.
- Kaplan, Louise J.: *Adolescencia. Adiós a la infancia*, Buenos Aires, Paidós, 1991.
- Las mujeres españolas. Lo privado y lo público*, Madril, CIS, 1991eko maiatza.
- Maqueira, Virginia; Sánchez, Cristina (comp.): *Violencia y sociedad patriarcal*, Madril, Pablo Iglesias, 1990.
- Martín Corral, Serafín: "Evaluación e intervención con mujeres que sufren agresiones durante los procesos de separación y divorcio".Tratu txarrak hartutako emakumezkoen terapeutentzako ikastaroan aurkestutako ponentzia, Vitoria-Gasteiz, Emakunde, 1993. (argitaratu gabe)
- Martin, Peter A.: *Manual de terapia de pareja*, Buenos Aires, Amorrortu, 1976.
- Materiales Didácticos para el Bachillerato: Filosofía, Psicología, Ética y Moral*, MEC, 1993.
- Ruiz de la Prada, Alicia: "Vínculos de dependencia patológica en las relaciones de malos tratos. Experiencia en un Centro de Acogida".Tratu txarrak hartutako emakumezkoen terapeutentzako ikastaroan aurkestutako ponentzia Vitoria-Gasteiz, Emakunde, 1993. (argitaratu gabe)
- Ser mujer: Fin de una imagen tradicional*, Bartzelona, Icaria, 1986.
- Stith, Sandra M.; Rosen, Karen; Williams, Mary Beth: *Psicosociología de la violencia en el hogar*, Bilbao, Desclée de Brouwer, 1992.
- Urruzola, M.º José: *¿Es posible coeducar en la actual escuela mixta?*, Bilbao, Maite Canal, 1991.
- Violencia contra la mujer en la familia*, Nueva York, ONU, 1989.

---

*Violencia en la familia (1) a las mujeres.* Madril, Europako Kontseilua, Encuentro Fundatzioa.  
(Argitaratu gabeko bilketa).

Walters, Marianne eta beste: *La red invisible. Pautas vinculadas al género en las relaciones familiares*, Bartzelona, Paidós, 1991.

Wynne; Simon; Stierling: *Diccionario de terapia familiar*, Buenos Aires, Gedisa, 1988.